

**Nikolas Ormaetxea «Orixe»**

**QUITO'N  
ARREBAREKIN**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Quiton arrebarekin*, Nikolas Ormaetxea Orixe.  
*Euzko-Gogo*, 1950/1954

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00231.htm>

# I

## DENUXI ETA NIKOLA

Denuxi.— I aiz mutiko?

Nikola.— Ni naun. Ez al naun ezagutu?

D.— Neregatik bai engoken.

N.— I ongi lengoa ago bada.

D.— Ikusi ere ez diagu aspalditxo egin elkar.

Zenbat urte bezala?

N.— Berrogei ta lau naski. Zenbat aldiz elkar ikusi ere? Amar bat aldiz eta aietan urtean bein. Orixe'ra Pestaburura urtero yoatean ikusten indudanan. Eta yoan nintzanetan bein konturatzan asi nintzan eskero, ez nizuten kasu aundirik egiten senide bakoitzari; bildurrez egoten bainintzan gurasoek etxean geldiaraziko ete ninduten. Etzianan nik nai orduko etortzen irugarren eguna, andik aldegitoko!

D.— Zergatik ori?

N.— Ez al dakin? Bi urte nituneraño ez omen nindutenan eraman iñudearenetik etxera, ta orduko, nik ezaguera poliki. Ez omen nenunan etsitzen: «Au ez da gure etxea; amarengana

yoan bear dut». Yaten ere ez omen nenunan. Nork adierazi neri aitamak nortzu nitun?

D.— Gizagaixoa!

N.— Azkenean iñudeari gaztiratu, ta an etorri omen amandre Mari-Axuntxi, ni bizkarrean eramatera. Lau orduko bidean mendiz. Oso maite nindutenan yende aiek, batez ere amonak, gerta oi dana. Askotan entzun nitenan guraso neuzkan aieri: «Guri etzaigu beñipein iduritzen ere, gurea ez dugunik. Geron lenbiziko aura il zitzaigunean ekarri genun bularrera. Berak ere ez du etxera griña aundirik gizagaixoak».

## **LEKUNBERRI'RA EDO**

Leitzako Erasoteko Bordetara yoaten nintzazero, beti lelo bera zunan Etxarri zapatariak: «Mutiko au zerea duzu»? Ta ordun berritzen zunan gertakari guzia: iru yaio giñala ta azitzera ekarri nindutela; i Areso'ra eraman indutela, ta etxean azi zutena il egin zitzaiela. Nik, berriz, alako naigabe bat ba nenunan, yende on aiek guraso ez nitulako, edo ez nitula esaten zidatela-

ko. Egiazko gurasoak guraso nitunik ez siñestu nai. Esanago ta gutxiago. Ez diñat oben aundirik, nere ustez. Bestalde, gurasoek naiko aur bazunaten: amaika ongi elduak, eta bat eldugabe yaioa..

D.— Beraz, anaia ba-dugula linboan?

N.— Aita zanak esan zidan. Bein edo bein, pestakoan, galdegin zidatenan etxean gelditu nai al zun, eta nik ez nenunan erantzuten. Etxekoak (Uitzikoak) beti zirika pesta aurrean: «Oraingoan geldiaraziko aute»; bañan amona Mari-Axuntzik etzunan beraizik artzen: «Ez dute naski, gure Nikolas geldiarazten lanik izanen!».

D.— Oinbeste maite induten?

N.— Oinbeste. Gero, eskolan aurrera nindoa-la-ta, esker ona ematen zidatenan. Eta, i nola gelditu intzan etxean?

D.— Ni ez nintxian konturatu ere. Nonbait lenago ekarri, edo ik aiña ezaguera ez? Oartu nintzanean, bai «Napar Beltxa» esaten zidatean, eta ordun adierazi, Areso'n azia nindutela. Iri berriz «Napar koxkorra».

N.— Etzitzaidanan batere goxo par-murritz ua. Nere buruaren eder-itxusi bizia izan diñat

aspaldi artatik. Batzuk Uitzzi alako erri itsa zala; beste batzuk, Orixe olako erri purtzilla zala. Nori seiñetsi? Nere buruari. Yakiña. Ni Uitzzi'ren alde. Aitona Zimurro'k au esan oi zidanen: «Orixe'n etsitzen dunak, ipernuan ere etsiko likek. Zutik egoteko ez diran maldar aietan, negarrez urtuko aiz, gizagaixo ori, txepetxa bezala». Amona Mari-Axuntxik, berriz: «Ikusi dituk ire anaiak Santi Kurutz egun aundiz, bata sorta-belarra bizkarrean eta bestea ardietan. Ez naski i bezala yantzirik. Uitzzi'n eskola ederra emanen diagu, ta ez duk egin bearko oinbeste aztarrika.»

D.— Berek ere ainbeste aur eta, nola yazten induten ain ederki?

N.— Eskolan aurrenekoeri urtero seiñeko osoa ematen zigutenan, eta guzieri zerbait yantzi. Ni beti seiñeko berriz yoaten nindunan Orixe'ra.

D.— Nondik atera oi zun eskolak, aur guzieri yantzi zerbait emateko?

N.— Eskolak egin zitunaren illobak; bera ez bainun ezagutu Mariano Iriarte Osanbela. Mari Mikela izan nenunan nik lenbiziko ongille aundia.

Ez al dakin? Orixen ikasi zunan pianoa Montes'ekin. Bai al dakin nola yoan zan ara?

## MARI MIKELA IRIARTE

Uitziko Otsanbelako alaba. Gaixoak aurretan edaten ikasi omen zunan, eta gaitz ori sendatze-ko sendagai bat omen zinan, ua artu ezker gorroto artzen baitzioten edariari.

D.— Zer sendagai zan ori?

N.— *Muxu-Larru* izena ematen ziotenenan. Bai omen zinan sendagille prantses bat Muxu Lerrua (Monsieur Le Roy), eta arengandik izen polit ori. Arekin kentzen omen zunan moxkorragure Montes'ek. Bitartean musika irakatsi omen zionan beste zerbait eskolarekin. Orregatik edo, ni yaio nintzanean eta Uitzira eramanez nindutenean, Mari Mikelak bereiziki nindunan maite. Denentzako zunan biotz ona gaixo arek.

D.— Eta nondik ikasi zun gure erri kaxkararren berri?

N.— Montes zana Gorriti'n apaiz egona baitzan gu Iruñako Eliz-barrutiko giñala.

D.— Gorriti! Gogoan zeukeat berekotzeko Matolok esan oi zuna: «Kristauak Orixe'n bizi baño Gorriti'n il obe dik».

N.— Zer Paris Gorriti, gero ere!

## **UITZI TA ORIXE**

D.— Ni Uitzin bein izan nauk i ikusten, eta ez diat ango oroipen aundirik. Etxe ederrak bai.

N.— Nik ez diñat esango zein politago, baña neretzako ba yun bakoitzak bere zorapidea. Nik, beñipein, Uitzin'ren bearra izan diñat. Nere lenbiziko euskal-eskola gure sukalde ua izan zinan. Artaz egiña diñat liburu bat: onezkero bidean din. Ango belardi, baso, ikazkin.... Igandean alaiago zinan Uitzin garai artan orain Pestaburuz baño. Ezatugu diñat ingurutxoa iru tokitan batean ateratzen: erriko enparantzan, Marieneko larraiñean, Irurte-Txabalean. Plazaola'ko burni bidea egin zunaten eta, agur ango alaitasuna! Lekunberritik ere etortzen zitinan igande atsaldea pasatzera.



Orixe'k ere ba yun bere zorapidea. Dalako Uitziliburu ori an egin nenunan, eta adiskide batek au esan-zidan gure balkoiean zegola: «Emen poema ori egiteari ez diot esker aundirik ematen; neronek ere errex egin nezaken balkoi txoragarri ontatik».

Zeru geiago ageri din Orixe'tik bai. Asi Errazkingo Mallotik, obeki esan Baraibar'ko ta Uarte-Arakil'go muga basotik eta Aya'ko Andazarrate ingururaño ba yunate begiek zer ikusi. Aralar, Urkieta, Narbaitzu, Agiñegi. Beizama'ko basoak Albiztur, Urkizu —azpialdean egiten zetunan bertsoak Lizardi zanak—, Ernio, Zelatun, Andazarrate. Napar aldera zotzune Musairu, Unai-Garate. Zer arrano-arkaitza gure etxea! Esan dudan adiskide orrek, «Egal-Ontzia» esaten zionan; iduri baitu egan astea doala. Aldapa pikoa, zelairik ez, erriko enparantza baizik. Neguan an zegon errekondoan Lizartza, atsaldeko ordu bietarako eguzkirik gabe. Gu berriz argitan atsalde osoan, eguna aurreratu arte. Inguruz polita Orixe, etxez ez ainbeste; lurrez oso nekea lane-rako. Bakartasunean bizitzeko, aukerakoa. Urte ederrik eman nenunan 1931'tik 1936'era! Bitar-

tean aita zanaren eriotza. Etxean gertatu nintxinan. Ezaguera osoan zegonan. Arritzekoa —gaur euskeraz itsusi dana— azkenetan iketan asi zitzaionan Yesukristori: «Ator, ator lenbailen»!

D.— Yainkoak zerua diola gizagaixoari. Ta Uitziko aiek il al ziran? Aspaldi. Zapataria nik amasei urte edo nitula. Andik luzaro gabe ama arroxak. Aiek ere amar aur izan zetunaten, eta guziak gazterik il itxinan, bi ezik. Sukalde doakabea! Beti ubarrazkian.

Gaur bei bat il, bihr urde bat, urrena aur bat; azkenean aitamak. Alako yende onik ez nenunan arkituko billa ibillirik ere. Nik ere alde egin nenuan eta ez gurasoen etxera, txori galdu onek.

## **BI AMONA**

Amona Mari-Axuntxi, aita zapatariaren ama, oso emakume yainkozkoa zinan. Arengandik ikasia naun otoitz egiten, gaixoak etzekinan irakurtzen. Ni eramaten nindunan balkoiera, Gurutze-Bidea irakurri nezaion. Zenbat malako ixil! Nere

Yainko-Bidean ez diñat uste ark aiña iñork eragin naunik. Ua izan nenunan lenengo irakasle.

Beste amona Maratiste, beste sukaldekoa ama Arroxa'ren ama. Biak sukalde banatan bizi itxinan: alaba sukalde txikian nerekin eta ama aundian. Ni geienetan beste sukaldean nintxinan, zerbait yaten edo edaten. Artalde ederra ziñatenan. Amaika Gazta-Mami ta gazura eman zidan gaixoak!

## **BI AMA TA BAT ERE EZ**

Arroxa Aristimuño nenunan iñude: «Ama Arroxa», nik egizko ama uste nuna. Ta uste ori nork kendu, oraintxe ere...! Onela esaten erakutsi zidatenenan: «Ama Arroxa ta ama Mañazi». Ire ta nere amak zer-euki gutxi, ta amar aur ordurako: bi bixki aldi, irukiak, gero bakarka lau, onik yaioak. Etxera iñuderik ezin ekarri. Orra naiko naigabea arentzat eta neretzat. Gu bion aurreko arrebak etxera ekarri al izan zunan iñudea, ta nik ikusi nenunan ire izeneko illoba, iñu-

dea bañon ama maiteagotzen: begien aurrean baitzedukan beti.

Ortatik gelditu zaidan beti biotzean ezin betezko utsa.

Bai al dakin zer gertatu dan Suizan orain bi edo iru urte?

D.— Eta?

N.— Emazte batek bikiak ukan, etxean ez-bañan erdi-etxe batean. Aur oiek garbitu ta aldatzekoan bietan bat besteren amari eman, eta arena onenari. Berton ez baitaratu —ez baita ain errez yaioberrian ezagutzen— eta garbitu aurrean amak ikusi ez; berenak bezala artu. Ari orren itxinan azitzen, bata larruzuri, illegorri, bestea beltzeran. Biki ziranik ez ageri. Ik eta nik ere ez diñagu alako antza aundirik, agoan ez bestetan. Orixe'ko Juandagireneko mutiko bikiak ere ala ditxin: bat gorri, bestea gaztain. Esaten ari nintzana, amar bat urte zitutela au gertatu: *Corpus* egunean, ama bakoitzak aurrak prosesiora bialdu Suiza'ko uri berean. Bikien ama Bazterretik begira zegola, ara non datorren larruzuri illegoria. «Adi zak, seme» amak, eta semeak: «Ez dakit prantsesez, andrea». Urruti gabe beste

semea, lengoa bezalakoxea, etxean azia. Asten dun ama gaixoa buruan iraultzen: «Erdi-etxean trukatu ete zidaten?» Galdegin ta galdegin, alako egunetan alako tokitan nork-eta aurra izan zuten etxe artan, eta beltxeranaren amaren aztarrena artu yunate. Yoan zaizkion mutikoarekin eta etxeko airea arek ere. Argitasun guziak oro bat etortzen. Bai al dakin biki diranak zertan ezagutzen diran ziur?

D.— Zertan?

N.— Illeko gerlian. Illea ebaki ta gerlia aztarrenatu; bikiak bestek ez omen diñate gerli bera. Illegorri aietan ala gertatu. Yoan onen auzitara, ta seme bakoitza egiazko amarenera igorri. Ama gaixo auek ba zunaten burrukarik aski berekiko, bularreko aurrak uzten. Iñudeekin ere gertatzen baita, amak baño maiteago izatea, ta aurrak orobat. Eta seme auek? Nik nere buruz irizten zionat, bañan etzaidan iduritzen ondo egiña dagonik. Noizean bein egiazko amarenera agertzea — ni Orixe'ra bezala— ederki zegon; bañan amar urteko mutikoak, ustez ama zutenarengandik bananeraztea, gogor iduritzen zaidan. Ama Arroxa ta ama Mañazi batean agertu ba'lekizkida,

nor lenik musukatu? Lazgarri dun, bai; baña biotza nagusi.

Nere bizi guziko utsaldia: bi ama ta amarik ez. Biotz zekena dutala esan ziñadate; ez dutala biotzik. Nik zekiñat ongi zenbat aldiz biurritu bear izan dutan. Biotz bat arkitu nai nerearen atsedenerako, aurtzaroan eta gero ere, ta arkitzen ez. Nik ere aragiz egiña diñat eta amaren ordaiña billatzen ibilli arren, umezurtz gelditu naun. Amaren musu bat etzekiñat zer dan.

Lagunartea etsai izan diñat oraintsu arte. Oraintxe asi zaizkidan esker ematen eta kutun artzen.

D.— Ez uan goizegi: obe dik noizbait beiñere ez baño.

N.— Amaren sabelean bi etsai; zuek ere ni ala ninduzuten. Gero beste lagunarte artan?

D.— Zer gertatu zitzayian?

N.— Bego, bego...

Urrena, bizibearraren burruka. Beude, beude naigabe oiek..! Oraintxe asi nain bizitzen berri berri. Osasunez beiñere bañon obeki. Zartzaro polita ete datorkit? Ameriketara etorri naun, gazte nintzaken gisan.

## II

# AMERIKETARA

D.— Nola gogoak eman zian Ameriketara etortzea?

N.— Bein edo bein kartaz esan neninan, diru-mordoxka biltzen ba'nun etorriko intzaidala.

D.— Beraizik bezala. Nik ez nenuan behintzat asko siñesten.

N.— Neronek ere... Azkenean orregatik, biderakoa bildu diñat eta emen natxion.

D.— Nola egin duk diru ori?

N.— Esana diñat naski «Urte guziko Meza-Besperak» deritzaina euskerara biurtuazi didatela.

D.— Ta saldu da?

N.— Oraindik ez argitara eman ere. Oraintxe argitaratzeaz. Ba dakin? Nik eskuz egiña oinbeste ordaindu zidatenan, nik betiko eskubideak utzirik.

D.— Ez al enzaken diru ori gorde zartzarorako?

N.— Yainkoa axolatuko dun ortaz. Etxera itzuli ba'nendi, yana ta etzana nere zetunak beñipein, eta emen Ameriketan, osasuna ta Yainkoa lagun, nere diña egingo al diñat.

D.— Bidean nola ibili aiz?

N.— Oso ongi. Bordeletik irtetean, ontziaren papar-ezurak arkaitza igurtzi zunan. Ontzikoek, ai! Egin zunaten. Ontziak ur egiten, gutxi bederen. Itsaso asarrea zinan, edo obeki esan itsasadarra, oraindik ez baikiñan itsaszabalera sartu. Ura irakiña zegonan an ere. An egon bear egun terdi, aurrerako baimena ematen ote zuten. Buruenean, Dakar'año bederen yoan zitekela. Gure itsasoa gauzez igaro genunan. Eguna argitzerako Sandander'koan genitunan. Bizkai-itsasgaltzarra igarotzean, an asi zitinan zorabioka ta goraka. Ain itsaso bizirik ez genunan sumatu arrezkero Buenos Aires'año. Zortzi lagun gintxinan maiean eguerditan, eta afaltzekoan bi besterik ez gintxinan agertu. Bide guzian ez nenuan izan burukomiñik, ez zorabiorik. Illabete osoa eman genunan Bordeletik Buenos Aires'a. Osasunerako, itsasoa aiñakorik ez diñat arkitu. Dakar'en beste egun terdi edo egin genitunan.



An ontziari adabaki bat ezarri ziotenan, eta urik egin gabe iritxi zinan Plata ibaiera. Zer beroa Dakar'en! Eta Rio Janeiro'n? Bearrik emen euri aundia, bestela gorriak ikusteko geundenan. Zer uri zoragarria Brasil'go Uriburu au! Ametsik ere etziteken ederragorik. Donosti, Donibane, Miarritze politak ditxin iñon politik ba'da. Orixe esan, *politik*. Rio Janeiro eder garaia din. Munduan ez omen alakorik.

Berorik aundiena, berriz, Panama'n. Emen atsalde erditik biaramon goizera gelditu gintxinan. Goizean izerditan esnatu nintxinan. Lo, bai, ederki alare.

D.— Ormaetxear izan bear, loti, esan oi dute-nez.

N.— Eta Buenos Aires'en? Ango bero sapa ta itsaskorra! Ez din izugarri baña bai nekagarri. Bertokoek ere ezin burutu yunate. Bero ezoa. Egunez ta gauzez ere ur-garaztaren azpian egon bea Lo egitea oso neke.

D.— Eltxorik?

N.— Gutartean arkakuso aiña. Ez ditxin lagun onak lo egiteko. Kukusorik ezbatere.

D.— Ik lo egingo yuan nai ta nai ez.

N.— Bero ta eltxo ta guzi, bost illabetetetan bi gau doi doi galdu nitunan begiak ezin itxiz. Lo ederra nenunan. Bertakoek au esaten zidate-nean: «Guk ezin dugu lorik egin ainbeste gautan, eta zuk aur batek bezala». — Ni aro guzietako landare nauzute. Berela bertakotu nintxinan.

D.— Eta illoba?

N.— Autsi egin zinan, gaizoa. Aurra illik atera, baña bizirik alare. Bera ere larri zinan, bañan ongi gelditu din. Senar-emazteek illabeteko txangoa egin yunate Patagoni'ra, ta Maritxu oso onik etorri dun andik.

D.— Eta Bahía Blanca'n?

N.— Illabete egin nenunan andik 72 kilometrora, Berraondo'n, adiskide batzuekin. Zer illabete ederra! Baigorriarra senarra, Bidarraitarra maztea. Onen amak puska zenbait eman zitidan goraintzi bezala eramateko, eta aiekin yoan nintxinan. Buenos Aires'en baño bero aundiagoa egiten yun bañan ez ain astuna.

D.— Luzarotxo egon aiz Buenos Aires'en.

N.— Ara, neska: onerako paperak antolatzen illabete terdi eman zetunat. Yoan etorri oietan

egin dutan bidea onontza xuxen egin ba'nu, aspaldi aundiaz emen nintxinan.

D.— Neke onak artu dituk neregatik!

N.— Neke aiña protxu aterako al diñat. Aundiena, legorrez etortzea andik Arequipa'raño, tren kalaka artan. Baña balio zenunan. Bolibia'ko gainzelai artaraño, zer nekea! Ara ezkerononbaitor. Lurralde ederrik ikusi yunat.

## **BOLIBIKO ZABALDIA**

Ikusgarri dun, obeki esan neretzat, entzungarri.. Zer ageri da? Iñon bañon ikusbitarte zabala-goa. Itxas-obao bera txiki iduritu zitzaidanan, eta etzidanan etragin aunditasun onek aiña. Zer nolako mendi lotsagarriak, guk esan oi dugunez. Zer ditxin, gure etxetik ageri diran Aralar eta Ernio? Iru milla metro ta goragoan, zelai ta zelai, malkor eta malkor, elur eta elur. Ikusgarriena ango sorgiñ-argia. Goazela, goazela, trenetik urruti xamarrera, aurretik, aintzira edo itxaso bezela ikusten diñagu lurra, ta atzera utzi-ala, lur biurtzen din. An emenka artalde batzuk, zugatzik

batere ez, toki goiegiak baitira. Txoririk ere. Otzik ez, gauetan ezik. Buenos Aires'tik ateratzea, Villazon din mugan aurreneko erria. 3.500 metrotara zegon. Ementxe sumatu nenunan goineke pixka bat: arnas-eztu-antxa, estaziotik etzalekura. Maleta ere astun xamarra. Gau artan, yakiña, lo beti bezala egin nenunan, eta beste bietan ere. Biaramonagoan asi gaitun zelaiez aurrera, ta bigarren geltokira bitartean, xoragarrizko gizalan antzeko batzuk. Buztinmuño batzuk, euriak bi aldetatik yanak eta iduri polit biurtuak. Nork esan esku-lan etziranik? Askotan begiratu nenunan bi aldetara, ta galdegin ere bai bertakoeri: «baña, berezkoak al dira?» Ontan, Gazteluzar bat erdi eroria; arontzago Anaitegi bat; arago koru bat, Anaiak eserita Eliz-otoitza egiten ari bailiran; berela aldare bat eta aren inguruan Aingeru antzeko neskatxa batzuk, besoak altxaturik. Apaiz antz-antzeko bat ere ikusi genunan besoak zabalik itzaldian. Zer geiago? Igito erriko ormadi bezalakoak letra ez-ezagunekin. Zenbat eunka langille bear like-nate lan guzi aiek eskuz egiteko!

Ikusi genitunan geroxago, burnibidearen bi aldetan Irurtzun'go Bi Aizpa'en gisako bi mendi, ta bertan tunela. Aurrerago ta zabalago. Aralar alako zazpi gora dauden mendiak. Noizbait, oso urrun, Andes bizkar-ezur-zuria.

Entzun, berriz, zer entzuten? Ezer ez. Ez zugatzen abarrotsik, ez txorien txintakorik. Txori bat bera ikusi nenunan Buenos aires utzirik, eta arrano bat. Gero ezer ez Titikaka aintzirako antxitak ikusi arte. Argentina'ko zabaldietan **tero** txori banaka batzuk ageri ditxin, zugatzik ageri ez ba da ere: noizean bein txartaka batzuk; emen ezer ez. Obeki esan, Yainkoaren ixiltasuna ta pakea. Indio beltxeran bat kitarra yotzen, lepoa makur, bere magalean bildurik, erdi-lo, erdi-muzin, bere biotza ase naiez. Berraondo baño bakarrago ta ixillago. Olako otoilekurik ez diñat argitu. Tebaida ez diñat ezagutzen, baño guraso aiek, denik ere, ain doatsu. Zerua goien, lurra beian; baño mendietatik Yainkoaren laguntza, Dabid'ek diona. An etzegon begiak itxi berrik Yainkoagan murgiltzeko. Amona Mari-Axuntxiz oroitu nintzinan.

D.— Zergatik artaz?

N.— Uitzí'ko Entzelaira mutiko lenbizikoz arekin larranbillu biltzera atera nintzanean, an ikusi nitunan, Uitzí'ko kabi txiki artatik aterarik, alderdi batean Aralar'ko malloa, ta bestean Beruete'ko, Ezkurra'ko, Leitza'ko Goizueta aldeko mendiak. Ordun esan nionan: «Zein aundi ote da mundua?», ta, «aundiagoa Yaungoikoa» esan zidan. Zer egaldia egiñerazi zidan amandre arek lenbizikoa! Olako bultzara eragiñez, gaiñak eman zizkidanan, ikara gabe aurrera egiteko, txorikume oni. Geroztik apika egin diñat egaldi aundiagorik, an asita zabaldi ontaraño. Emen arkitu nenunan nere burua, orduko ta oraingo berbera, Yainkoa bezala.

Noizbait ukitu diñagu burnibidearen gaiñena, 3.750 metro, ta zabaldi ua koskan bukatu. Bolivia'ko Uriburu dan La Paz agertu zaigun. 3.200 metrora omen zegon, aski goian; baña goi artatik oso beian ageri zaigun, gau-argiz beterik, arratseko beratziak inguruan. Ez yun alderatze-ko balio, baña Bilbao'ko Artxanda oroitarazi zidan andik gaez ikusirik bainago Bizkaia'ko Uriburu. Emen bi gau egin nitunan. Zer yendearen emana Elizetan! An etzegon Prantziko ta Buenos

Aires'ko konturik. Indiatso beltxeran batek nere ondoan Yauna artu yun. Oñutsik zegonan, gai-xoa, aietako geienak bezala. Euneko irurogei ta hamabost omen ditzin arraza ortakoak Bolibi'in. Yende mordoa beti Elizetan, egun osoan. Ala ere, Quito dun ontan nagusi. Emen ere Beltxeranak ageri ditzin geienak. Siñestea bederen ba yunate gaixo auk. Besterik zer ekarri dite Colon'ek? Len bezain zigorpeko egotea. Bego, bego.

Bazkalondoan andik yauzi ta Titikaka, aintzi-rara bostetarako. Ba-dakin nunduan dan aintzi-rarik aundiena ta ederrena dala. Ordubete ezik, gauez igaro genunen, Goizeko zortzietan atera. Nork esan, itxasotik iru milla metrotara oinbeste ur? Mendiak bear yuñate nonbait ere!

Andik Arequipa'ra lenbiziko trenean. Emen bost egun gelditu nintxinan, egal-ontziaren zai. Ederki etorri ere geldialdi au sukarrarentzat. Txartela artua nenunan, eta galdu nai ez. Irten eguenan 96 bioz-pilpira netunan ontzira igo-tzean, bañan oso bioztoi arkitzen nintxinan. Guziz ederki iritxi nintxinan Santa Arrosa'ren irira. Biaramonean, nere betiko pilpirak nitunan: 53 minutuko. Santa Arrosa'ren etxea ta lore-

baratza, ordun bezalaxe zeuden. Lizardi zanaren etxea ta lorebaratza gogora zidan. Gorputz-ondarrak urrunagoko Eliza batean zeudin. Asti gutxi an egoteko, bazkalondoan artu bainezaken egagurdia Lima'tik Guayaquil'a. Onera gauez iri-txi, ta goizean aski goiz ontzira berriz ere, Quito ontaraño.

D.— Ez al duk geiago goi-miñik sumatu bide oietan, eta emen ez al duk sumatzen?

N.— Ez ta batere.

D.— Nik bai oi diat noizean bein, emen La Paz bezain gora ez ba'gaude ere.

## **BERROGEI EGUN**

N.— Utziko al diñate nerekin bakarrik yardu-ten?

D.— Berez zortzi egun, goiz ta atsalde, biok bakarrik oraintxe bezala. Bear ba'da geiago, ain urrundik etorri aizelako Emendik norako asmoe-tan aiz?



N.— Guatemala'ra. Itz eman zionat Zaitegi yaunari, ondo xamarrean nai baininduke lanerako.

D.— Beraz, etxerako asmorik ez?

N.— Oraingoz ez. Guda sortu baledi ere non emen bañon obeki?

D.— Egia.

N.— Naiz Guatemala'n naiz El Salvador'en egin omen zezakenat nere bizi guziko lan aundia, Zaitegi'ren adiskide batzuen etxean.

D.— Ederki. Nondik oinbeste adiskide?

N.— Yainkoak sortzen zetunan emenka. Bestera esan, Bera agertzen din olako ta alako lagun urkoetan.

D.— Eta zer lan duk ori?

N.— Luzetxo uke yardun ontarako, ta urrengoan irauliko diñat. Labur esan: ARGI-ERRI yun izena, ots, Kristau-erri osoa, beste itz batez, eliza: zeruko Eliza, Garbitegikoa, lurrekoa, ta gero, zearka bederen aurren linboa, bataiagabeen autegia.

D.— Ipernua ez al duk arrotu bear?

N.— Zerbait. Ikusi ere egin diñat Europa alde artan, Naparroa Gipuzkoetan. Garbitegia ere bai,

Prantzi alde artan. Oietaz ere zerbeit esan bear-ko yunat, ik ere ango berri xuxenik ez baitun yakingo, zabaldu diran gezurrekin. Itz aspertu batzuk egingo zetunagu denetaz.

D.— Noiz arte agoke, emen?

N.— Illabete beñipein. Bear ba'da berrogei bat egun. Andik aurrera, astean bein bestetan elkar ez ikuste ezkerro, alperrik egotea yunat emen.

D.— Ala duk, izan ere.

## **ARGI-ERRI**

N.— Esan bezala, otson nere lanik aundienaren burubidea: Nik nere barrenean arkitzen zetunat, nolabait, diranak oro: zeru deritzaion atsegindegia, ta ipernu edo oñazetegia ere.

D.— Nola ori?

N.— Ebangelioan au irakurtzen diñagu: «aur auen Aingeruak, zeruko Aitaren aurpegia ikusten ari dira beti». Ortaz aur oien Aingeru Zaindaria, aur aien Zaindari zegon bezala, berebat zeruan

zegonan beti, Aitaren aurpegiari begira, atertu gabe. Gure Aingeru Begiralea ere zergatik ez?

D.— Zerua mundu ontan gurekin ote dauka-gu bada?

N.— Zerukoak bai, beñipein, beren toki bereizia baldin ba dute ere.

D.— Nolatan?

N.— Yainkoa orotan zegon. Gorpuzki diranetan ere, zenbait aldiz gertatu izan dun, gorputz bat une berberean bi tokitan arkitzea. Mirariz, yakiña. Ala Liguori ta Loiola. Beraz, gorputzik ez dutenak, gogaki diranak, zergatik ez une berean bi tokitan egon? Are geiago. I ta ni, gorputzez Quito'n arkitzen gatxin. Orain Orixera yoateko tartetik pasa bearko genuken; bañan iduripenez, gogoz, an geuden une bereon, nai ba dugu. Gogoeman gu bataiatu ginduteneko Eliza. Ez diñagu tarte ori igaro bearrik ez iduripenez, ez gogoz, emen gaudela bietan arkitzeko. Gure otoitza ere irixten dun arañ, etxekoen alde ari geranean. Zergatik ez Aingeruki naiz deabruki bat una berean bi tokitan gertatu?

D.— Etzegok oro oker asmatua.

N.— Dana dala, Aigeruak emen arkitzen dirala millaka, zeruan dauden berberak, alegia, Liburu Santuetan irakurtzen diñagu. Belen'go artzaieri agertu zitzaizkiela yakiña dun (Lc. II, 13); Zakarias apaizari agetu zitzaiola ere bai, lurrinketan arizala, aldarean. (Lc. I, 11). Barumendian Yesukristori serbitzen ari zirala ere bai, deabruak andik aldegin zuenean. (Mc. I, 13). Meza Nagusian, lurrinketakoan, Yondoni Mikel Aingerua aldare eskuiñean esan oi yun apaizak; Sagara ondoan Aingeru bati agintzen zaion, opari ua eraman dezala Yainkoaren zeruko aldarrera. Illobia bedeikatzen dutenean, ango Aingeru Bergiralea aipatzen yunate. Ez el yunat arrazoirik aski, zerua emen ere ba dagola, aldez aldez beñipein esateko?

D.— Eta ipernua?

N.— Azken-auzi ezkeru bere toki bakara izangu dun arren, artean, beintzat emen ere ba dagola esan zezakenagu.

D.— Olakorik!

N.— Ebangelioak berak zion, gure Yaunak deabru asko aterazi zitula gorputzetatik. Orain ere an emenka ba ditxin deabrudunak. Ez, emen

ez ba'lebiltza. Talde osoa ere aizatu zunan Yau-nak bakarrarengandik. (Mc. V, 9; Lc. VIII, 30.) Itsusia, berriz, Yudas'i agotik sartu zitzaiola, Yaunak Berak eman zion ahamenaren atzetik. (Io., XIII, 26.) Gure aingeru gaiztoa ere guregan arkitzen dun, okerrera deitzen gaitunean. Yainkoak Berak au esan yun San Paulén bidez: gogaki gaizto oiek aizean bizi dirala. Ta Meza Ondoko otoitzean Leo XIII'garrenak: «aiza etzazu ipernura Satan eta munduan aron dabiltzan aingeru gaizto oiek».

D.— Nola ordea Aingeru ta deabru, zeru ta ipernu elkarrengandik ain bertan, eta, ala esan, batean?

N.— Etzion axolarik. Berez, eta siñeskizunak esaten diguna zapuztu gabe, ez al litezken egon toki berean edo urruti gabe? Ebangelioan berriro. «Il zan Lazar eskalea, ta Aingeruek Abraham'-degira eraman zuten; il zan aberats Sabeldarraio ere, ta ipernuan pulunpatu zan. An oñazetan zegola, begiak yasorik, Abraham ikusi zun urrun, eta Lazar aren atsedenguan, eta oiuka au esan zion:»Aita Abraham, erruki zakida, ta bial idazu Lazar, beatz muturra uretan uki dezala nere min-

gaiñ au ezotu dezan; oñazez bainago gar aue-  
tan». Eta Abraham'ek ari: «Seme, oroi adi ire  
bizian ondasunak artu ituala; Lazar'ek berriz,  
gaitzak. Orain ordea, pozetan zegok, eta i oñaze-  
tan. Zuen eta gure tartean leize aundi bat zagok  
iñaurria; emendik orrara ta ortik onara igaro nai  
dunak ezin baitezake» Ona emen Abrahamdegiti-  
tik ipernura izketan, oiuka bederen. Eta ikusbe-  
gian gañera, ausaz urrun-ikustez. Oraingo urrun-  
ikuste ta urrun-entzute auek, eman dezagun zer-  
bait olatsu zirala an batetik bestera.

Makurrena *egoera* din: batzuk atsegiñetan,  
besteak oñazeetan daudela, gu emen egon oi  
geranez; batzuk eztaietan, besteak illetan, naiz  
elkarregandik urbil egon eta elkarrekin bizi. Ta  
ipernuan ez yuñate oñaze gutxi izango, zeruko-  
en atsegin betea urrundik ikusiz edo sumatuz,  
aberats arek bezala.

D.— Gauzak itxura yuk.

N.— Ez diñat nik sinest-egi bezala ematen,  
Ekizak esanaz bestera; baña neri asko laguntzen  
zidan asmakizun eder onek, kristau-bizirako.

D.— Arkitu ote litezke une berean guregan  
Aingeru ona ta gaiztoa?

N.— Ez uke arrigarri; baña naiago diñat txandaka iduritaratzea, batak edo besteak eragiten gaitunean. Alaxe Yesus Bera ere txandaka artu ziñatenan: aingeru gaiztoak zirika, ta, arek aldegin zunean, Aingeru askok agurka. Egon ere batean zeuden guregan, anima ta Yainkoa nastu gabe. Zergatik ez litezken egon bi aingeru oiek ere? Norbaitek esan yun, eta ez edozeiñek, gorputz bakarrean deabru-talde osoa zegola. Norbait berorrek dionez, gogaki bakoitzak gorputz osoa artzen omen yun; ortaz, ez dun belarri-mingarri, une berean guragan asko arki ditezkelat aitortzea.

D.— Ortaz, zeru-ipernuak toki berean ez egonik ere, urbil daudela esan ote diteke?

N.— Mundu ontan bai nere ustez.

D.— Noiz eta non gogoak eman zuian ori olazitekela?

N.— Salomon'en Zugurtasun Liburua irakurtzen ari nintzina XVIII'garren atalean. Ikus zer diagon: «Gaiztoek (igitoek, alegia) erri santua (israeldarra) beren mende zeukatelakoan, illunaren katez eta gau luzez loturik, tellatupeetan gelditu ziran, Yainkoaren axolapetik iges. Eta

oben illunetan gorderik zaudelakoan ezin-oroi illunarenpean sakabanatu ziran, latz-ikaraz arri-garriro nasturik. (Igito'ko amar izurri aietaz yun yarduna, eta emen illuntasun aundi artaz). Barnean zeduzkan aitzulo arek ere etzeduzkan ikara gabe. An sortzen zan soñuak larria sarrerasten zien. Iratxo bildurgarriek dardar zeragiten. Surik bizkorrenak argirik ezin eman zien. Izarren dirdai garbiak ere ezin argiarazi gau lazgarri ua. Bat-bateko sugarra agertzen zitzaien bildurgarri. Eziñ-ikusizko aurpegi baten bildurrak artzen zitun, ikusi litezkenak okerrago lirakelakoan. Gañera, aztien irriak eta istak...

Gaixo zeuden anima aieri bildur-ikara kendu lieketela esaten zutenak berak, bildurrez beterik zeuden parragarri, gaitz aekin berarekin. Ikara zezazken iratxorik ez baizan ere, eizeen arontz-onontzak, eta sugeen xixtuak erasanik, ikaraz iltzen ziran. Iñork itzuri ez dezaken aizea ere, ez omen zuten sumatzen. Gaiztakeria bildur izaki, gaitzesteko bera atera oi da lekuko. Barne kezkatua, gauza gogorren bildur da beti, izan ere, bildurra laguntza-uste ustela besterik ez baita. Ta barneko itxaropidea aulago danean, aundia-



go du kezka, oñazetan zergatik ote dagon. Lo berean zeudeneri, barnenetik gaiñenera zetorkien gau ezin-yasan ua,, batzutan izukari-bildur zitzaien; besteetan erio-zori; ezusteko ta sosteko ikara baitzetorkien. Gañera, aietako norbait erori ba'zedin, burni gabeko giltzape artara sarrerazten zuten. Nekazari, naiz artzai, naiz zulaketan ari dan norbait atzematen banzun, eziñitzurizko bearra yasanerazten zion. Illunaren kate berak zeduzkan bildurretan denak. Aize-ziztua, naiz zugasti itsuko txori-txinta xamurra, naiz basaeizeen marru lodia, naiz mendi gañetik zetorren olartzuna, bildurraren bildurrez erio-agin zitzaien.

Alare, lurbira osoa argi garbitan zegon, eta gizonak ez zun eragozpenik lanerako. Aiek bakarrak (igitoek), zuten gau astuna gaiñean, gero etorriko zitzaien illunpearen antza. Ortaz, berak ziran beren buruentzat, illunpe ua bañon astunago.

Zure santuek orde, (israeldarrek) argi betea zuten, Yauna. Auen mintzoa entzuten zuten (igitoek) bañen aurpegirik ez ikusten (Sap. XVII-XVIII).

*Gero etorriko zitzaien illunpearen antza, esan yun. Ez al din au, mundu ontako gaiztoen eta ipernutarren idurikizun egokia?*

D.— Alaxe duk. Gaiztoen ikara ta illuntasuna.

N.— Eta toki berean, era berean, anima zintzoen eta zerukoen argitasuna. Lurralde osoa zoar zegola zion, lanerako moduan. Eta igitoak illunbetan.

Alaxe geuden gu beste mundokoen ariora. Emen yuñagu burruka Aingeru on eta gaiztoen eta Yainkoaren aurrean, aiek ikusten gaitutela, ta guk ikusten ez ditugula. Yondone Petirik diona: «Etsai deabrua inguruan ari zaizue, leoi orroduna antzo, nor iretsiko». Dante'k bañon obeki adierazi yunate bai Salomon'ek bai Yob'ek eta Liburu Santuek, mundu ikus-eziñ oiekin dugun artu-emana. Ikuskari gakien munduari, Aingerueri ta gizoneri S. Paul'ek diona. Gerta-iduri au gertaberritzen diñagu kristauak, zeruko ta ipernuko aingeru oiek aurrean dauzkagula. Gaizki esana zegon gertirudi, beti gertakizun baita, ta bakoitzak gertarazi bear baitu bere barnean, mendez mende, gizaldien azkeneraño.

Emen ere osiñ aundia zegon «*chaos magnum*». Urrun eta urbil, Igito-errikoak bezala. Gure begi onek, soiñua bertan daukala urruti zeukan, ez baitu entzuten; belarriak, margoa bertan daukala, urruti zeukan, ez baitu ikusten. Berebat, batzuk ikusten ez duguna besteek ikus zezakenate. Aldare inguruan millaka dauden aingeru oiek ere zeruan zeuden, ez erbestean; guri zirika ari zaizkigun deabruak ere ipernuan zeudien. San Agustiñek, oker ez ba'nago, bi ipernu ipiñi zetunan; bata mundu onen azkenerañokoa, bestea erabatekoa, ordutik aurrerakoa. Edo bi tokitan, behintzat oraingoa.

D.— Gero toki bereizia izango ba-dute ere, edota, zenbait aingeru on eta gaizto inguran dauzkagula, beste gañerako aingeruek beti egongo diran tokian ote daude oraintxetik?

N.— Yoan eta billa! Orratz baten muturrean bai omen zegoken zero osoa, gorputzak ezik. Orain bi gorputz ba daudela ba-zekiñagu beintzat, eta aiek egiten yunate zeruaren erditokia, eta aien inguru zeudeken aingeruki diranak. Yesukristo, zeruko dirdai berarekin ez ba da ere, emen aldareetan dagola bazekiñagu. Eta zerta-

ko asmatu millaka ta millaka ageri diran izar oiek baño gorago? Garaitu dutenen zeru-Eliza orrek non ote yun, neska burrukan ari geran lur-Eliza, onekin aiña yoan-etorri? Oinbeste Elizetan Yesu-kristo Berbera, eta oinbeste anima gaixo, aien kemena artu-zai gaudela! Garbitegi deritzaionaren Eliza ere zergatik ain urrun, edo ez urbil, beintzat, guregandik? Orobat ipernua. Aingeruki edo gogaki dana, ez omen yun tokiak artzen; berak menderatzen omen yun tokia. Nola? or zegon itzea!

D.— Pilosopi zailla duk ori!

N.— Aingeruak toki-mugarik ez ba du ere, izan muga ba yun, San Tomas'ek diona (Q. L. Art. 1.)

D.— Eskola bearori buruan sartzeko.

N.— Beraz, guregan daukagun Aingeru ona naiz gaiztoa, etziteken zabaldu, muga gabe urruti legoken zeruraño, edo ipernuraño. Bertan dauzkagula ere naiko urruti guretzat ikusten ez ditugulako; aski bertan, berriz, batez ere gaiztoa, gu zirikatzeke. Bai ona ere gu laguntzeko. Sikestea piztu bear genuken, Aingeruen, deabruen, munduaren ikuskari gerala oarturik. Dea-

bru oien marrua entzun bear genuken, eta Aingeru oien mintzo ixilla, begiz ez ikusi arren.

### III

## ESPURU'KO IKUSKARIA

D.— Asia al duk lan ori?

N.— Aspaldi. Etzekiñat xuxen zer urtetan, baña beste lan aundia egiten ari nintzala. Nola-nai ere, etxetik aldegiterrako egin nenunan sail dederra. Bai al dakin nola burura zitzaidan?

D.— Ikus.

N.— Udaleneko goiz batez argia zabal zegonan ni yekitzerako. Apaiz yauna erritik iru eguneko aldegiña baitzan, oiak atsegiñago artu nindunan biaramon artan. Loaz ederki berdindurik yeki natxin, bada. Leioa zabaltzearekin bat batean sartu zitzaidanan argia begietara, barrunbera, ezurretara, muñetara. Argia! Ez nengonan ain berandu yekitzen oiturik. Argia! Ain legun barrena alaitzen dun sorkaririk bai al da? Eguzki betea Aralar'ko Malloan. Agiñegi'n ere bai. Gure erria Eguzki Amandreak oraintxe eraiki yun lotatik. Gure balkoitik Narbaitzu'ko gañeraño, laño zuria zegon, itxaso zabal antzera.

D.— Narbaitzu esan duk? Amaika bider ikusi nuian, eta oraintxe ere begien aurrean zeukeat.

N.— Laño legor edo erreka-laño esaten dioten ortan igerika asi naia eman zidanen, leiotik gain artaraño. Errian zabaldirik ez dugula enparantza baizik? Orra or ia goizero, yantzi-erantziko zelaia. Maldar, arkaitz, sasi, beian erreka. Bolibi'ko gainzelaiaren milletatik bat ba'lu, bai erri xoragarria! Goiz artan ala zegonan, bada. Ez nedukanen begiak igurtzi bear aundirik, osotara esnatzeko. Gosaria gertu: Talo esneak eztiarekin. Asi naun muñoa gora, ta asi orduko an naun nere Tabor'ean, ots, Espuru'ko gañean.

D.— Gogoan zeukeat Espuru ere, erriaren garai-aldean. Ez diat geiago ikusiko. Utzi nin betiko.

N.— Ni ondo ezagutzen natxon, egunero ikusiz. Eguna artan, zenbait aldiz bezala, etzeukengan magalean ardirik, buruz gora etzanik, muturra galdorrera zutela. Goizago asi zitxinan argi billa, ta lañotik aterarik, gorago aldegiñak izaki. Oraindio Espuru'ri lurriñ-apurra zerionan. Ba nenbillenan arat onat, eguzkiak intza yan arte, buruari betiko gogoetak eragiñez. Alako batean,

eseri natxin añar txuku batean, ipurpean zakurik gabe, egoa aldera begira. Orexaran errekazuloa laño zegonan, yakiña, ta aruzko aldean basoa erdi-argi gure gaztañadi aldean. Laño argal aren tartetik an emenka keadar zenbait agertzen, ots, txondarrak sutan, eta ke-mordo bat bizkorragoa, Basajaun'en pipa piztu-berria bailitzan. Txondarrak etzitxinan ageri. Eguzkiak zearka yotzen baitzitun, ke zuri zeritenan. Atsaldean, eguzkia etziñaldera iraultzean, urdin urdin biurtuko.

Otsabio-gañean odeimordo lodixagoa ageri zinan, gorrixta, egagurdi antzera. Elias gizartetik eramane zuna zekarrenan gogora. Mendi galdorrak garbi zeudenan. Erri ta baserri orduntxe esnatzen. Espuru gañetik zer ageri din? Beizama'ko baserri bat, Albiztur, Ernio, Urkizu, Errialde, Andazarrate, Izazkun, Leaburu'ko dorrea, Gaztelumendi, Berastegi-muga. Napar aldean Zotzune, Musairu, Unai-garate, Gorriti'ko Elostia, Urkieta, Aralar, Azkarate. Gipuzkoan sarturik, Agiñegi, Otsabio'k ingurua ixten dula. Onen azpialdean Lizartza'ko zenbait baserri, goietakoak argi, zokoetakoak ezin esnatuz.



## ARGI TA ILLUN

Zabaldu zetunat ene paperak lanari ekiteko asmoan. Illuna ta argia gai. Asmoetan nintxinan aspaldi nere lanik bikañena gaintzea. Bi sail neuzkenan egiñik: Argi ta Illun; bestera, eza ta baia; diranak oro bi oietara saildu baititezke.

Bet-betan, alako eziñegin bat, ezaldi bat, askotan bezala. Ni bai nintzala illuna ta eza! Illunaldi bat gertatu zitzaidanan buruan eta illaldi bat biotzean. Iñoiz bañon ezerezago neukenan nere burua. Zerbait aundiren ametsak bein edo bein arrotu ba'nindun, ametsondo astun arek bai ongi zapaldu ere! Len ere alakoetan gertatua ni, yasa igaro arte utzi nai nenunan eginkizun ua. Zeru-muga gero ta beltzago ageri zinan. Aurreko lan aundian, amabostaldi osoa egin nenunan olako ekaizpean. Letari idaztera Aralar'a yoan nintxinan. Berreun bat bertso Artxueta'n egiñik, buruak uko egin zidanan. Etxera etorri, ta txango ara, txango onara, geroenean ahapaldi osoa etorri zitzaidanan burura, ta aren urrena aril

osoa, batere korapillorik gabe. Oraingo goibelaldi au noiz artekoa ote?

Zeri eldurik ez; obeki esan, bai, Yainkoa inguruan, bakartasunean, barrenean; bañan ari eltzeko ere ez nintxinan gai. Mallorantza begira Aralar'ko Aingeru aundiari otoitz egin nai, ta kemenik ez. Ezpañak pikez yosiak bezala. Begiak yasotzeko ere indarrik ez. Guzi au ezari emana nengonan. Ezaguera nunetik izan ditudan baka-rraldi, naigabe, illaldi, erorialdi, etsialdi... guziak iraultzen asi zitzaidanan idurimena. Luzaroko ekaitza, esan nezakenan. Bein baño geiagotan etzanak arindu oi zetun olako larrialdiak; naigabe aundiak loa baitakar berekin. Begiak itxirik yarri naun, bada, eskuak belaunetan antxuma, okotza kolkoan, loaren mendeko gertatu naiez, bañan ez nindunan artzen.

Sostean, mintzo otsa. Gizon umotu bat artzai yantzian. Ez-ezaguna. Oles egin neri, ari al nintzan, — Egon bai, nik esan. Lanerako asmoan, ordea, paper oiekin? — Bai asmo ta ez gogo. Zu nora? — Onaraño, gaur beñipein. — Nondik etorria? — Arako mendi artatik. Baitakizu Unai-Garatez eskuñetara Urkietapean dagon aitzulo

ua: an egin dut lo, intzetan lo egiteko ez baitzego-  
gon atsegin. — Nor zaitugu, arren? — Ez dut erri  
yakiñik, etxe yakiñik; ola nabil aspaldiko urtee-  
tan munduz mundu, ta ibilliko ere. — Nor zaitu-  
gu, bada? — Muño ontara zenetozela, burura  
ekarri nauzu. — Ez al da? — Mendi gain artan  
odeia ikusi baituzu egagurdi antzera. Elias zaitu-  
gu, beraz? Ba nuke zure bearra, kemen apur bat  
emango ba zenida Eliseo'ri bezala.

Eli. Beltzagoak ikusteko zaude, enetxoa,  
gaurko au baño. Ni ere bai, munduaren azken-  
aldera. Elizak eskatzen du. Ezazu biotz!

Eli. Zer ipiñi duzu paper ortan?

N.— Argi ta illun. Ba-duzu, naski, bi gauza  
oien berri, oinbeste egun argitzen eta illuntzen  
ikusi baitituzu ta ikusiko. Ta animagan ere argial-  
di ta illunaldi naiko.

Eli. Gorriak ikusteko nago azken-egunetan,  
gizonen Argi dan aren alde yokatuz.

N.— Lege Zarrean bai al zenuten Yainko-  
Semearen berri?

Eli. Zuek orain bezain garbia ez, bañan aski  
zearo mintzatu ziran Iragarleak. Guraso ta Ira-  
garle ta anima zintzo, Etortzekoaren ikusmin

aundiz geunden. Ain zuzen, an ninduzun Yaunaren eriotz-atsaldean, Golgotako illunaldia ikusi ezkeron, Abraham'en egongu artara eragin bainidun Yainkoak Tabor mendira bezala. An ikusiko zenun zokoen argitasuna, gaur goizean ez-bezalakoa. Moise, Abraham, Isaak, Yakob, Isaias, Dabid... ordurarte illun baitzeuden edo itzalpean beintzat, Etortzekoaren itxaropideak argi-xinta bat egiten ziela. Bet-betan, eguzki eder biurtu ziran, eta Yauna Bera Tabor'en bañon argitsua-go. Askoz ere. Guzien ikus-naieko Yauna, oro maitagarri, oinbeste mendez zeruari goizeko intza bezala eskatu ziotena, an ikusi zuten, gorpuz, anima ta yainkotasun. Zer esan ote zezaken Petiri'k orain? «Egin detzagun emen iru txabola; emen ondo gaude». Etzekin zer ari zan gizagajoak. Neri parre eragin zidan. Lege Zarreko guraso aiek ba-zuten ordurako, gizon egin zalazko berri. San Yosepe'ren Yan Bataiariaren eta Simeon Xarraren bidez; bañan begiz ikusi zutenenan, an ziran pozak eta argitasunak! Simeon «Nunc dimittis» kantari asi zan, eta Dabid «in domun Dominin ibimus».

N.— Eta Yaunaren eriotza?

Eli. Atsalde beltza! Itzalirik nengon iñork ikusten ez nindula, orain emen nere lagun au bezala. Miñ eman zidan ixeka itsusi arek, Eli, Eli entzun zutenean: «betorkio Elias, yaregin dezan».

N.— Eta zer geiago?

Eli. Adierazi ez diteken gauza da . (Au esatean kupitu egin zan gizagajoa).

N.— Laguna zer aldetan daukazu begiak zorroztu dezazkiodan? (Ordurarte arontz-onontza erabili nitun; bañan ezkuñera keñu egin zunean, zuzen begiratu nun, illunbetan adiskideari begiratzen zaionez). Egun on, zuri ere, esan nion, eta mintzo bat atera zan ni begira nengonetik: «Gogorrak ikusteko zaude urte asko gabe. Ezazu biotz!» Au esatean biak itzali zitzaizkidan, Elias'en gorputza ta Enok'en mintzoa.

Baña ni kementsu gelditu nintxinan nere paperekin. Kemen eman zidatenen. Zer ikusteko ote nago? Baña, datorrena betor, ez dezadan ukatu lengo biderik. Gogorretan sartuko naunak, ateratzeko indarra ere emango zidan, iñolaz ere.

## EZA TA BAIA

N.— Ainbeste gauza galdegin nai nitionan Elias'i, baña musu-uts gelditu nintxinan.

D.— Zer galdegingo ioan bada?

N.— Elizarengaz zerbait. Nik ola neukenan asirik: «Prima omnium creaturarum», ots, sorkari guzietan lena dala Eliza. Gero berriz, iru tokitan banatua dagola: zeruan, lurrean, Garbitegian, irurak Yesukristoren argiak argitzen ditula, Bera baitugu munduaren argi, gizonen argi. Eliz ortan dagon anima bakoitza nola argitzen dun ere bai, berezkiro.

D.— Ontaz pozik entzungo yuat esaten dukana.

N.— Geroago. Gañera, Eliz ortan dagon anima bakoitza, bataioaren bidez Eizari izenik eman ez ba dio ere, gogoz Eliz ortako dana, Berak argitzen dula. Are geiago: bataiatu gabe il diran aur aiek ere argitasuna yunate berenezkoa, ta guk orain bañon obeki ezagutzen yunate Yainkoa. Zertako oiek illunpean ezarri, ipernurik ariñenean ere, Dante'k bezala, ta ez argitan

beñipein. Txori ta egazti guzi bañon areago baitira.

D.— Gure anaia linbokoa ta doatsu dirakela al derizkiok?

N.— Ez gu zeruan bezain doatsu, baña berekiko pekaturik egin ez dutenak, ipernutik baño zerutik urbillago ipintzea arrazoizko ziduridan.

D.— Beraz gure anai gaxoa re aski doatsu izango?

N.— Geroago ortaz ere. Agertu zitzaidanan ua ere Espuru'n, eta esan zidana, bere tokian adieraziko. Lenbizi ipernua arrotu nai ñuken.

Ezaren eta baiarengaz asi natxin. Ortik egingo diñat bide gaitzera, ta ortik ipernura.

Eza ta baia, illunaren eta argiaren pareko ditxin. Illuna zer dan esan bearrik etzegon, argirik eza baita. Beraz, ezer ez.

D.— Ez adila sartu pilosopietan.

N.— Albait ez, aurra. Argirik eza ezer ez dala bai al ago?

D.— Bai.

N.— Asieratik eta etorbururik bai al dezake?

D.— Ez, naski.

N.— Bai al dakin Manes edo Manikeu?

D.— Iñoz entzuna yuat izen ori.

N.— Ua ere ni bezala asi zinan, argia ta illuna, ona ta gaitza aztertu naiez, Yondoni Yoanes'en Ebangelio'tik. Illuna ta argia bi gauza zirala, obeki esan bi zergauza aglegia; ta guk ezgauza dala ta uste yunagu.

D.— Yakiña.

N.— Argi ta on danak iturburu Yainkoa dun bezala, illun eta gaitz danak iturburu deabrua zula asmatu zunan. Beraz, onaren eta gaitzaren iturburu, bi ipiñi zetunan: onaren Yainkoa, ta gaitzaren Yainkoa. Eza zerbait dala iduri al zain?

D.— Ez; ezer eza, alegia.

N.— Ederki esan yun ezer-eza. Eza beti zerbaiten eza baita. Eza ba diñagu Euskalerrian gizon egiña, ipuietan, bañan ez natxin ortaz mintzo. Eza bera ezin asmatu zezakenagu iñola ere, ik esan dunanez; ondasunik eza, osasunik eza, ta abar. Gabea ere orobat, zerbaiten gabea. Itsutu danak, begietako argiaren gabea yun, zerbait izanaren gabea. Izana izen txarra! Utsa ere nonbaitor. Beterekin yun ikuskizun.

Bai edo ez dionak, dan ala ez dan zion. Beraz bai, ez, itz soil auek ez yunate baliorik; da esa-



teak ematen zien beren balioa: zillarra da, urrea da, iruria da, ez da ikatza; au ez da ori. Ortaz ezizana baño lenago, naski, zer-izana.

Ala ere ba yunagu pillosopu bitxia: lenbizi ezaren berri omen yunagu, ta ezaren bidez baiarena.

D.— Nola diteke ori?

N.— Yoan eta billa! Beraren itzekin esango yunat alde aldera: «Gizonak maiz izan oi ditu zenbait ezaldi, goibelaldi, muziñaldi, naigabe...Olako ezaldi batean artzen du ezaren ezaguera, ta ortatik gero baiarena.

D.— Bai bitxi dala! Neronek ere igarri zioat.

N.— Zer nai dun bada? Heidegger yun izena. Bai ozena!

Ezaldi oietan ezagutu yunat, bai nere ezer-eza edo ezer gutxia; bañan aldi oietara baño len ba nenunan baiaren berri. Bularreko aur bati, len lenik baia agertzen zaion, dan gauza. Koxkortzen astearekin, guzia bere nai yun: dana bere dula uste. Ez dan'ik eta ez ditekenik etxun uste, bera-ri bai iduri ba'zaio. Urrena, bera ere norbait dala, usteko yun «Ni, nik nai dut; eman neri.»

Diranak, bai, zerbait izan arren. beren muga ba yunate, Yainkoak ezik. Yainkoa bakarra din ez-izanik gabeko zer-dana, izanik dana, izanez biribilla, ez-izanik naste ez duna. Yainko ez danak, zer-danarekin ez-dana naste yun. Gauza askotan izatekoa din: onago izatekoa, yakintsuago izatekoa, orain ez dan zerbait izatekoa. Pozik yardun nezaken pilosopi ontan, bañan iretzat nekagarri uken. Itza bestera.

## **GAITZA**

N.— Ezak etxun iturbururik Yainkoagan, ezta gogorakizunik guregan. Gaitzak bai ordea nola-bait. eta batez ere gaiztotasunak, gaiztoek ezetz nai ba'lukete ere.

Gaitza zer dan? Osasunik eza lenbizi, ta ontasunik eza gero. Ederki zetorren au, Yesukristo baitugu animako osasuna: salus, salvator.

Gaitza illunarekin alderatzen yunagu: «Ardi orrek, bei orrek, begia illun dauka». Eta Naparroan esana: «Abbé de Leun, diruek galdu ta begiek ulun».

D.— Orixe esan polita!

Gaiztakeriaren zorigaitza argirik eza; ontasunaren zoriona, argia. «Gaiztoaren argia (zoriona) itzaliko da» (Job, XVIII,5). «Gaiztakeria ari dunak, argia gorroto du». (Ioan, III, 20). Gaiztoa «illunpean dabilla, ta iñork ikusiko ez dulakoan, aurpegia estaltzen du». (Iob. XXIV, 15). Aurrek oi duten bezala. Gorderik daudela iduri zaien, eta izu-ikaraz beterik zeuden aitzullo batean bezala. An barrenean sortzen dan soñuak, larritu egiten zetun. Agertzen zaizkien iratxo its aiek, izua sarrerazten zieten. Gaiztakeriak berekin baitu gibel-bildurra, Salomon'ek diona.

D.— Zer da gibel-bildurra?

N.— Itz egokia. Atzetik zer etorriko bildur dirala. San Paul'ek Epesokoeri: «len illunpe ziñaten, orain berriz, argitasun».(Eph, V, 8). Erromakoeri, berriz, utzi detzatela illunpelanak eta yantzi ditezela argiz, ots, Yesukristo gure Yaunaz. (XIII, 13, 14). Yondoni Petiri'k: Yaunak «illunpetik argi arrigarrira ekarri gaitula» (I Pet. II, 9). Dabid'ek: «zintzoeri illunbetan argia sortu zaiela. (CXI, 4). Isaiasek: erotzaren itzalpean zeudeneri argia agertu zaiela. ( Is, XI, 1).

Pekatua bai eza ta illuna ta gaitza! Ua sendatzeko Yainkoarn Semeak eriotza yasan bear izan baitzun. Gaitz ortan il ezkerro, betiko gaitz biur-tzen din. Or naiko illuna, naiko eza, ta okerrago dana, naiko gaitza. Pekatua zer dan ezagutzeko, ezaupiderik oberena Bere eriotza eman zigunan. Gauza bai illuna, illunaz yardun nai ba'dugu!

Illuna ez dala ezer; eza ezin dugula asmatu; gure okerkeri au beintzat etziteken asmatu. Zenbaitek ezin asmatu omen yunate ipernuko oñazea betiko nola diteken. Yainkoaren eriotza bai dala ezin-asmatuzkoa! Beraz, gaiztakeria ere bai. Ori gaitza!

## IV IPERNUA

N.— Illunbe zeritzaion, batez ere, ipernuari. «Lurralde illuna, eriotzaren illunez betea, zori txarreko lurraldea, erio-itzala ta naspilla ta betiko latz-ikara berekin baitu». (Iob, X, 21, 22). «Ez ditezela erori illunbe artara» (Zintzo ildakoen Meza'n). Apokalipsin Babiloniarengaz esaten dana egoki zetorkion ipernuari. «Argiak ez au argituko aurrera» (XVIII, 23). Yerusalen zeru bezala, Babiloni ipernu iduritara yunate.

Ipernua zer dan, Salomon'ek eta Yob'ek bezain ongi, nork adierazi lezaken? — Nik ez, beintzat; ez Dante'k ere. Onek, ipernuko ta zeruko berri bere gisa ematen, idurimena agortuazi zula esan liteken, eta iduri-gaiak ere bai. Batez ere alderakizunetan nor izan din ua aiña antzesu? Itzala ta argia askotan ateratzen zetunan adibidetako. Nik ere maite zetunat, baña beste alde batera artu bear yunat ipernu ori. Etxunat asmaketa yardun bearrik, neronek ikusi dutana adierazten.

D.— Ipernua ikusi al duk bada?

N.— Bizi bizia gure matxinada ortan. Andik aldegiña natxin Prantzira, ta orain onara. Arrazoi zunaten Elias'ek eta Enok'ek, gogorragoak ikusteko nengola.

## **MATXINADA**

D.— Yakin nai ñukek an zer gertatu dan, ainbeste gauza entzuten baita.

N.— Ara, neska, izugarria: ekaitzarekin alde ratzen zetunate olako biurrialdiak, eta ua bai ekaitza! Nik ikusi dutan itsusia bañon itsusia-go. Bat zeukenat gogoan ikaragarria gure etxe-ko balkoitik. Agiz Ernio'tik agertzen diranak, Leaburu'ko Xaxtin muñoraño zuzen zetozin. Ia beti odeia Altzo mendik naiz Gaztelu mendik erakarri oi yunate berengana, ta gu lasaiago gelditzen gatxin, batez ere arri-erauntsia baldin ba'da.

D.— Aspaldi ez omen yuk Orixe'n arririk egin.

N.— Kalte egitekorik ez. Len lenago gertatzen zitxinan; bañan apaizak odeiari araoak esaten ditionetik etxunate ezagutu alako alakorik. Erriko pesta egunean asi ta Iraillaren 14'garrenera

(Gurutzetik Gurutzera) apaizak etxun egunik utsegiten.

D.— Zer ematen diote ordañez?

N.— Etxe bakoitzak lakari bana babarrun.

Niona: bat ikusi nenunan ikaragarria Erriotik ilkitzen. Berela zabaldu zinan Beizama aldera ta Aya aldera; bañan aizeak bete betean zekarrenan Napar aldera. Auts kolore antza zunan odei bildurgarri arek, ez oso beltza. Yesus amenean iritxi zinan gurera; baña lenengo xortak euri zitxinan, eta arri-bildurrik ez. Ala ere zenbait ale yalki zetunan, baña kalte egitekorik ez. Tolos-errian, Beterri'n, Goierri'n, zoko guzietan arto ta bada ta gari txeatu zetunan.

D.— Gurean ez alare.

N.— Ez; ordun ere Agiñegi'k eraman zunan Aralar aldera yasarik aundiena. Zer negarra baztarretan! Baña zer balio yun negar orrek, gero etorri zaigun matxinadarentzat!

Oraingoan odeitzarra beste aldetik etorri zinan, obeki esan, odei ta odei Napar aldetik, ipernu beltzaren parekoak.

Lenbiziko odeia Urkietan agertu zinan tontor zuri-gorri, Urkieta sorgiñ eder lerdnaren gañean.

D.— Ederra sorgiña?

N.— Gazte dala, bai; zartu ezker biurtzen dun deabru itsusi. Aur politeri xorgin esaten zie-nagu. Beraz, odei zuri-gorri ori, barrenean beltza zinan, eta emeki emeki agertu zunan barrengo ustela. Odeiaren izena GEZUR-ZURI, gezurra zuri baita, Euskalerrian esana.

Bigarren odeia Zotzune gañean kokatu zinan bel-beltza. Izena GEZUR BELTZ. Beste izenik etxun gurean latinez *calumnia* dan orrek.

Irugarren odeia Irumugarrietan, gorri beltza: izena GORROTO.

Laugarrena Artxueta aldetik, gurutze oker baten antzera. Etzinan, ez Mikel Aingeruaren ezpata Satan'en buruzki; aldez beste, deabruak berak asmatu zunan gurutze parragarri ua, erlijioaren izena ebatsiz. Onek etxun izenik, itsusia- ren itsusiz.

Bosgarren odeia atzeragotik etorri zinan, Beriain alde artatik, Estellerri ta beeragotik yau- zia: izena BIRAO.



Odei guzien atzetik eta gañetik, Satan bera, deabru guziekin eta griña-buru guziekin.

Amalau urte ditxin ekaitz ori asi zala, ta gogorrena, iru urtetan ibitu zan arren, oraindik irauten dula, iñork uste baño biziago.

D.— Nola ori?

N.— Guzia batean esateko luzetxo din, eta bakoizka asiko natxin mataza ariltzen, odeieri nagokala.

Lenbiziko odeia gezur zuria; bigarrena gezur beltza. Ikusi edo entzun dutana esango yunat, guzia ez ba da ere zerbait. Ortatik atera, guzia zer ziteken.

Gezurra, bai gezurra! Berak bialdu gindunan Zuri Buruxkilak gorriekin, eta askotan berak aitortua. Zuri esango zienat, paltso esatea beza-la baita. Lenbiziko amabost egunetan mintza-errañu ta periodiku ago batez ari izan zitxinan: «Eup! Alde batetik gu, españar yatorrok; bestetik Marx' kume ta Euskaditarrak. Kuku oiek! Isastu bear zetuagu betiko gure lurretik. Or zegon Diario de Navarra, nai dunak irakurri. Zer ari izan zan lenengo amabost egunetan? «Garbitu bear ditugu betiko Marx'-kume ta Euskaditar guziak.

Aiek alde batean; gu bestean. Orra muga zearo ipiñi». Muga berek ipiñi zunate eta berek oiuegin. Beraz, beraiek aitortuz, ez gindunan yogan gu gorriekin; aizatu egin gindutenan.

D.— Zergatik esan dute, bada, ainbeste bider, aien eskutik yogan ziñatela?

N.— Ba-dakin: guda asiera artan, zortzi eguneko lana uste zunaten Madril eskuratzea; bañan igaro zortzi, igaro amabost, eta bukatzeko itxurarik ez. Ordun zitxinan bildurrak. Ordun asi zitxinan esaten: zertako yogan zerate gorriekin? — Azal-uts zuriak! Muga guk ez-baña berek ipiñi zutela garbi esanik eta idatzirik utzi yunate. Au yun egia, au, ta oni muturra biurrituko dionik ez din agertuko.

D.— Apaizgurasoek ere ez al ziten orobat esan?

N.— Burua galdu zunaten aiek ere. Ta ondo-re txarra... gureztat, eta geroan, okerrago dana, erligioarentzat.

D.— Eta, Errepublika ez al zan gaiztoa?

N.— Garbi beza bere burua guk gurea beza-la. Bañan esan bear unat: ez nitxon Errepublikazale biribilere. Txorakeri batzuk egin zetunan; nai

ba dun gaiztakeri batzuk aski nabarmenak: Gurutze Santua eskoletatik kenarazi, komentu batzuk erre, ta abar. Orrek atzerrietan biziro eragin zunan aren aurka; baña Gobernu txar ari men egin bearra zegonan, katoliku izanik. Aita Santu Piamaikagarrenak agindu-berri zionan Españiari ain zuzen, «otoitz egiteko, damutzeko, botoen bidez lege tzarrak uzkaitezko; baña gudarik ez pizteko». Agindurik zegonan San Paul ezkerre Elizan. Eta ordu artan Neron zegonan agintari. Gure egunetan Aita Santu Leo XIII'garrenak gauza bera agindu zienen Prantses katolikueri, ta olaxe Aita Santu guziek, urrenez urren, itz berberekin: otoitza, damua, botoa ematea; lege onez lege tzarra kentzea.

D.— Ta zergatik esan zun Pi XII'garrenak, Urdiñen guda ori Gurutze-guda zala?

N.— Bego, bego. Erroma bere irakatsien kontra ari ote da? Gaur Aita Santuak orobat uste ote du? Ortaz geroa mintzatuko.

D.— Ta Españiko apezpikuek?

N.— 1930'garreneko Artzai-gutun batean au esan zunaten: Gobernu ari, orduko ari, men egin bearra zegola, ta ez zala zillegi guda sorreraztea.

1933'garrenean berriro sendotu zunaten irakas-  
kizun ori beste gutun batean. Etorri zinan  
1936'garrenean Matxin bat, Mungi'koa baño biu-  
rrigoa, ta guziak arekin yoan zitxinan. Bitartean  
gure erri xumea ote otean, kezketan. Ikasiago  
ziranak, ez. Zer da au, esaten zunaten, len ala ta  
orain ola irakasten digute? Elizako Agintariak  
orrela ikusirik, gure aurka, gure gaztedia ezke-  
rretara asi zinan. Bultza egin zionate Elizak alde-  
gitera.

D.— Eliza oin gaizki ote dabila, bada?

N.— Ez yunat esango. Ba ditun apaizguraso  
batzuk, auts aundiaren tartean txingi antzo; bes-  
tela, esan, zitekenan Elizarik ez zala iñon ageri:  
Itxuraz aski itzalirik egon yun; baña Satan' ek  
etxun irauliko, bere gezur guziekin. Or yunagu  
Faulhaber, Munik'eko Kardinala; esan baitzition  
Hitler'i bereak eta bi. Etzunan ukitu ere. Zer ikas-  
bidea oinbeste koldarrentzat! Or yunagu Espa-  
ñian bat bederen, Sevilla'ko Kardinal Segura;  
onek ere esan baitzition urdiñeri ta Buruxkilari,  
esan bearrekoak. Beste oiek etxunate txintako  
aundirik atera. Atzerrian Kardinal Vidal y Barra-  
quer'ek au esan zunan: «Españiko gorriek Elizak

erre dituela? Zuriek Españiko Eliza galduaziko dute». Ori yun negargarri. Gezur zuria ta gezur beltza nagusi atera zitxinan. Baña zango laburrak zetunate, ta egiak atzituko zetun. Baizik ere, kalte izugarriak egin ondoren.

D.— Egian negargarri.

N.— Goazen barrenago ipernu ontan. Ipernua itzez mugatzeko «maitasunik ez dan tokia» esan yunate. Ori orrela ba'da, gorroto-lekua naski.

D.— Yakiña.

N.— Odei asarrea benetan. An zebillanan aspaldi Irumugarrietaren tontor. Esaten nionan gure Uxabia'ri: «etorri bear yun gudaren bat beltza». Geroz askotan esan omen yun: «esaten zuian gure mutillak, beltza etorri bear zula.»

D.— Nola ezagutu?

N.— Nola ez ezagutu? Zuri oiek ongi gerra-naiean zeudenan botoetan galtzen zutelako. Zer balio zunan Erroma'ren esanak? Aurre aurreko elezioak zitxinan. Ordun ere gezurra aurretik. Donostiko karriketan erruz itsatsi zunaten paper aundietan bi buruko erensugea: «La alianza marxo-separatista». Orduko egunkariak ikusi besterik etzegon gu bakarrik yoan giñala yabe-

tzeko. Etxunaten elkartasunik nai ere gurekin. Antxe zegon paper aietan idatzirik, nai ditunak irakurri. Azken azkenean, bai, nai zunaten zuri oiek, galtzen zutela ikustearekin.

D.— Zergatik etziñaten elkartu?

N.— Etxinan arrazoizko geienak gutxiengana makurtzea. Guk atera genitunan ogeitatik ama-lua Aldun. Bi gelditu zitxinan peto, ots koloka, lenbiziko birundan. Aiek ere gure, zuri oiek egiaz katoliku izan ba'lira.

D.— Nola ori?

N.— Lenengoan peto egin zuten gorri oiek, bigarren birundan gurekin zunaten auzi; zuririk ez baitziteken atera iñola ere. Ordun, Apezpikua etxean ez zala, Ordezko egiten zun Jaime Verastegui jaunak, aski karlista, bañan ontan gizon zuzena oarkizun bat egin zienan katolikoeri, botoa guri eman zezaitutela, oben larriaren azpian, ezperen gorri oiek nausitu zitezkeela. Zer gertatu? Edo iñori ez eman, edo gorrieri. Banaka batzuk eman zunaten, bai, esaterako, gure aide dan Aranzabe Ormaetxear (Araxes) jaunak. Au zala bide ez nindutenan ni pusilatu. Ondo zekiña-te Tolosa'n E. jaun aundi batek, bigarren birun-

dan, txartela agerian eraman eta sartu zula eltzera au esanez: «Yainkoarentzat balio izan ez dun ezkerro, balio beza deabruarentzat».

D.— Yesus!

N.— Beste I. batek, amazazpi boto irabazi zetunan gorrientzat. Leaburu'ra yoan zinan txarte-zabaltzera, gorrien alde, yakiña, ta bere atzetik eraman zetunan nolabaiteko katoliku oiek. Lenbizi esan dutan yaun arek, eltzerako txartel bakar batzuk atera zetunan Donosti'n Apezpikua irainduz. Autobusean gentozela neronek berari entzuna; belarriak erne baikenduzkan batzuk besteentzako. Ala agertu zitxinan papertxo aietan olako Aldungaiak: «Don Mateo Mújica y Cabezotas».

D.— Arren!

N.— Bai esan ere maipuru zegon sozialista batek: «Guk ez dugu txorakeri oietan dirurik txautzen. Au ez da gureetako txartela», ta baztarrera bota, galbaiketa egitean. Elezioak galdu zetunaten eta gudara.

D.— Gauzak itxura yuk.

N.— Noren izenean? Yainkoaren izenean: GURUTZE-GUDA. Au guzia egia din, eta egi oni

muturra biurrituko dionik etxun sortuko. Noren aurka Gurutze-guda? Katoliku giñanon aurka, katoliku indarra bi zati egiñik. Zortzi egunean garbituko gindutela-ta berek muga ipiñi zunaten, esan dutana, ta gu gorriekin sailkatu. Luza-bildurtu ziranean, ordun asi zitxinan: «zertako yoan zerate gorriekin»

N.— Bilbao'ko Euskalduna'n, botazio aurreko itzaldian, Fal Conde, karlisten Buru zanak, au esan zunan: «Unión con los separatistas, ni para lo bueno». Antxe zegon LA GACETA DEL NORTE, erre ez ba dute, beñipein. Calvo Sotelo'rena ere ezaguna din: «prefiero una España roja a una España rota». Zer katolikua! España, naiz prantzitar, naiz Euskaditar izan, Elizarentzat auzi txikiak ditxin oiek. «Queste sonno piccole cose» esan zionan Leo XIII'garrenak Comillas'ko Markesari, Pilipinetan ba zirala apaiz abertzale batzuk, eta, zentzatzeta komeni zala esan zionean. Euskaldunari gorroto aundiago ziotenen gorriari baño. Or ez zinan besterik.

D.— Zuetako yende asko pusilatu al zuten?



N.— Markiñabat bai, Aingerua bezalakoak. Zer gaztedi ederra, ederki prestaturik, uzten zientean. Etsaientzako barkamen eske.

D.— Ez al zieten uzten ori, ere?

N.— Askori ez. Naparroan gertatua: gorri omen zan batek apaiza eskatu, ta txapelgorri ago-zikin batek: «Apaiza diok? Me c. e. D. oa ipernura berela, ta tiroz kali.

D.— Arren!

N.— Naparroan gertatua au ere. Bi gorri, apaizaren bidez Yainkoarekin onezkoak egiñak, Gurutze Santua eskatu muñ emateko, ta mojak, «zuentzat ez dago Gurutze Santua eskatu muñ emateko, ta mojak, «zuentzat ez dago Gurutze Santurik gorriontzat».

D.— Gure Yaungoikoa! Ori ez duk siñestatzekoa.

N.— Ez siñestagarri, baña bai egi.

## **NAPARROA LOTSAGARRIENA**

N.— Lotsagarrienik Naparroa gelditu yun biurrialdi ortan.

D.— Bai, zera! Naparroa, katolikua, Yainkoaren aldekoa?

N.— Aspalditxo, bai; gaur ez. Nik zekiñat nola dagon, irauli-berria bainum goienik barren guda aurre-aurrean. Joxe Mari Arana zanarekin yoan nintxinan Caparroso'ra aideak ikustera.

D.— An ere aideak?

N.— An, Mendabian eta Villafranca eta Villafranca Ebro'koan, ba ditxin Ormaetxearrak.

D.— Nondik nora?

N.— Bein karta bat yaso nenunan Caparroso'tik, apaizak esan ziela, olako ta olako Ormaetxea bat ba-zala, liburu idazlea. Apaiz orrek, euskeraz tutik etzekila, bakartasun artan, ez baitu lan aundirik Elizan, oinbeste milla lagun ditun errian, Santa Cruz apaiza irakurri zunan, eta irakurriz ikasi, oso poliki alare. Euskalerrira yoan gogo zunan «de entre estos infieles». Emakume bakarra ikusi gengan Joxe Marik eta nik, Meza entzuten astegunean. Apaiz onek, aide ote giñan esan ziela. Ainbeste aide baikera, ta ongi zabalduak, etzionagu elkarri kasu aundirik egiten. Galdegin zionat aitari, ta, aren anaia Manuxepe, Martzilla'ko zubia egitera yoanik, ango Perranda Insausti'

rekin ezkondu zala, ta arengandik ziralala. Aren billoba batek ba-zunan aurra bataia gabea. Moja sartzeko zegola, Errepulika etorri, ta komunista batekin ezkondu.

D.— Yesu! Olako gauzak ekarri zetuan Errepulikak.

N.— Ez, aurra, ez; orduko gaiztatua zunan Naparroa. Andre gaizto ori etxinan etorri Naparroara. Etzunaten atera Diputadu txar bat ere. Guzi guziak zuriak (ez katoliku piñak). Alfonso'-ren egunetan ere igandeko Meza utzia zunaten askok Erriberan, eta goraxego ere. Mando ta idi ta asto, lotzen zetunaten igande ta yaiegun. Biraora, berriz, aspaldiago zabaldua zinan. Emazteak ere ikusi zetunat biraoka.

D.— Zer itsuskeria!

N.— Izan ere. Naparroan irutatik bat bai ote da katoliko berorik? Erririk aundienak Erriberan baitaude. Euskalerrian ba-ditun, Saraitzu, ausaz katolikuena —Kristo esaten zionate bi lapurren erdian, eta lapur oiek Aezkoa ta Erronkari—. Urrena Ultzama, yende ona an ere. Besterantzean, Burunda ta Sakan-erria ala olakoak; Baz-

tan aski otza: Araitz orobatsu; Larraun ere ez bero bero aietakoa.

D.— Mundu guziak esan yuk emen, Naparroa erlijioaren alde atera zala gudara.

N.— Gezurra. Txango artan ikusi nenunan Martzilla'ko azukre-ola geldi. Erriberan lanik ez, diru urria ta lanik eza, ta eziñegona. Orregatik eskeñi zienan Cuba'tar ezpain-aundi arek (arek sortuazi baitzun guda Iruñako emakume Aundi katolikuekin) yanaz eta yantziaz gañera zazpi pezta emango zitiela gudara atera nai ba'zuten; eta gero, Bizkai Gipuzkoetako paurriketan ogibidea ba'zuketela, angoeri kendurik. Ori din egia. Erlijioaren alde ta biraoka.

Tolosa'n sartu ziranean, ango emazteek , bai karlistenak ere, belarriak itxi bear txapelgorrien biraorik ez entzuteko: «Basatiak, zaute ixillik; gorrienak ere etziten emen biraorik botatzen». Orobat Elgoibar'en. Moja batek esan: «Gorriak emen zeudeño, ez dugu birao bat entzun». Orra Napar txapelgorrien erligioa. Ta oberenak omen zitxinan.

D.— Gogorra duk orregatik.

N.— Bai, naski, ta gu gorri gaizto. Ni lotzera yoan ziranak ere (urdiñak) Orixe guzia lekuko aldareko Yaunari biraoka, ta ni egunero Yauna artzen.

D.— Emen etxuagu olako konturik aditu.

N.— Yakiña. Guziak oien alde.

## **LOTSAGARRIEN LOTSAGARRIENA**

N.— Zenbat milla uste ditun kali edo akabatu ditutela Naparroan?

D.— Batzuk eta besteak?

N.— Ez; gorriak etxunate animarik il. Amalau milla zionate. Milla asko dirala bai oinbeste ez ba'dira ere. Otz otzean, gerrarik gabe. Prantses apaiz bat ari zinan gure buruzki ni an nengola, ta nik au esan nionan: «Zuk ez dakizu zer gertatu dan Espaiñian ez ta onontzago ere. Or daukazu sudurren aurrean Naparroa —bera Naparroa Barrenean bizi baitzan— ta ez al dakizu oinbeste milla dirala kaliak? «C'est la guerre» esan zidan; ots, gerrako gauzak. Ez al dakizu Naparroan gerrarik izan ez dala minutu batekorik ere?

Gerra ematera kampora yoan dala bere mugetatik ara? Ez al dakizu gorriek iñortxo ere il ez dutela? Etxunan arrazoirik itzuli. Itza bestera asizunan: «baña, baña...» Ez dago baña'rik. Ez al zenidake neri barkaziorik emango aitortzean, gorriekin yoan omen naizalako ,? ta, bai. Beraz, zer ari zera gure aurka, gertatu dana yakin gabe. Besterik etzekinan gaizo arek: Españian komunistak asko zala, ta il-bearrekoak zirala. Elizaren irakaskizuna al da ori? Ez al dakizu bosteun'etatik amalau beste Aldun'ik etzutela, ta aiek ere sozialisten laguntzarekin atera zituela? Prantzian ba-zenituten irurogeita amar baño geiago. Zergatik ez dituzute kalitzen? Gero, yakiña: Euskadi'ko Gubernutxoari irri egin nai. Ori yunate oiek: euskaldunik etxunate ikusi nai ere.

## **CASTIELLA**

Tafalla'n gertatua. Castiella baten semea gorpu ekarri zunaten Guadarrama'tik . Lurra ematera zoazala apaizak azken-otoitzak esanik, zanaren aita altxa guzien artean: «Nik ez dut

otoitzik nai nere semearentzat; Tafalla'ko kartzelan daudenen buruak nai ditut nere semearenaren ordeaz.» Baita eman ere, irurogeita amabigizonenak Bi aldiz ustu zunaten Tafallako kartzela olaxe.

D.— Arren eta arren!

N.— Orduntxe Iruña'ko Apezpikuak: «Ez ixuri aurrera errugabeen odolik!» Itsuskeri orrek oso beltzaturik utzi yun Naparroa. Ez al din au ipernu beltza?

D.— Ongi ta bai!

N.— Zer gerta ote liteke an, Buruxkilak agintea uztearekin?

D.— Beraz, komeni ua gelditzea?

N.— Luzeago ta makurrago; gorrotoa metatzen ari baita biotzetan. Gauza latz oiek ez ditun aztutzen, barkatzen ba'dira ere. Ik ere obe dun emen gelditu, zer gerta ere. Apaiz ta moja ta praile, senper ikusteko zudete; bi begietaraño sartu batzerate Biurriaren alde. Erljio gaxoa!

Asi zinan Aita Beltza ere bere taldearekin paper etatik zurien alde mintzatzen. Ez ditxin Iñaziotarrak bakarrik. «Arantzazu» agerkarian, lotsagarriro eman zionaten intsentsua Matxiñ

orri, ta itsuski maxiatu zunaten euskalduna. Bai elkar-izketa nazkagarria iru euskaldunen agotan eman zutena! Iru oiek Izurrategi, Amolategi, Ondategi zitxinan asmatuak.

D.— Arantzazu'ko praileak ori?

N.— Aietxek. Beste praileak ere olatsu. Ez omen zunaten gurekin batean bizi nai. Gu etxera itzuliko ba'giña, zenbat zurikeri guretzat! Asiak ditxin loxintxaka, zer gerta ere. Izango ote lukete lotsaren izpirik Euskalerrian gelditzeko?

Bakar batzuk edo asko ba ditxin atzerrian, Biurriari belaunik makurtu etziotenak. Oiek etxunate lotsarik bear beren errira sartzeko; bañan, erne! gure etsai diranak ere oien babesean sartu naiko baitute.

Ta zer ananitasuna beren artean? Etxe batean nola bizi ote litezke salaketan ibilli diran oiek? Eta salaturik, eriotza yasateko arrixkuan utzi zitutenak. Ez da ipernua? Oietako bi etsai etxean elkartzen ba' dira zer zerua gero ere prailetegi ori!

Bat nenunan adiskide Tolosa'n, Aita Otano Claret'arra. Olaxe illarazi zunaten.



D.— Gorriak apaizak kalitzea gaizki zegok, baña zuriek eta erlijioaren ikurriña dakartenak?

N.— Emezortzi ba-ditun Euskalerrian orrela yoanak.

D.— Emen ez giñakian. Gorriena, bai.

N.— Euskaldun ziralako, zuri paltso etzirala-ko. Aski zinan ixilik egon ta besorik ez altxatu, euskaditar irizteko. Gorrieri baño gorroto aundia-goia zigutenan guri.

D.— Ementxe ere gure Andre nagusia beti euskaldunen kontra ari zian buru gogor giñala. Miñ ematen zidean, eta nagusiagoari karta egin nioan. Arrezkero pakean utzi gaitik.

N.— Mojetatik asko ta asko atera ditxin. Eziñ eramán iñola ere olako gorrotoa, ipernua. Elkar maitatuz zeru bear luketen etxe oiek, gorrotatuz ipernu biurtu ditxin. Ez al dago ondo ipernutik ateratzea?

D.— Yainkoa serbitzeko pakea bear dik, anaiautsi ta aizpautsi esaten diranean artean.

N.— Begoña'ko zurubietan beera nentorrela, yesuita batekin buru egin nenunan: «zer moduz bizi zera?» ta Munduak uzten nau, beintzat, Yainkoa serbitzen.

## ILLENTZAT ERE GORROTOA

Illentzako gorrotoa daukanak, ez al dauka barrenean ipernua?

D.— Zertzuk gertatu dira?

N.— San Cristobal'en nengonan, Iruñan. Meza emailea, pistola gerrian, Meza emateko yantzi zinan. Meza bukatu ondoan, «Un Padre nuestro por los mártires de España», asi zinan. Gorriak ez baitziran martiri, beraz, berenentzat egin zutenan otoitz. Yainkoaren alde odola emanak otoitzik etxun bear, iraiñ egiten baitzaio gañera. Bai ordea zenbait gorrik erantzun ere: «nosotros hemos aplicado por los nuestros». Ez al da lotsagarri?

D.— Ta errezatu zuten?

N.— Garbi alare. Ba zitxinan Meza laguntzen zekitenak ere. Geroz okertu, gizagaxoak. Zergatik illarazi, Yainkoagana ekarri zitezken gizonak? Eta auzirik garbitu gabe geienak.

D.— Ik ere senper ikusiko uan?

N.— Nereak etxun asko balio. Ogeita sei kilo galdu nitunan sei illabetean, baña bestela ederki egon nintxinan, lenengo zortzi egunetan ezik. Aietan bai, ipernu gorria! Erriberako koxkor aien artean sarrerazi nindutenan. Ago bakoitza ipernu, gau ta egun biraoka. Ta aldioro gaiztoz asmatuak: Yesukristo, aldareko Meza-ontzi guziak banaka, Ama Birjiña, izen guzietakoa. Zer zan ua! Etzunaten lorik ere egiten.

D.— Gaiztoak al ziran?

N.— Esan diñat, bada, onak eta emazteak ere orobatsu egiten zutela. Ez din ixilik uzteko: Birauaren kontra elizkizun bat egin zunaten Iruñan gazte katolikoek. Meza entzun eta abar, bazkaritakoan biraoka ari zitxinan, itzaldi oro biraoa baitute. «Zaute ixilik, basaziak, esan apaizak, zertako egin dugu billera au?, eta, «guk onez egiten dugu, baña gorriek gaiztoz». «Zerura yoaten ba'zerate ere, ango ikulluan ego bearko duzute». Nestor Zubeldia yaunari gertatua.

Euskaldunen artera pasatzeko baimena eskatu nenunan, eta oiartzuarrekin egon nintxinan andik ara. Ua bai zerua, ipernuan ere! Berrogei-

ta amabi gizon eramán zetunaten batean goiko kartzelara. Ta beikoan ere ba zitxinan. Bañan ez nintxinan ontaz ari: illentzat ere gorrotoa zutela.

Ikus Tolosa'n gertatu zana: txapelgorri ta Margaritak beratziurren bat asi zunaten Sakramentinoetan. Irakurketa egiten zun praileak, azkenean au esaten, Elizak agintzen denez: «zintzo ildakoen animak Yainkoaren errukiz, pakean atsedén dezatela». Debekatu ori ere, «beratziurrena gurea da; guk gureentzat egiten dugu» esanez.

D.— Beltza yuk ori!

N.— Ba yun beltzagoa. Neronek irakurri nenunan «Boletín Oficial del Obispado de Vitoria» dalakoan: «Solemnes Funerales por las almas de los Sacerdotes Fusilados por los rojos». Azkeneko au kendu ba'lu, etzunan oinbesteko obenik Apezpikuak. Gure aldeko apaiz gaizoen-tzat etxunate ezer egin, agerian, beintzat. Ez niken Gotzai aren larruan egon nai. Koldarkeriz egiña, bañan itsusia!

## GURUTZE-GUDA

N.— Gogoan al daukan Ebangelioan esana?

D.— Eta?

N.— Yainkoak egin lanak deabruari egoztea, Ispiritu Santuaren kontra dala pekatu, ta ez dite-kela barkatu mundu ontan, ez bestean. Eta dea-bruak egin lana Yainkoari egoztea zer pekatu ote da? Orobatsu, itsusiago ez ba'da. Satanas guru-tzearekin!

Gezurrarekin asi zitxinan eta Yainkoa Egia bera din. Oiek, besterik kaliz asi zitxinan, eta Yainkoa, besterengatik il. Eta abar.

Gurutze-guda. Nolakoa! Gogoan al dun gure lengusu Pantxika, Begiristainekin ezkondua?

D.— Ago pixka bat...

N.— Berdin zion. Aren seme bat sutatik etorri itxedotera, ta gure sukaldean Uxabia'k galdegin zionen: «zer irabazten duzute guda ortan?» Zer? Gutxi al derizkiozu? Bosgarrena ta seigarrena ta zazpigarrena libre atera ditugu, beintzat. Eta zortzigarrena, beratzigarrena ta amargarrena? Oiek ere bai. Ta bigarrena? Ori naparrak eta ita-lianoak; guk eta moroak ez. Eta lenengoa, iruga-

rrena ta laugarrena? Oiek agindu piñegiak dira soldadu batentzako».

Españian bi uririk lizunenak bai al dakin zeintzuk esaten zituten? Iruña ta Salamanka, Buruxkila zegoanekoa. Naparroa gudak gaiztoago egin yun Errepuliak baño. Lotsagarri uke oinbeste zikinkeri aipatzea ere. Ori, Gurutzea paparrean zeramatenak. Gero, lapurreta, merkatu beltza, ta gañerakoak. Geroak yakingo zetun banaka, an gertatzen ari diranak, oraindik ere.

D.— Zer bada?

N.— Kartzelak beterik daudela; biriketako ta beste gaitz asko, zar eta berri, sortu dirala; gose gogorra dagola, (ni Caparroso'n izan nintzanean baño gogorragoa). Ortarako atera zitxinan mendira. Ta Gurutze antzean oinbeste eriotz eta zikinkeri egiteko.

Apaizguraso oiek ori nai ote zuten? Orain ditxin miñak. Orain etxunate ontzat ematen Buruxkilaren yarduera. Lenaldi artan, nai zunan Aita Santuak Elizaren eta Españiaren arteko artu-emana; Buruxkilak ez; orain onek nai yun; bañan Erroma'k ez. Berandutxo konturatu ditxin. Apezpiku bat edo beste ixilka asi zaizkion yarki-

tzen; bañan oraindio geiago ditxin zuri-neri'ka ari zaizkionak.

Erljio gaixoa! Nekez altxatuko din gurean. Alakoak ikusi zetunagu!

Oraingoan gure erria oso galtzeko zorian zegon, erri bezala ta kristau bezala. Gelditu dan fede-ondarrak altxaraziko al yun noizbait ere. Orain ere griñarik aundiena gorriengana ez-baña gure erriarengana zeukenate. Gernika txeatu zuten eran txeatu nai yunate Euskalerra osoa.

D.— Ez al zuten gorriek erre?

N.— Ala zabaldu zunaten zuriek, eta oraindik esan berria yun Buruxkilak itzaldi batean; baña berek ere ba-zekiñate gezurretan ari dirala. Kalaguri'ko apezpiku Fidel Garcia gertatu Paris'en praile batzuen etxean. Gernika nortzuk erre zuten galdegin, eta. «badakigu nork erre zun; baña geron artean elkarri so egiten diogu par-murritz batekin». Zer biotza!

D.— Egia?

N.— An zegon praile euskaldun batek entzuna Ta kontatu zulako, prailetegitik aizatu. Ta Silos'ko praile-etxean gertatu zana: Praile-nagusiak berri eman Gernika kixkali zutela, ta prai-

leak esku-zartaka ospatu. An arkitzen zan praile batek esana, Prantzira pasa zanean. Eunka ta berreunka esateko ba' nituken, bañan obe genuken ipernu ontatik atera.

D.— Ipernutik atera al diteke, bada?

N.— Ez, neska; bañan idurikizun artu dugun ipernu ontatik ere nekez aterako gatxin.

D.— Ala derizkiok?

N.— Bai, zoritxarrez. San Cristobal'go itzale-tik atera nintzanean, atadiko gorrotoa ikusirik, au gogora nenunan: «Qui non diligit, manet in morte». Laguna maite ez duna, illik dagola. Beraz, zenbat eta zenbat illotz, zuti zebiltzane-tan! Ikaratzeko zinan, bai. Irabazten zebiltzane-tan! Ikaratzeko zinan, bai. Irabazten ari ziranak, betiko nagusi zirala uste, txapel-gorriek batez ere. Oso siñesturik zeudenan iñork etzila kontu-rik artuko. Dabid'ena gogora nenunan: «non est qui requirat». Galtzen ari ziranak, aldiz, noizpait etorriko zala aien txanda ere. Asko ta asko kris-tau zintzo, ixil, elkaturik zeudenan aurren-berri artan. Aiek, bai, bizi zitxinan. Gero, urrituz ari ditxin.

D.— Zergatik ori?



N.— Berandutzen baitu aien txandak. Oraindik ere ba ditxin amar, ogei, berrogei, Abraham'en zintzo aiek baño geiago; aiengatik barkatuko al zaion gure erriari.

D.— Zuek zeren obena duzute i bezalakoak?

N.— Baña zuri oiek, oinbeste eriotz egin diti-guten zuri oiek... gure erritar ditxin, Naparroa ukatu nai ez ba'dugu. Jauntxoaz aspertzen asi ditun, edo ongi asperturik zeuden; bañan obenik egin zutenik etzaien iduritzen. Gero baitaratuko ditxin, Dabid'en antzera. Ari Natan bezala, aueri ezuztekoa etorri dakidienean, «zer egin dugu?» esango yunate. Banaka banaka ba-ditxin ala ere, baitaratu diranak. Ordiziako ardandegi batean arro arro txapelgorri batek: «xixpa onekin oinbeste kali ditut», eta etxekoandreak: «Yesus! Ez daukazu zaku txikia konpesatzeko!» Bertan kon-turatu ta naigabea egin zitzaionan. Nere adizki-de Larreko medikuari gizon bat yoan Iruña'n oso gaizki zegola. Ongi aztertu Irigarai jaunak, eta, zuk ez daukazu ezertxo. Berriz yoan biaramo-nean. «oso gaizki nago». Berriz miatu ondo ta ez daukazu ezertxo. Bai Don Permin, nik ez-egiteko

asko egin ditut, eta andik atera zanean, illik erori.

Bitartean itsu zeuden geienak.

D.— Eta gureak?

N.— Gureak bi aldetara: batzuk, ordañak eman bear zaizkiela gure txanda datorrenean; besteak, barkatu bear zaiela. Ez ditxin geiegi auetakoak. Guri kendutako ondasunak gureganatzea arrazoizko din; bañan ortik aurrera, begira neurria non dagon. Oinbeste eriotz ezin apendu, aiek bezala izan nai ez ba'dugu. Eta, batzuk batzuk, erantzunbearrik geiena duten nagusiak, nola bizirik utzi? Erria bera asaldatuko litzakela. Ola ari ditxin esaten.

D.— Yainkoa lagun, dakigula! Zer gertatu bear ote du?

N.— Obe dun, bai, ik emen gelditu. Larrañeko garaia iraultzen danean, etxunate bizirik utziko, ez apaiz, ez moja, ez praile, ez goragokorik ere, atzematen ba'ditute. Geienak Biurriaren alde atera baitziran, eta bekokiz. Amaika yoango ditxin iges! Batzuk asi zaizkigun zurikerian, batez ere praileak, gure txanda ba'letor ere.

Baña, luzatzen yun, eta gure yendea on izatez aspertzen ari din. Gure gazteria ezkerretara, gero ta geiago. Aski bultza egin zionate. Siñeste aula zutenak, orain aulago. Santu antzekoak ere ba-ditxin; ez bat bakarra. Oiek galaraziko al yunate Yainkoak Dabiden agoz diona: «Neque enim manebit sceptrum impiorum super sortem iustorum, ne extendant iusti ad iniquitatem manus suas», ots, gaiztoen zigorrak ez dula luzaro iraungo zintzoen gain, zintzo oiek okerrera ez ditezen.

D.— Oiek gaizto? Oiek omen ditxik katoliku, Biurri aurretik dala.

N.— Len esan yunatana, izena ostu ta ikurriña, Satanas'ekin. Ez al dakin Biurri'k matxinada baño len «Yainko gabeko amar agindu» argitara zitula? Ez al dakin iru eskomikuren azpian dago-la, agerirako beintzat?

D.— Baia?

N.— Lenbizikoa, Aita Santuak nazitarren kontra egin zun Enziklika Ezpañian argitaratzea debekatu zulako; bigarrena, beste Enziklika bat eten eta eten, berak nai bezala eman zulako; iru-

garrena, Sevilla'ko Kardinalari Artzai-gutun bat zabaltzea galarazi ziolako.

D.— Bai omen yuk animako Gurasoa. Meza entzuten omen yuk egunoro.

N.— Antola ditezela ua ta aren animako gurasoa. Ez niuken aien larrupean egon nai. Beren kolkoan eta Yainkoaren aurrean zintzo ba'daude, gañekoen aurrean etzeuden ala.

Ez dedila luzaro egon oien zigorra gure gain. Buka dedilla ango gorrotoa, ango ipernu bizia.

Gu ere atera gaitzen, ipernu kixkalgarri ontatik.

## V

# BATAIAGABEEN AURTEGIA

N.— Ipernutik Garbitegira uke, berez, urrengo txangoa; bañan iru Elizak batetsuan artuko zetunagu: burruka ari geranona, garaitu dutenena, ta zerura bidean ziur daudenena. Auetara baño len, bataia gabeko aurren egongua yunagu yardungai. Gogoan al dun Espuru'ko ikuskarria?

D.— Elias'ena?

N.— Bai. Elias itzalita geroxago, amar amaika urteko aur bat agertu zitzaidanan nere aurrean, utsetik atera bailitzan. Aurpegi ezagun antxa.

Nor augu xeme?

A.— Zuetakoa natxik.

N.— Matxin edo?

A.— Ez, amabigarrena.

N.— Gizagaxoa! Nola bizi zerate aurtegi artan?

A.— Zuek emen bañon obeki. Ez diagu ekaitzik, ez gaitzik, ez ta zerukoen bekaitzik.

Zuek emen baño doatsuagu gatxik askoz ere.

Emak emen lurrean santu bat argialdirik aundienean; ua baño doatsuago gatzik, grazia ezik. Yainkoa obeki ezagutzen baitugu.

Zuek bañon aurrerago bizi gatzik. Zuek egan asi zerate, bañan illargira ta izarretara etzerate beiñere iritxiko. Gu, bai, emen gabiltzik, legorrez legor, itsasoz itsaso, eguratsez egurats, izarrez izar, nai dugun tokira. Guretzat ez dik azken-auzi egunik, ez baikenun on eta gaiztoaren berri. Alare, yakiña, sortegun berean bataiatu ta il zana, asko doatsuago dik gu baño. Yainkoa ikusteko ta gozatzeko gaiago baita.

N.— Zerk ekarri au neregana?

A.— Alegia, buruan iraultzen asi dukan liburu ortan ez gaitukala ipiñi bear ipernu edo erdi-iper-nuan Dante'k bezala. Arek ipernuko lenbiziko oboan sartu ginduan. Oraintxe ere, il giñanetik, erdi-zero esan litekenean bizi gatzik.

N.— Au estearekin itzali egin zinan, ni naigabe xamar utzirik. Laztan bat emango nionan, baña gorputzik ez baitu egiazkorik utsa laztanduko nenunan.

Beste senideetaz oroitu nintxinan. Aietan gaiztoenak ez dezala bide okerragorik eraman.

D.— Baldinbait ere!

N.— Aur oiek ere Yainko-Semearen argipean zeuden, graziarenean ez ba'da ere, Beraren antzera egiñak baititu oro. Bai adimendunak, bai ezak, guziak nolabait Yainkoa sumarazten yunate beren einean. Eta, eguratseko txoriak txintarka Yainkoa goresten ba-dute, ta gauetzko pizti ankerrak ere, aragi bizi billa dabiltzala, Yainkoa beren gisan aitortzen ba-dute, Dabid'ek diona, pekaturik egin ez duten gaixo oiek ez al ditxin txori ta pizti bañon areago?

D.— Ala esan litekek.

N.— Ordutik onara, egunero esan oi diñat, beste sorkari guziekin Yainkoa goretsi naiez. «Benedicite, infantes limbi, Domino».

D.— Ederki. Oso arrazoizko gauza.

N.— Gogoan zeukanat: ama batek eketx egin zunan, ots, aur illa. Ba-zunan irugarrena gaixoak, gogoz bestera, yakiña, ta naigabe zegola, karta bat egin zidanen linbo ori zer ote zan galdetuz eta seme aiek beiñere ikusi gabe geldituko ote zan. Emen esaten ari naizana erantzun nionan, eta bai pozetan sarrerazi ere. Zenbat ama ta guraso gaixo egon oi ditxin orobat, aurrak bataio

gabe il zaizkielako! Ba-yunat adiskide bat, emazteak zazpi eketx izan zetion, gaixoak, eta bat eldua nai.

D.— Zenbat aur gaixo ote daude linboan!

N.— Guk uste baño geiago. Orainaldian bazo-azin, beintzat. Ala bearrez, aurdunen axolaka-bez,... gaiztoz. Len etzitxinan ainbeste. Guk amabiren artean bakarra yunagu. Orain zenbat amabiko ote dira, etxean bakarra nai duten oietakoak? Egia, asko ta asko, bizira baño len galduaziak; beste asko , ainbeste ez ba'dira ere, bizitzen asi ta gero. Zer erioqueta! Ta saldo guzi ori ipernura, edo zerbait naigabe dagon tokira?

Ez eta ez.

D.— Ez, arren!

N.— Oñazerik ez beintzat iñolakorik gorputzean. Naigabe pixkaren bat grazi-bizirik ez dute-lako? Uste dutenak ba-ditxin; nik etxunat uste.

San Tomas'ek diona: «Bietan bat: aur oiek ba yunate zeruaren berri edo etxunate.

Edozer aukera, zeru galduaz etxunate naigaberik; ezean, ez-ezagunak ez baitu griñañarik ematen; baiean ere ez, arrazoidunik ez baititeke naigabetu, ez dagokion ondasunez.» Zeru gal-



duaz naigaberik ez ba dute, beste edozertaz zergatik?

Erloju bat egiten dunari bekaitz al akio i, ezin egin dunalako? Edota egal-ontzia egin dunari? Alako edo olakori, ik ezin dunaken zerbait egin dulako? Ez al dion, ostera, txalo yotzen? Aiek ere ori egingo yunate. Guk Aingerueri bezala. Naigabe apurra ba'lukete ere, nolakoa? Atsegiñik aundienarekin gerta dakikegun naigabetxoaren gazi-geza. Zein da mundu ontan, santu danaren atsegiña bañon aundiagorik, batez ere, otoitzean Yainkoak irugarren zeruraño yaso dezanean? Orrek ere ba yun bere gazi-geza: atzerri-miña, orduan ere.

Naigabe ortaz dana dala, nik au uste: zeruan Yainkoa guk bañon obeki ikusten dutenengatik guk naigaberik ez baitugu izango, alaxe aur aiek ere, zerutarrak ikustean.

Bai poza ere, Yainkoak gu baño sorkari ederrago egin ditulako.

D.— Ta zer derizkiok? Ikusiko al gaitute edo ikusiko ote ditugu?

N.— Elizak diona idukiririk, ikus neri dirudidana.

D.— Elizak zer dio lenbizi?

N.— Zeru-ipernuek toki berezia ba-dutela.

Linboak ere bai, antza. Izan ere itsusi uke orduan naste bizi izatea. Baña zerua, batez ere, egoera doatsua baita, ez uke itsusi Yainkoaren sorkari diran aur oiek beren einean zerua edertzea. Lurrean ere bazetunagu landare ta txori. Elkarrekin ederki bizi gatxin, gure ta aien egoera bixikoa dan arren.

D.— Auek, ordea, gure pozerako ditxik; an berriz, Yainkoak bere pozez aseko gaitik, eta etxuagu besteren pozaren bearrik.

N.— Egia; bañan ez gatxin an egongo xoxoturik, beti begiok Yainko soillarengana zuringoturik. Nolanai ere, Yainkoarekin egongo gatxin, eta sorkari bakoitzean Yainkoa ikusiko yunagu emen ez-bezala. Beraz, aiek maitatzearekin, Yainkoa Bera maitatuko yunagu; bestela esan, Yainkoagan murgildurik gaudela ikusiko zetunagu. Etxun emen bezala. Sorkari bati begiratzen ba'diogu begiratu errex murgiltzen zaigun artan, Yainkoaz aztutzeko, bestera bearrean. Une batez aietan Yainkoari begiratzen ba'diogu, begiratu ori errex atertzen zaigun. Orduan, berriz, aietan

murgiltzerik ez, edo murgildurik, nai ta nai ez  
Yainkoagan murgildu bear era berean.

D.— Etzegok oker asmatua.

N.— Yainkoak gizaki egin gaitin, gañera, ta  
nola nai dun, ainbeste gurasok beren aurrak  
ikusi lezazketenean, beiñere ezagutu gabe geldi-  
tzea?

D.— Ori esan.

N.— Gurasoek emen maite yunate itsu edo  
gor edo ezaguera gabe sortu zaiena ere.

Nola ez an, guk orain baño Yainkoa obeki  
ezagun eta maite dun aurra?

D.— Bidezko zirudik.

N.— Yainkoak au nai yun: Berak egiñak guk  
ezagutzea ta maitatzea. Batez ere zeruan oin-  
beste ta oinbeste milloi Aingeru; ori egiñez ez  
baitugu Arengandik aldegiten; oster, aiek maitatuz.  
Bera baitugu maitatzen.

D.— Senideek elkar ikusiko ote dugu zeruan  
ere?

N.— Senarrak emaztea ere zergatik ez?  
Batek esan zidan: «zerua ez da neretzat oso-  
tara zeru, senarra ikusi bear ez ba'dut».

D.— Ori duk ateraldia!

N.— Zer nai yun? Gizaki izatea etzigun kendumo Yainkoak, beñipein. Ebangelioak diona: an ez da iñor ezkunduko; denak Yainkoaren Aingeru ditezke. «Egia, bañan aragiz ez ba'da ere zergatik ez elkar maita Aingeru bezala, ta beste edonor atze baño geiago? Santu ziranen gurasoek ez al yunate poz aundiago ta dirdai aundiago beren semeak ikustean? Eta zergatik ez gallendu ere, aien guraso izan ziralako?

D.— Bañan, esana dan bezala, «zu zeruan gorago egongo zera ni baño, ta etzaitut ikusiko».

N.— Beti ez al ditxin beren yar-lekuan eserita egongo. Gañera, len esan yunadanez, zerua batez ere egoera doatsua din. Elkarren ondoan egonik ere, bata bestea baño gorago zegon, ots, bata Yainkoaren dirdai aundiagoa agertzen yun besteak baño. Ola gertatzen dun izarretan ere: bata baño bestea dirdaitsugo ikusten zetunagu emendik, San Paul'ek diona. Beraz, etzaidan iduritzen, amak bere semea ikusi nai ta, ikusi gabe geldituko danik: ez zerukoa, ez linbokoa.

Eta toki berezia ba'lukete ere, zergatik ez ara yoan zerutarrak, legorretik itsasora bezala edo Europatik Ameriketara bezala?

D.— Ori esan, mutikoa. Beraz, guk ere anai bataia gabea ezagutuko yuagu.

N.— Bai. Ta oinbeste amak beren erraietako aurrak.

D.— Eta aur oien gorputzak biztuko ote dira azken-egunean?

N.— Nik uste. Ipernukoak ere bai, gaitzerako; egin zituten gaiztakerien zigorrak yasateko. Areago, beraz, aur gaixo oienak.

D.— Zerukoen eta ipernukoenak, bai, igerritzen zioat; baña zergatik linbokoak?

N.— Aien anima, berez gorputzean bizi izateko egiña yun, eta gorputza animarentzat egiña: biak elkarrentzat. Yainkoak ala egin zetunan, eta eriotzak bakandu ba'zitun ere, elkarrekin batu gabe ez ditxin gizaki. Aien izatasunari berez zor zaion bat egitea, ta Yainkoak ezin ukatu, artarako egin zitun ezker.

D.— Gizon-gorputzekin, alegia?

N.— Bai, erne-berrian illak ba dira ere.

D.— Ez ote dira aur-gorputzean geldituko, beti aur?

N.— Ez nik uste. Eman dezagun egun bateko erne-muña dan aurra, ots, aurgaia, ta beratzi

illabete zitun aur eldua, yaiotzean illa. Erne-muñ arek aur izateko, asko azi bearra zeukan. Beraz, aur eder izatea ba'legokio, zergatik ez aur ederrari gizon eder izatea? Eta zergatik ez, eketx atera ziran guziek, gorputz berdintsueekin?

D.— Ala esan litekek.

N.— Iñolaz ere, gure gorputzen dirdairik etxunate izango, baña lurrean bizi diran gizonak bezain ba dirakela esango niuken.

Ara beste gauza bat: gu ederragora aldatuko gatxin, etxeko kera galdu gabe; bañan aur oiek obeki gogora ekarriko dutela natxon beren etxe-koen antza, lurtar izan giñanean bezala. Ez gatxin izango emen bezala, etxeko batzuk beltxeran, amaren aldera, ta besteak zurito, aitaren aldera.

D.— Ikusten!

N.— Eta aien aitameri etzaien ukatuko beren aurrak ikusteko poza, ta bereziki maitatzeko ere. Iñuxente il ziran gizagaxo zentzurik gabeak ere. Aiek ola maitatzean, esan dutanez, Yainkoa maitatuko baitute, Berarengandik begiratua atertu gabe.

D.— Etzaidak iduritzen gaizki asmatua.

N. Au ala ba-zan sartu bedi kalabazan; ez ba-zan, loratu bedi baratzan.

## GARBITEGIA

N.— Esan oi yunagu norbaitek eramankizun aundiak ditunean: «Ze burgatorioa gaixo orrek! Beste kixkailtegi ua bera ikusi dunik ez ba da ere, Garbitegi esaten zaiona, bai, gutxi edo asko. Ongi eramaten ba'da, anima garbitzen baitu.

D.— I ere ederrak ikusia aiz, gizgaizo ori!

N.— Ez aipatzea obe, neska, edo aipatu ta aipatu. Españiko matxinadaz ez mundu guziko gudaz etxunak amets zakarrik batere egin; bañan arako beste Garbitegi artaz, oraindi bazetunat ametsondo gozakaitzak.

Ogei ta zazpi urte aundi! Egunez pakean ba nago ere, gauean aldiz oroitara zaizkidan. Orrek adieraziko yun nolakoak ikusia naizen.

D.— Gudaldian bañon aundiagoak?

N.— Askoz ere. Bein zeukenat gogoan, San Kristobalen etxean nengola egin nenunan amets.

D.— Ez duk amets astuna.

N.— Beste bein Prantzian. Gurs'eko atari itxitu edo Mirandategi artatik atera berri nintxina. Landes'etara igesegin nunan, adiskide aundi Martin Oiartzabal jaunaren etxera. Atsalde artan oillar eder bat il zunan biaramonerako. Gau artan beste amets au egin nenunan: Gurs'eko eilegorrean etzanik nengola, ta etzauntzaren sapaia egunez bezala ikusten nula. Ametsa gaitzerakoa danean askotan gertatu zaidan: «ametsetan ari ote naiz?», eta, berela esnatzen natxin.

«Gaur yakiña ametsetan, biar oillarra baitugu yateko. Bi amets oiek besterik etxunat egin biurrialdi oietan.

D.— Ez ditxik amets izugarriak. Eta Gurs'en nola?

N.— Ez ain gaizki. Zazpi kilo galdu nitunan, baña ba-nenunan adiskide bat musikaria ta arekin nengonan egun guzian kanta ta danza ikasten. Esaten zunan yendeak: «bi oiek bai doatsu dirala! ez baitira konturatzen itxituan daudenik». Egia; lo berriz, yakiña. Bein bazkalondoan etzanik nengonan, begiak itxirik, eta, «ez al da doa-



tsu Orixe, orrela lo egiten duna?»), esan zunan batek.

D.— Zergatik eraman induten ara?

N.— Prantses gizagaxo aiek burua galdu zunaten, alemana sartu zitzaientean. Guregana iduritu txarren batek artu zitunan. Ori barkatze-koa din. Guda bukatutakoan ere, gose apur bat ikusi genunan; ez ordea Petiri-Santz, esateko. Ondoan neukanan Oñati'ko Jausoro. Gizagaxoak ango eltzaririk ezin yan, eta neri ematen zide- nan. Nere zakuan biena errex kokatzen zinan. Zazpi kilo besterik ez nunan galdu iru illabete terditan. Baña Prantzian, ango mendeko Euskal-lerrian, obeki esan, Donibane Lohitzun'en Burga- torioa zegonan neretzako, azken alde ontara.

D.— Eta?

N.— Ez din aztutzeko Elias'ek esan zidana: Elizaren alde bizkor yokatzeko.

D.— Prantzian Elizak etsai aundiak omen zetuk.

N.— Ez din ortaz. Etsaiak, obeki esan, adiski- de miñenik bear luketenen artean: apaiz eta goragoko Elizgizonen artean.

D.— Ikusiko uke!

N.— Asi zitinan Españian ere sasi-yakintsu batzu, Yainkoak bere Liburuetan esana bere gogara makurtzen, mundutarren belarria goxatzeagatik, egiari muzin egiñez, ipuia zeritela. Batez ere Prantzian, buru-yario ta mihi-yario gogorra baita prantsesa. Bear duna ta ez duna buruz irauli bear; agora datorkion guzia tar-tar adierazi bear.

D.— Apaiz yende ta goragoko oiek Elizaren aurka?

N.— Izan ere. Ta apaizgaieri irakasten ari diranak. Urte artan asi zinan Baionako Apezpikutegia moda berriko ipui oiek zabaltzen, an emen iriz-iri mintzaldiak egiñeraziz. Etorri zitinan Donibanera bi Irakasle. Obe zunaten etxean gelditu ba'lira.

D.— Ortaraño?

N.— Ortaraño. Bat arek mintzagai zer zun esatea ere lotsagarri din: «bide yatorrez-bestera aurra nola egiñerazi diteken, eta zillegi ote dan....» Ikustokia leporaño betea omen zegoan... nexkato gaztez.

D.— Yes!

N.— Ontara ez nintxinan agertu ere. Esana yun San Paul'ek, olako gauzarik aipatu ere ez egiteko: «nec nominetur in vobis».

Eta erriko yende xumeari ori agintzen ba'dio, zer esango ote zion apaiz bati?

D.— Ortaraño galdua dago lotsa?

N.— Okerrago dana, beste Irakasle bat siñes-kizunen aurka ari izan zinan. Esan zitekenan gaiztoek eman ziotela dirua. Artara, bai, ederki egin zunan.

D.— Yakiñaren gañean eta naita?

N.— Buru-arinkeriz?... Obe bearrez?... Bere burua erakusteagatik?... Etzekiñat. Lenbizi Eli-zan arratzaldetik iragarri zunaten. Atarian pape-rak erruz zabaldu zetunaten zertaz mintzatuko ziran «Gure Etchea»n. Etxe au Parrokiaren yolas-etxea din. Paper oiek au esaten zunaten azken-lerroan: iñor bestera baldin ba zegon, atera zedi-la, itza bere zula. Bildur izaki ni ta yoan natxin oraingoan. Mintzagai: «Gizonaren yatorria: zer dio yakinkizunak? Zer dio Yainkoaren itzak?

Zer-ikusi edo zer-entzun, bazterrak bete zitxi-nan. Yakinkizunak zer dio? Zabaldu zunan agoa doakabe arek, eta obe zukenan idiarena esan

ba'lu! Bizidunen motak aldakor zirala. Adan Yainkoak egiña zula, bañan ez bertatik bertara; beste bizidun batzuk egin zitukela aldeaurretik, eta aiek bizialdatuz sortuerazia zukela gure lenengo gurasoa. Non irakurri duzu ipui ori?, nik, eta, «bidezkoago iduri zaida». — Bai?, nik, bidezkoago zirudin Yesukristo Gurutzean ez iltzea; gizon egitea aski baitzuen, eta edozein eginkizun gure alde egin, gu ipernutik yaregiteko. Beraz, ez zala il esan beariko: ori da zure arrazoikera. Zer mutikoa zu! Beti «ditekenetik izanera» ari zera, ta ori ez da iñongo pilosopian argibide yatorra. «Ditekena dala» beste argitasunik etzunan ekarri, ta berak ala uste zula.

Mendel'en legea etzunan aipatu, ots, bizidunen motak aldakaitz zirala, siñesgaben artean ere baitira ortara daudenak. Eta sotanadun ori, makurrenera. «Ipuiek zer dioten esan diguzu», nik, egiazko yakinkizunak zer dionik ez. Mintzaldi osoa bukatu zun arte ez nenunan aterrarazi. Bukatutakoan au esan zunan: «iñor bestera ba'dago, atera bedi». Iñor ez eta ni atera nintxinan, nere nolabaiteko prantsesean. Yendea kuzkur zegonan. Ba nitunan nere alde katoliku zintzo

asko. Orduerdiren bat eman nenunan besteraka, ta au esan nienan itzaldi auen antolatzaileeri: «Ainbeste gauza ditut beste esatekoak, asko luzata baininteke; beraz, emaidazute beste gaualdi bat nere argibideak ateratzeko». Bai eman ere.

D.— Azala bear yuk!

N.— Nik etxunat izugarria yende askoren aurrean itzegiteko, baña nolatan ixilik utzi zozokeri aiek esaten? Edo gaiztakeri aiek. Gure Eliza gaixoa ola kaxkarrerazi gaiztoen aurrean, alde atera bear lukenak!

Utzi nionan bigarren itzaldia egin zezan, ots, zer dioten Liburu Santuek gizonaren yatorriaz, andik zortzi egunera, ta urrengoan eraso nionan alde guzietatik.

D.— Bigarreanean zertzuk esan zitun?

N.— Lenengoan baño beltzagoak.

D.— Alegia?

N.— Genesis ez zala yo bear gertakizun.

D.— Zer da Genesis?

N.— Munduaren eta gizonaren sortueraz Yainkoak esana.

D.— Nola yo diteke bada?

N.— Idurikizun bezala artu omen ziteken.

D.— Yainkoak berak esan al du idurikizun bat dala?

N.— Nondik? Orduan nik ixilik egotea neuke-nan.

Eta Sortuera zaion Liburu ortako bigarren Atala. Esan ere ba nitxonan: «Moise'ren itzak Yainkoarena balio du liburu ortan; bañan ar zazu giza-itz antzean. Yesukristorena Berarena ere orrela artu? Ez al du Yesukristok ikustekorik Genesis orrekin? Ara, ain zuzen ere, Ebangelioan aipatzen du bigarren Atal ori, ta gertakari bezala. Orregatik begirapen geixago merezi dula derizkiot Yesukristoren itzak Moise'rena Yainkoaren itz ez ba'litza ere.

«Idurikizun edo adierazkizun bezala yo diteke ala ere» esan zidan. Zer uste duzu?, nik, Yesukristok Bere Eliza ipuien eta idurikizunen gañean ezarri zula? Zuen Lafontaine zala uste al duzu? Bañan azter dezagun Ebangelioa, esan nitxonan. Bi Ebangelarik itz berekin yalki zuten. (Mt. XIX, 3, sq: Mc, X, 2 sq.)

Pariseuek zer-atera urbildu zitzaizkion Yaunari: «gizonari zillegi al zaio, edozergatik emaztea

zapuiztea?- Ez al duzute irakurri esan zien, gizona egin zunak gizaki-emazteki egin zitula lenbizitik? (Au lenengo atalean dago, I, 27); bañan urrengo au bigarrenean: «Orregatik gurasoak utzi bear ditu gizonak eta emazteari eratziki bear ditu gizonak eta emazteari eratziki bear zaio; ta biek gorputz bat dirake. Bi gorputz ez-baña, bakarra. Beraz, Yainkoak batu zuna gizonak ez beza bakandu». (Gen. II, 24.) Eta aiek: «Ez al zun bada agindu Moise'k, zapuiztagiria eman eta bialtzeko?» Eta Yaunak: Moise'k zuen biotz gogorragatik utzi zizuten emaztea zapuiztea, baña lenbizitik ez zan orrela».

Ona emen bi gertakari. (Yuduek etzioten esan ipui zanik): 1) Moise'k bizialargun gelditze-ko baimena eman ziela yudueri biozgogorregi ziralako; 2) Yainkoak oster, lenbizitik gizon-emazte egin zitula, ta aragiz elkartzean gorputz bat egin zutela. Beraz, ez bakantzeko. Ez al da ori gertakari batekin beste gertakari bati erantzutea? Nork aitortuko du bizialargun gelditzea idurikizun dala? Eta Yesukristok esana ipui utsa ba'da, zer balio du Aren argibideak yuduenaren kontra? Baterez. Yuduen arrazoiak urre balio

luke, ta Yesukristorenak ez ta zillar ere. Beraz, Genesis gertagauzaz ari da.

D.— Zer erantzun zian?

N.— Izan zunan azala oraindik ere, «iduriki-zun bezala artu diteke» esateko, xoxo arek.

Oiek eta beste gauza asko entzun zetunan, bañan ardizarra etzanda auznarrean bezala gelditzen zinan beti, begiak nora zeuzkan yakin gabe.

Nere mintzaldia, makinaz idatzirik, Donibane-ko adiskide katoliku batek eskatu zidan, eta an zebillan nonbait, galdu ez ba dute. Bi aste aietan ez nenunan lo aundirik egin. Dozenerdi bat kilo galdu nitunan: kristau zintzoen artean egiten ari zan kaltea autemanez. Geienak katoliku zitxinan. Siñeste gutxiko gizon batek au esan zunan aren itzaldia entzun ondoren: «Onara etorri naitzenean ez nun siñeste aundirik; bañan orain baterez». Gure yende gaixoak berriz: «zer siñesten dugu? Orai arteo irakatsi daukutenak ez duia balio»? Ikaraturik gelditu zitxinan.

Zer naigabea, batez ere katoliku dan batenzat! Gutar bat ola mintzatzea, ta askoz okerrago dana, Apaiztegiko Biblia Irakaslea. Yoaten



naun Parrokuagana: «zer da au?», ta, «etzitela arrangura; ba-da Erroman fedea zaintzen due-nik». Nai dut, nik, baña bitartean zer kalte egiten dute gizon oriek!

Ainbeste gauzaren artean bat besterik etxunat esan siñesteari dagokionez ark utsegin zuna; baña beste bat bederen esan bear yunat yoan-etorri aundikoa: Adan bat baño geiago izanak zitezkeela esan zunan axandalo arek.

D.— Zer da axandalo?

N.— Lekunberri'n mitxirrika, zuek esaten zenutena, beste nonbait inguma, ta beste itz asko baititu Yainkoaren mandatari arek. Bañan arrazoi dun, oraingo ontan gizon ua Yainkoaren baño deabruaran mandatari zala esan zitekenan. Bañan Uitzin axandalo erderaz tontuelo bezala din.

D.— Nola ditezke Adan bat baño geiago?

N.— Zer nai dun? Bein malda beera asi ezke-ro, errekarano. Ontan ari giñala, beste zertakobait San Paul aipatu zunan (Rom. V.). Orixe zinan bere burua zuloan sartzea. Andik eldu nionan, esaten baitu dozenerdi bat aldiz, Adan bat bakarra izan zala. Ori ere bestera artu zitekela esan

zidanan. Yainkoa lagun dakiola. Beraz, nik, Kristo bat baño geiago ba zitezken? Yendea marmar asi zitzaionan. Antxe zegonan maiaren erdian, ni baztarretik. Nik, maiaren gañean Ebangelio liburu bat utzi nunan, eta aren barrenean papertxo bat neukanan, nere argibide guziak labor labor oartemanik. Azken argibide au neukeman: «Sic spondeo, sic iuro, sic me Deus adiuvet et haec sancta Dei Evangelia». Ots, Ebangelioen gañean eskua ezarririk ziñ egiten zula, beste asko gauzaren artean «Genus humanum ab unico protoparente descendere», ots, gizadi osoa len-aita bakarragandik datorrela. Ziñ ori egiten baitute Irakasleak eskola idekitze egunean, Mezondoan. Bildur zinan, nonbait, ori aipatuko niola, ta bai al dakin zer egin zun? Erlojua aterata «c' est l'heure» esan, ots, buka-ordu zala. Auteman zuten, bai gañekoek. Neri esan ere gero atarian.

Artean ni ekurugaitz nengonan. Biaramonean Elizan, atsaldeko otoitza bukatu zanean, sakristira sartu nitxinan. Apaizak eta ni adiskide gindunan; baña yakiña, otsoak ez baitu bere aragirik yaten, nere kontra ez egonik, etzeudenan aren kontra ere. «Gizon orrek ziña autsi du», nik, eta

aietan batek-lau zitxinan- «geixko erran duzu».- Zin egina du eskola urtearen len-egunean, au ta au aitortuko dula, ta orain bestera ari da.- «Arrazoin duzu» esan zidan beste batek. Bañan irugarren batek au esan zidan: «Apezpikuari kexatzen ba'zira, makurrago duzu, aintzinago baitoa. Aita Saindua bera ere, yakintsun berri orietako omen». Erroman olako aizeak omen dabilta». Arri ta belarri egiñik eta lur yorik gelditu nintxinan. Zer gertatu bear ote du? Eliza ez din okertuko bere irakatsietan, baña bitartean zer kalte egiten dute olako apaizek!

D.— Nola izan uan bekoki, oinbeste yenderen aurrean apaiz bati yarkitzeko?

N.— Berak eman zigunan gañekoeri baimen, guk eskatu gabe. Ta katoliko zintzo bat nola egon ixilik, olakoak entzutean? Nere babesean eta nere atzetik ekin ziotenen beste batzuk ere. Etzunan bereizten ango mataza. Andik laister kalonigu egin zunaten. Nola ote dago gure Eliza gaxoa? Ez ote da argirik etorriko laister Erromatik?

Au izan nenunan Burgatoriorik aundiena Prantzian, bañan ateratzeko itxaropidea. Zerbait

entzun yunat: Aita Santua Enziklika bat antolatzen ari omen dala sasiyakintsu tartar oientzako. Ez din nik nai orduko etorriko!(1)

N.— Mintza nadin egiazko Garbitegi artaz.

Nonai bezala Prantzian ere gauza txarrak eta onak ere ba-ditxin. An ikusi dutan zerbait egoki zetorkidan eta atsegin ematen zidan.

D.— Zer da?

N.— Gurean ere ikusi nai nukena: illerria Elizaren alboan, Elizari dagokala. Ez erri guzietan an ere; bañan an bai daudela ondoan bi pamilyoiek, bi erri oiek bi Eliza oiek: burruka ari geranona ta zerura bidedean itxaropenez daudenena. Gu emen ari gaitunate oraindio, zeruak erakarri nai, ipernuak erakarri nai. Etzekiñagu ziur nork eramango gaitun; obeki esan, gerok naita norekin yoango geran.

Xubero'ko Santa Garazi'n gintxinan, Euskal-zaleen Biltzarrean. Sartzen gatxin Elizara, ta apaiz aundi bat ari zinan, Kristau Ikasbidea irakasten. Beren eguneko ikaskizuna bukatu zutenean, atera ditxin aur gaxoak, eta atetik yauziala, bakoitza bere etxeko ilarrietara zoanan, zuzen zuzena, ñimiñoenak ere. Eskuak bil bil egi-

ñik, begiak apal, an ari dun amar urteko nexka bat. Aita yun erio berri. Esan zitekenan, naski, bertatik bertara ari zitzaiola izketan.

Zertako bear yunagu toki oberik, edota zer ibili bearra zeukenagu toki billa irudimenez mendi ta malkor, arroil eta aintzira igarotzen, anima aiek non eta nola dauden aiderazteko? Bai neri eragin ere polikitxo!

Gurean ere, bai, anima gaxo oiengana yaiera aundia yunagu. Otordu oro, maia bedeikatu aurrean geren otoitza egiten zietenagu, utsegin gabe bañan urtean bein, edo norbait iltzen danean yoan oi gatxin illen errira, oso bakan iltzen baitira erri txikietan. Gauza itsa! Uitzin, Eliz-etxearen tellatupean zegonan len bereiz ille-rria, illobiak Elizatik beretik kendu zitutenean. Aski bertan. Baña nor yoaten zan? Apaizak eta atxoak, emazteak egon oi diran tokian, etxe bakoitzeko illobi zarrean, gorputzak ustu zituten tokian asi zitxinan otoitzak egiten. Ezurtegia itxirik zegonan burnizko ate aundiz. Eta zer ipui izukari yalki oi zitiguten! Bein illundu ezkeru, aren albotik etzala pasa bear. Baraibar'ko Pantxika'k, animezkillu yo ezkeru, iru giltz eman zitiola Eliza-

ri, ta irugarrenean beste mundukoek eraman zutela. Egunez ere, andik igarotzean, bildur nintxinan, ni beñipein.

Gero, illerri berria, erritik urrun egin zunaten, Gorriti aldera. Ara nor yoan? An ere ipuiak asmatu zitunaten: auntz bat ikusi zutela arresi gañean, aker bat ikusi zutela gauez, larre-suak agertzen zirala. Ni gure beiekin Ilargun aldera nindoala, edo andik etxera nentorrela, ez nenuan asko begiratzen, egunez ere. Mingarri din, bai, ain gaizki irakatsirik gu egotea! Ala ere, egia: Uitzí'n ez dun Meza Nagusirik, ez lapur-mezarik, ez Meza ixilik ere ondoren erresponstu gaberik; ez Bezperarik, ez atsaldeko otoitzik ere. Olakorik etxunat ikusi Orixe'n, baña naiago nuken erri guzietan illerri oiek Eliz-ondoan ba'leude! Bi urtez bizi izan natxin Bidarraí'n, eta an ikusi yunat iñon baño biziago bi Eliza auen elkartasuna. Erriko tokirik gaiñenean eta alaienean zeudin. Eliza guzia illarriz inguraturik zegon, batzuk apaiñago, besteak txiroago; baña guziak txukun. Noizpenka garbitzen zetunate, goizean, naiz atsaldean; lore batzuk ipiñi ere bai, urtaro

danean. Baña, batez ere, Umia-Saindu egunean, biaramonerako.

San Agustiñ'ek esan zunez, otoitza obe din lorea baño, ez baita isten; bañan otoitzarekin lorea ederki zetorren. Bata baño bestea lore ederragoa. Siñesgabe aiek lore utsak eramán oi zetunaten, eta olakoen aurka ari din San Agustín. Gure illarrieta oiek ikusi ba'litu, ta gure yende oiek otoitz egiten, etzinan ala mintzatuko. Igandeetan, batez ere, goiz-meza, Meza Nagusi, Bezpera aurretik eta atzetik yende guzia otoitz labur bat bederen egiten. Bai xoragarri dala! Beste zenbait erritan ere uste yunate, gorputza, animarengandik bakandu dan tokian gelditu dala, ta an dagola zerura igaro arte; bañan an, ikusi egiten dala esan ziteken.

D.— Anima gorputzaren inguruan ote dago bada?

N.— Ditekena. Bera ez ba'dago ere, Aingeruren bat, bai, otoitz ua Yainkoari eramateko, ta, bear ba'da, animari otoitzaren berri emateko.

D.— Aingerua an?

N.— Ez din nik asmatua. Elizaren Ritual edo oitura-liburuan, illarria bedeikatzen danean, an

dagon Aingerua aipatzen din. Zertako ote dago an? Gorputz ustela edo ezurak zaitzeko? Ez iñolaz ere. Eta bestela, ez ote dago an anima ere? Ta ez ote dago ua zaitzen, gaitzetik galarazteko ezbaña Elizan edo nonai aren alde egiten diran otoitzen berri emateko?

Yainkolariek diotenez, animaren auzia, ilda berela, gorputzetik bakandu dan tokian bertan gertatzen omen din. Ez uke bada arrigarri, anima illarrietan egotea ere. Baña beste zerbait ere esaten yunate: anima oiek ez dutela gure pentsakizunaren berri.

D.— Beraz, zertako eskatzen diegu olako ta olako gauza? esaterako, esnatu gaitzatela xuxen eta tiñel olako ordutan?

N.— Egia, neska. Nolabait yakin bearko yunate. Ortarako ederki zetorren Aingeru Zaindaria; animek berek ez entzunik edo ez ezaguturik ere, Aingeruak adieraziko zien gure eskabideen berri: gureak aienari, ta aienak aieri.

D.— Uste izatekoa dik; baña zertako oinbeste Aingeru?

N.— Ba-dakin milloika ta milloika dirala. Irutatik bat Luziper'ekin erori ba'ziran ere, ezin konta-



ala dirala. Ala ez ba'lira ere, il eta zerura yoan diranak ez al ditxin aski, beren etxeko illen animak zaitzeko? Aingeru aiek zeruan daudela, yakiña, lenago esan bezala. Zergatik ez grazian ilda zeruara yoan diranen animak ere, an eta emen? Gurekin yaio zan irugarrena ez ote da gu bion Zaindari? Aingeruen aukera galdurik etzeukenagu.

Aur dirala il diran oiek, Aingeru dirala esan oi yunagu. Baña gaztetan naiz adiñ elduan naiz zartzaroan il diranak ere, Yainkoaren adiskide il ba dira, Aingeru dirala esan oi yunagu. Norbait il danean, esana yun Euskalerrian: «Aingeru gaitezela».

D.— Eta bakarra danak eta etxekorik ez dunak?

N.— Ari ere, ildakoan Eliz-lurrik etzaion ukatuko, eta illobirik ez ba du, beste pamiliren batekoak berenean artuko yunate.

D.— Ta arentzako otoitzak?

N.— Ba-zetun Elizarenak. Ba-dakin, askotan zeruan dagon batengatik otoitz egiten yunagu, oraindi Garbitegian dagolakoan. Orrela egiten

diran otoitzak, ainbeste ta ainbeste, orri ta ola-koeri egokitzen zaizkien.

Gero berriz, ez dun gauza yakiña, nik edo ik olakorentzat egiñ otoitza, Yainkoak ari erauntsi diola zuzen, bearretan baldin ba'dago ere. Berak zekin nori baliarazi. Beraz, ez dun anima erraturik, erriak ala uste ba-du ere. Arek ere gutxienik bere Aingerua ba-yun, eta arengatik egiten diran otoitzen berri edo Yainkoak egokitzen dizkionen berri izango yun. Eliza deritzaion Lagunarte aundi ontan ez din ondasunik galtzen. Guziok yunagu ondasun guzietan artukizun, Ama orren seme geran ezkerro.

D.— Eta erritik landa il diranak, itorik edo bestela galdurik?

N.— Aiek ere ba-yunate askok beintzat, beren Gurutze santua, il ziran tokian altxatua. Gogoan zeukenat egunero ikusten nuna, Aizarreneko Permin zanarena, etxeko baratzondoan il baitzan gizagaizoa. Toki oietarako ere Aingeru eskasirik etzegon zeruan, gure otoitzen berri gaixo oieri emateko. Oitura ona din, an gelditurik edo andik igarotzean otoitz labor bat egitea. Itxasoan, legorrean, errian naiz erritik landa, non

da baztarrik, bat edo baten gorputza erio gelditu ez zanezorik? Beraz, nonai zabaldua zeukenagu Garbitegi ori, anima gaxo oien alde otoitz egin nai ba'dugu, ta oien Aingeruari zerbait adierazi nai ba diogu, otoitza dala, eskea dala.

D.— Prantzian zer oitura da Elizetan?

N.— Gurean bezalaxe, yakiña. Baña gauza bat auteman nenunan lenbiziko yoan nintzanean Uitzin bezalaxe egiña. Eliza Amaren Otoitzak berberak izan arren, ba ditun an emenka oitura bixikoak. Doneztiri'ko Elizan zinan. Neronek amaika aldiz egin yunat Mezalaguntzale nintzala! Mutikoak Sakramentuaren argitik piztu zitunan, lenbizi aldareko argiak, eta gero, eskukoa itzali gabe, seroragana yoan zinan illobietara, piztargia eskeintzera. Ark banatu zitunan illobiguzietara. Erri askotan, supiztekoa sakelatik aterata egiten yunate, bañan etzaidan ain eder. Antxen ikusi nenunan Naparroan nengola, ua Naparroa Barrena baita, izenez gaur Prantzia izan arren. Baña Prantzi'ko Biurraldiak eta ango Aginpideak etxun an alako eragin aundirik egin.

D.— Zer ikusten duk oitura ortan?

N.— Aldareko argi bakarretik garra guzietara banatzen dan bezala, aldareko otoitza ere berea-la zabaltzen dala. Lenbizi apaizarena, otoitz aundia, Elizarena. Arek ematen zien indar beste gañerakoeri: Mezak. Argitxo ori otoitz-orde iduritara ziteken, bai gogoia pizteko, baita otoitzari iraunerazteko. Mezetara ezin yoan diran atxoek, aien illobiko argia pizteko agintzen zionate serorari. Etxetik edo baratzatik edo alorretik egiten duten otoitz laburra, an yoaten dun illobiraño, garrari irauneraztera. Sagarako ezkillak entzutean, berrituko yunate, gaxoek, otoitza, illobiko argizagiari indar berri eman bezala.

Illengana siñesterik etxunagu galduko, ta aien alde egiten dugu otoitza, beroena din, eta ziñena. Beste otoitz asko, piztu gabe gelditu oi zaizkigun, sugaia igurtzi arren, edo buruxkan garra agerturik ere, berela itzali. Zenbat olako otoitz kristau epelen artean!

D.— Eta etxeko bat baño geiago baldin ba'—daude zerura gabe, animak illobi berean ote daude?

N.— Errez kokatuko ditxin, ogei ba'lira ere, ez baitute tokirik artzen. Baña gure yendea, orai-

ñartekoa baintzat, Garbitegian ez dala luzaro egoten iduri zaidanan.

D.— Eta ara gabe zerura yoaten danik bai ote da?

N.— Nik baietz uste, bakarrak baño geiago. Ba ditxin emen aski Burgatorio ikusi dutenak, eta oso santu izanik, eriotz-orduan gorriñik gabe arkitu diranak.

D.— Nolako oñazeak ote ditute?

N.— Gorputz-oñazerik ez, gabe baitaude, bañan antzekoa bai batzuk, alako erresumin bat, aundiago edo txikiago, pekatuen ariora. Beste batzuk berriz, miñ ori gabe guziak dutena: erri-miña, zerura-naia, Yainkoa ikusgalea. Nik ba nenunan adiskide bat: laguna il eta ogeita lau ordu baño len agertu omen zitzaionan. Gorputz-antzeko oñazerik etzula izan, eta bestetik ere ariña.

D.— Aundia dutenak ere izango ditxik bada.

N.— Iñolaz ere. Munduan eriotz eta olako egin zitutenak, damaturik aitortuta il ziranak, oso santu il ez ba'ziran beintzat, yakiña, miñ aundiago ta luzeagoak dituketela. Baña Yainkoarekin zintzo ibilli diranak, oso santu ez izanik ere,

zergatik egari bear zetunate guk emen baño nai-  
gabe latzagoak? Lenbizi, emengo santuen  
aldean lasapide ohea zeukenate, seguru baitaki-  
te zerua galduko ez dutela. Eman dezagun, dite-  
kena, emen santu zan bat, azkenean okertu ta  
ipernura yoan zala. Zergatik etzetun Yainkoak  
Garbitegiko anima oiek, ua santu zanean baño  
maiteago idukiko, ta oien naigabeak zergatik  
dituken aien emengoak baño gogorrago?

Geroko orrek baztarrak uzkuratzen zetun.  
Zerura sartuko dala seguru dakinak, zeruko erri-  
miñaren gazi-geza ukanik ere, pake sendoa zeu-  
kan. Naigaberik aundiena ere gutxitara biurtzen  
din, geroaren lasapide ori baldin ba'dago. Etorki-  
zunak illuntzen gaitin eta naigabetzen. Uste  
niken, beraz, Garbitegi ortan ba-dirala guk emen  
bañon eramankizun gutxiago dutenak, banaka  
bederen.

D.— Ez duk ikaratzeko ik esaten dukana.

N.— Zertako ikararazi iñor, egia ziur ez daki-  
gula? Dana dala, gu bañon argitasun obean bizi  
ditxin, beintzat, Eliza ortakoak, betiko argia argi  
egiten asi baitzaie, goizeko argi-xinta. Illargi-erdi  
edo gau oso illun-gabe ori luzexego ba'da ere,

illun osorik etxunate. Lenbiziko argi-urratzea asi zaienak eta eguzkia ikus-urbil daudenak, etxunate naigabe aundirik izango: eziñegon pixka bat. Obeki esan, lenbailen eguzki garbi ederra ikusteko irrika. Ta geiago aterraldirik gabe.

Siñesgabeen artean, bai, anima oieri «itzalixil» izena eman oi zietenan: «animaequ umbraequ silentes». Guk «argi» esatea bidezko gauza din. Lurreko Eliza ontan ere «argitasun» esan oi zionagu graziari. Otoitzean aurrera ari dan zintzoari «argitua» esaten ba'diote, bidezago, naski, Garbitegiko animari. Yesukristok Berak argitzen yun Garbitegi ori ere, argi bestez ez ba'da ere, bai argi eralkiz.

Eriotzera zoan kristau zintzo bat. Eskuan argia ipintzen zionate. Gorputzeko bizia itzalizaoneko, argiak piztu zionate. Eta argirik obereña, otoitza. Gero Elizan, ezko-argi ta otoitz-argi beroak. Illerira deramatela, otoitz apaizak, otoitz yendeak, argiak pizturik. — Nik ez niken beintzat nai iri aundi batean eortzi nindezaten, izketan bar bar yoaten baitira. — Sartzen yunate gorputza obira, itzultzen ditxin etxera, bañan an geldid-

tzen din Aingerua aren zai, argi, naski, ua ere; an dagola zeruan baitago, betiko argiz argitua.

D.— Ta ikusiko ote dute Aingeru ori bere argitasunean, anima oiek?

N.— Zergatik ez, bere argi osoan ez ba'da ere, lillura gabe ikusi dezaketenean? Ala ikusi zunaten gure Yauna Tabor mendian Elias'ek eta. Aiek oraindi lurtar eta gure Yauna zerutar, alditxo bateko beintzat. Aingeru orrek arintzen zien noizean bein beren naigabealdia.

Ark ematen zien otoitzen berri, Elizaren otoitzen berri. Mezaz landa, apaizak otoitzean une oro aipatzen zetun: »zintzo ildakoen animak, Yainkoaren errukiz, pakean atsedean bezate». Etxekoan otoitzen berri ere, bazkaltzekoan, afaltzekoan, eta bestela. Zenbat argi! « Oinbeste laburtu zaizu, esaten bide zionate, zure emen egonaldia».

Goazen berriro Bidarraira, naiz Santa Garazira, naiz illeria Eliz-inguruan daukan edozeiñetara. Udaleneko, udako, udazkeneko loreak isten ditxin. Neguan lorerik ez, izotzaregatik. Bañan otoitzek irauten yunate. Esan ziteken, illobiko Aingeruak argiontzi bat daukala eskuetan, ots,



kristauen otoitzak, eta ara urbiltzen diran aldioro, olio betetzen dutela, argiontzi ua biziago iraun dezan. Otoitz aiek Aingeruak Yainkoari eskeintzen zition, anima kutsu guzitik garbitu dan arte. Orduan, an gelditzen din olio, ots, otoitzak, Elizaren argiontzi aundira ustutzen din, beste animeri balia dezaien. Ez din iñor geldituko argi ori gabe.

D.— Eta gure alde otoitz egiten ote dute Garbitegiko oiek?

N.— Uste ditekema, Bellarmino'ren aburuz. Zenbait laguntza irixten ditigutela ere bai. Zergatik ez otoitz egin ere? Eliza Lagunarte aundi bat din. Lagunarte ori ez al yunate ezagutzen anima oiek, Garbitegi'ko eliztar oiek guk bañon obeki? Ta gure bearkizunak ikusi ta lagundu ez, guk aieri laguntzen diegun ezkerok? Iñolaz ere bai. Gogoanago iduki bear genuken Eliza elkartasun bat dala. Emengo burrukan garaitun atera diranak, zerutarrak, eta ara bidean seguru daudenak, eta guk, burrukan ari geranok, elkarrekin yoan-etorri aundiak ditugula.

Zeruko Elizaren berri ere ba'yunate guk bañon obeki. Guk gure Aingeru Zaindaria bañon

aiek berena obeki sumatzen yunate, bi Aingeruak zeruan berdin dauden arren, aiek zerutik bertago baitaude.

Ona emen Eliza guzia batean: Aingeru begiraria, gurea ta aiena, gu ta aiek, batez ere illobian otoitz egiten ari geranean. Irurok Yesukristoren argi berak argiturik. Yakiña, zerutarrak dir-dai biziagoz, Garbitegikoak aulagoz, eta gu urrena, Aren adiskidegoan baldin ba'gaude.

Garai yunagu lurreko Elizaz mintzatzeko.

# VI

## IESUKRISTO ANIMA BAKOITZA ARGITZEN (BERRIRO QUITO'N)

D.— Berriz emen, xeme?

N.— Ikusi bear aunatela, ez baikaude len bezain urruti elkarrengandik.

D.— Zer diok San Salvador alde aietan?

N.— Ikusten naun; ezin obeki.

D.— I ago mutila, i, baztarrak irauliz. Eta legun ago oraindik.

N.— Legun? Zertako gatxin gu? Ikusi yunagu millaka urteak ditun gizona, gu baiño legunago.

D.— Milaka urteak dituna? Matusalen kaxkar utzi yuk orrek.

N.— Eta oraino beste zenbait millaka bete bearko zetun.

D.— Beste mundukoren bat al da?

N.— Ez; beste munduan etxunate urterik; gizon au, berriz, beste muduaren eta gurearen tartean bizi din. Esan bainenunan Espuru'n agertu zitzaidala?

D.— Elias?

N.— Uaxe. Berrogei urte inguruko gizon gor-diña, bizar aundi batekin eta ile-adats ugariekin.

D.— Zer derabil?

N.— Ni eskolatzeko bialdu omen yun lainkoak. Oraingoan, bai, iardunaldi ederrik egin yunagu. Arek esanak arek esan bezala azaltzen ba'ditut, mutil aterako natxin.

D.— Zertaz mintzatu zerate?

N.— Iesukristo gure launak anima bakoitza nola argitzen du lurreko Elizan, eta batez ere otoizean. Sail ontan ba-ditxin berein liburu argitara emanak; baiña nere ustez kaltegarri ditxin bat eta bi baiño geiago, aipuenetan daudenak ere. Orregatik, Elias'ek irakatsirik, zerbait berri esan dezakedala iduri zaidan.

D.— Ortaz neronek ere pozik entzungo aut.

N.— Lan oni ekiteko nengola, baratzaren erdian agertu zitzaidanan iainkozko gizon ori. Nondik nora sartu zaki onara? —nik— eta emen utzi nau Aingeruak adatsetik dilindan ekarri bainau, beiñola Habakuk leoi-zulora bezala, Daniel Iragarleari bazkaria eramatera.

N.— Iainkoak ekarri zaitu —nik—. Olako iardungai zailean ezin-asi pixka bat izan oi da, gaia ongi atondurik ere; baiñan orain nakioneko lan on tan au maisu ziñan, eta orain areago, Iainkoa milaka urtetan eskolatzen ari zaizun ezkeror. Mundu ontan zu aiñako Iainko-ikusle deritzaien oietakorik ez da izan, irautez beñipein esan nionan.

D.— Egia, mutikoa!

N.— Il zan Moise, il zan londoni Paul, il zan londoni Iuanes Ebangelaria. Zuk aiña ordu otoitzean eman dunik ez da agertu bizialdi ontan. Zenbat denbora ibili beazu orrela?

El.— Ez dakit; ori «Aitak bestek ez daki» Ebangelioan esanik dagonez. Iragarle denbora ioan zan. Guzia adierazi zigun Iesukristo etorri zanetik ez dago ezer geiago iragarri bearrik, eta nik ez dut aurrera ezertako igarmenik.

N.— Esazu —nik— gero munduaren azkenaldean erio bearra al zaitugu?

El.— Ez dakit ori ere —arek.

N.— Nik berriz: «*Proficiscere*» otoitzean esaten baita «atera zazu eriotzetik zure mirabe

onen anima, Enok eta Elias guzien eriotzetik bezala».

El.— Orain arte atera gaitu —esan zunan— baiñan ez dakigu azken-egun aietan odol-eriotza iasateko ba'gaude ere. Iezabel bezalakoren bat sor tu diteke, ta ordum berrogeitaka Iragarle ile-razi ta ni bizirik utzi arren, ez dakit launak zer daukan erabakirik. Iondoni loanes Bataiaria bezala lepo egingo ote naute ere gogoak ematen dit.

N.— Bai ote?

El.— Neronek ere Baal'en gezur-igarle asko illerazi baintun, —obe bearrez, bai, obe bearrez—, eta Ebangelioan esana baitago ezpataz illerazten duna ezpataz ioko dutela. Denbora aietan ez genun zuen oraingo argitasunak.

N.— Eta, nola zabilta —nik— len gurean eta orain emen, Ameriketean?

El.— Zu ere etorria zaitugu —arek— alderdi auetara, itsasoz eta eguratsez. Ni errezago, berriz, Aingeru orrek bainarabil an-emenka. Gizoneri itzalia nakie, zuk orain ikusten ba'nauzu ere. Zuri itzaliko nakizu, lengo artan bezala.

N.— Zaude beintzat —nik— aldi bat nerekin, bear ditudan argitasunak neri eman arte.

Iaten eta edaten al duzu? —nik—, eta, bai, oraindik ez naiz zerutar. Zertzuk iaten? eta, igaliak eta arkaitz-eztia, eskuarki. Noizean bein beleek aragi errea ekartzen didate ordun bezala. Emen Erdi-Amerika ontan igaliak eta ezta aski ditut, emengo eguzkiak azkurri aski baitu berekin.

N.— Egia —nik— aragia ez ezen arraultza ianak ere odola beroarazten dit neri geitxo.

El.— Urte asko gabe —arek— odola ematuko zaizu, eta orduan ian detzakezu aragi-ari aultzak.

N.— Emen igalitik ba-duzu urte guzian —nik—; ezta ere ba-daukat legun leguna. Orain bereon, emengo negu izeneko ontan, ikusten dituzu baratz ontan eta nonai naranja, piku, mango, anona, koko ta abar, Zaude bada emen luzaro, edo ager zakida maiz, nere lanaren zati au buka dezadaño.

El.— Iainkoak zuri lagun egitera bialdu nau —arek— eta geldituko nakizu egun batzutan.

N.— Zein ederki! Oraintxe, bai, zure ta lainkoaren laguntzarekin nere burua errez gainduko dut len idatzi ditudanen aldean. Ez da agertzearren. Ba-daki lainkoak, eta zuk siñestuko didazu. Iesukristoren ezaguera apur bat geiago eman nai nieke otoitzean artzen diran kristau zintzoeri: argi dugula guziok eta argi dugula bakoitzak, otoitzaren asi-masietatik otoitzik bikaiñeneraño. Mintzatu ziñan Tabor gaiñean launartkin, eta an gauza asko ikasi bide zenitun labur egon arren, Elizarengaz eta eliztarrengaz.

El.— Bai, naski —arek—. Ordurañoako argitasunak itzal bezala iduri zaizkit. Iainkoa Iainko danez, itz bakarra egiñik ere, guzia itz artan agertzen da: ala Iesukristogan. Iain au ere esan ditek, itz bakar bat egitearekin guzia artan agertzen dala. Nere iluntasun guziak argiturik utzi zitun. Ba nitun oinbeste ta oinbeste galde ari egitek, ta astirik ez genun arren, galdekizun guzien erantzuna nerekin arkitu nizun.

N.— Ez da arrigarri —nik—. Gure Xabier'ek ere, amabi Bonzo aiek urrenez urren galderak egin zitiotenean, erantzupen bakarrarekin eman zien bear zuten argitasuna.



Zu —nik oraino— zu Eliseo'ren aldian ain lainkoziale ba'ziñan, orain areago zaiteke. Zure arnas ortatik pixkabat nai nuke. Gogora ezazu Sarepta'ko emazte ari aurra nola piztuazi zenion. Aurraren gaiñean iru bider etzin ziñan, zure gorputzez iru aldiz neurtu zenun, otoitz egin zenion lainkoari, ta berpiztu egin zan aurra. Egiozu otoitz nere alde ere, emaizkidazu iru laztan aundi, sutu nazazu, nik ere besterik sutuazi dezadan.

Eman zetidanen, neska, ta arrezkero zainberritu ta odolberritu naizala iduri zaidan.

D.— Pozetan entzungo, zaituet oraintxe, i ta Elias ere!

El.— Zer diozu —arek— bakartegi ontan?, eta oso ederki —nik—; nere gogoaren neurrira. Baitzik ere, ez dutala aukerarik Meza entzuteko ta launa artzeko, Igandetan bestetan. Ori arkitzen dut utsaldi bakarra.

El.— Ba-dakigu —arek— besterik eziñean, launa gogoz gure barnera erakartzea protxuzko dala. Asmoa biziago ta areago. Bataiorik ezin artu du nari gogozko bataioak balio dion antze-

ra, ala nolabait, gauza bera ez ba'da ere, nork daki zenbat balio duken lainkoaren aurrean?

N.— Ala bearko —nik— Gaiñera, musika izugarri maite dizut, eta entzuterik ez daukat, barrena pixka bat beroarazteko. Buruz dakitzadan zen bait entzukizun belarrien iduritara ekarri oi ditut; baiñan iduritaratzea es da entzutea. Uts aundi ori zuk beteko didazu, ta zu egiten zaitut emedik asa itzaren iabe. Itz orrek eragingo die nere irakurleeri.

Mistiku deritzaien oriek —nik— iardungai anitz arrotu dute; eleketa ugari sortuazi; baina, nere ustez, zenbait, eta geienak ere, idurimenez geitxo baliatzen dira, ta berein kalte egiten dute. Ni nasiazi ninduten, beintzat, eta beste zenbait ere bai, aditzea dutanez. Mataza ori bereizi mai nuke zure eskola ontan.

Bi galdera egingo ditizut aundizka, ta bakoitzean beste binako ugari. Bi aundi oriek auek dituzu: otoitzean lainkoarekin iardute ori zertan dagon; eta, otoitzaldi ortan nor dugun laguntzailerik oberena.

## DONIBANE GURUTZEKO

El.— Irakurria duzu nere seme Donibane Gurutzeko? —arek.

N.— Eta, bai alaba Teresa ere —nik— «gure aita Elias» deitzen baitzaitu. Zure alaba aundi onek nasiarazi nindun gero esango tokian.

El.— Berak ere automaten du, —arek— «neri ola gertatu zaida; besteri ba'diteke bestera».

N.— Baiña, —nik— ez du aski aldiz esaten, edo askotan biribilegi aitortzen dula esan neza-ke. Donibane orrek ez nau batere nasiarazi; orrek es kolatu nau obekienik. Ala ere, zure irakaskizuna ez diteke batere motxago.

Zer derizkiozu —nik— «otoitz bikaiñena» dalako ortaz?

El.— Nere ustez —arek— lainkoari begi-emate edo «contemplatio» ori alde aldera artu bear da, eta ez, otoitzean dan gauzarik bikaiñena bezala, otoitz bikain orri dariona baldin ba'da ere. lainkoa gure ezagueraz mundu ontan nola-bait atzematte ori ba-diteke belarriz bezala ere, itzik eta olakorik entzun gabe. Aju adierazi bear dizut ongi. Iakiña, fedez lenbizi ta baitipat; baiña

laguntzeko ez daude gaizki animaren zentzu bezalako oriek. Zergatik ez lezakete esan bestera «auditio Dei», belarriz bezala atzematea ere?

N.— Ortan nengon nerau ere —nik—. Askotan gogora zait zuri gertatua: lainkoa etzegola aize-  
erauntsi artan, ez ostots artan, ez sugar aietan; xixtu legun artan mintzatu zitzaizula.

El.— Eman dezagun —arek— lainkoa atertu gabe oroitze soil ori bakoitzaren alegiñezkoa dala; ez lainkoaren ixurizko bereizi ua. Belarri soiñu antzeko ori (egiazko soiñu, sorgin-soiñu edo idurimenaren soiñu dala) lagungarri zaigu lainko-oroitze ortan eta otoitzean luzarogo iardun dezakegu orri esker. Ixiltasun osoa ere belarriari dagokio, ezer ez entzutea baita. Ortan askoz luzeago egon diteke lainkoa oroitzuz, begiz bezala baiño. Emen ere begia ez dagoke luzaro zabalik itxi-ideki ibili gabe. Belarria beti zabalik dago, ta lotan gaudela eere, erne dagola esan diteke, zer gerta ere.

Ez nuke esan nai otoitz bikain ori belarriaren mende dagola; lagungarri dala baiño; ta begi-emate edo «contemplatio» orrekin otoitz bikaiña zerbait kaxkartzen dutela mistiku oriek, idurime-

naren zentzuetara xurtzen baitute. Iainkoa ez dezakegu atzi ez begiz bezala, ez belarriz edo beste zentzuz bezala, egia; baiña siñesmenak zentzu bezalako oriek ederturik eta bikaindurik, ala bezala atzi oi dugu, edo obeki esan, orien bidez baitaratzen gera otoitz bikaiñ orri darizkiola. Iankoaz oroitze ori, Iainkoa nolabait atzemate ori, Iaiñotsuago ta illunago esan diteke belarriz bezala, begiz bezala baiño. Orregatik, otoitz bikaiñari gagozkiola, artarakoago dirudi animaren belarri ori, begia baiño. Zentzu guzietan begia daukate nagusi, eta aldeaz aldeaz ala ere da; baiñan zenbait gauzetan eta askotan, belarria ez ote nagusiago?

N.— Ala daukat nik ere: «*fides ex auditu*»: belarriz siñesten dugu; «*auditus autem per verbum Christi*»: belarriz siñeste ori, berriz, Kristok esanaren bidez.

El.— Izan ere, —arek— Iainko-Semearen izena VERBUM da: ITZA; beraz zerbait entzungarri, ta batez ere belarriari dagokiona. Otoitzik gaiñenekoan Ori entzuten dugu nolabait, edo laun Orren ixiltasuna. Zein ederki esanik utzi zigun Antioki-ko Iñati Apaizgurasoak: «Kristoren

ixiltasuna entzutea». Latiñak ala biurtzen du: «*exaudire silentium Christi*» baiña griegoan beste adierazpen bat ba du orrekin batean: «*Kristoren pakea entzutea*».

N.— Ori gauza bikain esana!

El.— Ez nuke esan nai launak Ebangelioan itzegin bear eta etsaien aurren egin zitun ixilaldi aietakorik; ez. Ixiltasun eta pake ori, Aren itzeri darie; lenbizi mintzo da, itz ori, gero oiartzun, geroago ixiltasun. Iesukristo begiz ikusi ez duzutenok, batez ere, —nik ikusia baitut— Aren itzak entzun eta gero oroitze utsean, laun Ori buruan idukitze soil ortan —buru-iraulketa geiegi gabe— irau dezakezute luzaro, itz oien mintzoa, oiartzuna, ixiltasuna auznartuz. Ikusi dugunori ere, luzaro ari gerala, Aren aurpegia atertzen zaigu begi-idurimenean, zueri beste edozein gizonena bezala, aspertu egiten baitzaigu idurimen ori, begia bera bezala; alare aietaz oroitzea etzaigu atertzen belarri-idurimenean. Beraz, Ebangelio-ko itzen mintzo, oiartzun, ixiltasun ori askoz luzarago dagoke animaren belarrian, Aren aurpegia animaren begietan baiño. Asko ta asko dira munduan, otoitzari ekiten diotenenartean,

Ekangelio zati bat irakurririk otoitzera sartzen diranak. Gero, liburua itxi, ta itz aiek entzuten iarraitze bezalako ori, ixiltasun ua datorreño, — itz aiek esan zitun Ua maitatuz— laiñotsuago ba'da ere, ez da batere txarrago begi-emate edo *contemplatio* ori baiño.

N.— Neretzat bezala ari zera, ni oso belarritar bainaiz. Beste aldera, begia ez diteke esan belarria baiño bikaiñago. Nagiago dala bai, itxuraz. Argiak margoari bertatik bertara laguntzen dio; ez ala soiñuari, eguratsak. Tximista lenago daku-sagu ostotsa entzuten dugun baño, egia; baiña, mintzo-argaillu berri auetako baten ondoan gaudela, era berean entzun ere egiten dugu oiñazturren zarratakoa. Gogoan daukat, Guatemala'ko Katedralean nengola, sarreratik berela, —irurogeita zenbait metro ba ditu— beste muturrean ari ziran kantarien mintzoa baiño lenago bukatzen zan nere ondoko mintzo-argaillu arek neri ekartzen zidana; Hertz-ugiñek usuago ekartzen baitzuten. Belarria berez ez da nagiago, nere ustez, bikaiñean ere ez gutxiago. Begiak zazpi margo oiñarri bereizten ditu, ta belarriak beste zazpi edo sei, baiña begiak margo-antxaz eunka

gutxi bereiziko ditizu; baiña belarriak millaka asko. Eta asko batean eta bereiz. Zazpikote bat entzuten ari ba zera, bakoitzaren mintzo-lerroa garbi entzungo duzu, ta zazpiak erabat ere. Begiak ez du olako doairik. Baiña, dana dala, berriketa geiegi ari dizut, eta itza zuri eman nizu-la aztu zaida.

Esaidazu —nik oraiño— otoitz bikaiñ ori zer dan eta zertan dagon, itz laburrez nola mugatu zenezake?

El.— *Berekin gauzkan lainkoa, siñestez eta maitaro gogoratzea.* Dakizunez, ez dago ain ongi «guregan daukagun lainkoa» esatea, Berak bai-gauzka. Aurrean daukagula ere ez diteke esan, orotara baitago. Bitarterik gabe gauzka Berekin, bakoitza bakoitz gerala. Barrenez barren arturik gauzka, geran osoa erasaten digula.

N.— Oso ederki. Baiña, zer diozu —nik— seme Donibane'k diona? «Siñestez eta maitaro lainkoagana ernai egotea?»

El.— Ongi —arek—, baiñan ez ain egoki. Erne edo adi edo zur edo atzarri egote ori —guzietara esaten baituzute Euskalerrian— len ezagutu dugun zerbaitena esan diteke; baiñan lainkoa ez



dugu ikusi, ez ezagutu. Beraz, ezin gogora ekarri ba-dalazko siñestapena baizik. «lainkoa es du iñork ikusi; Aitaren altzoko Seme bakarra mintzatu zaigu Arengaz».

lainkoa siñestez eta maitaro gogoratzea esan dizut —arek— eta aski da: «Memor fui Dei et delectatus sum»: lainkoaz oritzeak atsegiñez bete nindun.

N.— Ni ere luzaro egon nazu aburu ortan; baiñan begizale orien bildur nintzan, otoitz bikaiñ ori kaxkareraziko ote nien. S. Agustin aundiarenean ikasi nun, «nere oroipenean bezain ongi ez dut iñon ikusten lainkoa», ez begiz bezala, ez belarriz bezala. Zenbaiti iduri zaie lainkoa alde guzietan ikusten dutela, luze-zabalak litun gisan. Neurri eziña dala, zeruen zeruetan kokatzen ez dala entzutean, iduripenak engañatzen ditu. lainkoa ez dago luze zabalean; ez da neurri eziña neurtzez ezin buka ditekkelako; neurtzen asi ez gaitzekelako da. Neri S. Agustiñ'ek on aundia egin zidan. Zoaz aurrera.

El.— lakiña, oroitze ori ere —arek— ikusiaren, entzunaren, ukituaren, usmatuaren, naiz atsegiñaren berritze bat bezala da zenttu bakoitz orien

idurimenean; baiñan emen entzunera io dezagun, ots, siñeskizunak dionera batez ere Kristoren itzera.

Geronezko argitasunak ere esaten digu lainkoa ba-dala, ta egi au ondorioka arkitu dugu; baiña lainkoaz oroitze bakoitzean ez ditugo berritzen argibide oriek bakoizka; geurok iritxi ditugun egi orietan, siñesten bezala dugu. Gizon iakintsuak maite du, bai, atzidun egi ua zer bidez arkitu dun zearo ikustea; baiñan egi bakoitzaz baliatzeko bide guzi oriek erabili bear ba'litu, nekagarri litzaioke. Maiteago du, labur oroitzuz, aurrera egitea; baita ere, arkitu dun egia soil soil gogo-ematea, ondoriorik atera gabe.

N.— Ortaz, gure siñesterik ez dun norbaitek ere, lainkoaren berri ukan ezkeru, otoitz bikaiñori egin dezake? —nik.

El.— Ez ain luzaro —arek—, eta ez siñeskizunak irakatsiaz baliatuz bezain ongi. Siñestuna ere ezin dagoke ordu ta ordu otoitzaldi ortan, lainkoaren laguntza bereizia gabe.

N.— Nola egon luzaro —nik— geuron indarrez eta alegiñez?

El.— Ederki diozu geuron indarrez eta alegiñez. Au adieraziko dizut alik argien eta garbien, gizonak ez baitezake ortik aurrera ezer erakutsi. lainkoaren ixurizko otoitz bikaiñ ori, Berak irakasten digu, eta ez daukagu ezer egiterik geurok geuren indarrez iritxi nai dugunean. Antola batzuk egin, bai, Berak eman nai ba'ligu.

N.— Eta zer antola dira oriek? —nik—.

El.— Eta, Siñesteak lainkoaz esaten digunau oroitzea, ots, lainkoa ba-dala, ta berekin gauzka-la bion artean tarterik edo bitarterik gabe. Au soil soilik gogoemanetz, lainko onengana maitaro egotea da otoitz bikaiñez ortara irixteko bidea.

N.— Zer alde dago otoitz onen eta bikaiñen orren artean? —nik—.

El.— Eta, ez dakigula. Bi orien muga non dagon sekulan ez dugu iakingo. Geroago mintza gaitzke ortaz. Ba dira zenbait, ordu bete, bi, iru, lau, atertu gabe, lainkoa oroitze soil maitetsu ortan egon oi diranak.

N.— Begizale oriek nekez siñestuko dute, ortan lau ordu atertu gabe egon ezkeru otoitz bikaiñena ez danik; baiña grazi ori dutenen artean otean daudenak ere ba-ditugu.

[...]

N.— Ortan eta orrela ezer egin gabe egotea?  
—nik—.

El.— Iainkoa maitatzen atertu gabe egotea ezer egin gabe egotea al da?

N.— Alperkeri dala ere asmatu baitzuten —nik—; baiñan esan nai nukena, ezer eskatu gabe, ez Elizaz, ez lagun urkoa etaz axolatu gabe egotea. Ira kurria bainago bat edo batenean, eskaria ez dala otoitza, edo otoitza ez dala eskaria.

El.— Iainkoaren itza bestera dago —arek—; «eska, bila, io atea» dio launak Ebangelioan. Eta londoni Paul'en agoz: «Zuen otoitz eta arren guzietan, eskerrak eman ez, adierazi izkiozute lainkoari zuen bearkizunak». Otoitza, berez, eskari da, ta ez alde batera uztekoa; baiñan otoitzaldi bikaiñ ortaz landa ere egin diteke. Orrek ere ez du galerazten Iainkoaz maitaro oroitze ori, eta aurren-berrian galarazi ba'leza, utzi Iainkoari gure kezka. Guk naia Arenarekin bat egiñerazten baldin ba'dugu, agoa zabal dezagun baiño len, Berak emango digu. Zer esan Iainkoa sutuki maite ba dugu?

N.— Atertu gabe lainkoa gogoratzuz eta maitatzuz egotea, esaten errexat da; lainkoazko egi bat buruan iraultzea ta aren inguruan ondoriokaiar dutea baiñon errexago esan diteke alde batera; ontan sorraldiak izan oi baitira, egi batetik bestera goazala; baiñan ori ere gauza zaila dala diote.

## **BEGIA ASPERTU**

El.— Sekulan ikusi ez dugun gauza bat beti gogoratzen egotea zailago da gaiñera. Ikusi naiz entzun, naiz beste zentzueri dagokiena esaten dizut. Zentzu bakoitza, berari dagokion zerkiari edo zergauzari luzaro erne egon ezkeru, nekatzuz eta aspertzuz da. lainkoa begiz bezala ikusi nai luketen oriek buru-auste gogorra derabilte askotan. lainkoa Bera begiz bezala agertzen zai-gunean —otoitz bikaiñaren ondorioa besterik ez da ori; ez, otoitza bera— luzaroago gaudeke esnaialdi ortan, geuron alegiñez gaudenean baiño. Zentzuen edo zentzu-antzekoen batere sumarik gabe oroitze utsak, ilunago dan arren,

geiago irauten dugu. Areopagita'k ederki ziona, «lainkoaren ilunpean sartu» bearra daukagu zen tzu ta antzeko guzietaz gaindi.

Eman dezagun, esan zunan, adiskide batekin mintzo gerala, beste adiskide batengaz, ua urruti dagonean. Aren aurpegia askotan etorriko zaigu idurimenera, edo bein edo bein bai, tarteka; baiñan artaz luzaro ari bagera, iduripen ori askotan atertuko zaigu ta oso itzali ere idurimeneren begitik. Ala ere adiskide ua gogoan daukagu aterraldirik gabe. Ortaz, gizaki batengaz luzaro oroitzeko ere, aren aurpegia beti idurimenean idukitzea zail ba'zaigu ta orrek kalte egiten ba'digu, ta ilunago antzean idukitzeak on, zenbat areago lainkoarekin luzaro egoteko! Geuron alegiñez ba-gaudeke gutxi edo asko oroitaldi ortan; baiña lainkoak eragiñez askoz luzaroago.

**BELARRIA ASPERTU.** Belarriak berez geiago irauten du —arek— bere entzungauzari erne egoten; baiñan entzumena ere aspertzen ola luzaro iardunean. Ikusgarri begi-mingarriak badiaran bezala, soiñu nekagarriak ere badiara. Ta soiñua atsegiña izan arren, lena berriz entzuteak luzaroan aspertu egiten du. Baso batean zugatz-

orrien urrunga, naiz itsas-ertzean ugiñen burrunba, atsegin zaigu, ta ordu ta ordu egon oi gera artan aspertu gabe; baiña gure aultasunez, soiñu atsegingarri oriek ere elo-argarri gerta ditezke.

N.— Zerk egiten du —esan nionan— kristau zintzo bat otoitz bikain ortan sartu-berri artan oinbeste kezkatzea: xor ote nago? erdi-loan ote nago?

El.— Ain zuzen —arek— begizale edo begitar diran oieri geiago gertatu oi zaie ori. Iainkoa begiz bezala atzi nai lukete atertu gabe, ta ala bezala atzematen ez dutenean, Iainkoari xor dagozkiola dirudie. Oroitzea ez da begi-oroitzea utsa. Iakin bear lukete, Iainkoa entzun bezala ere egin ditekela, eta ortara, berez neke gutxiago luke, besteak beste dirala, ta batez ere Iainkoaren erabakia. Belarritar oriek ederki baliatu oi dira beren ixiltasunean ari dirala, beren arnasaz beraz ere —musikaren lagungarri litzan gisan— Iainkoaz oroitze ori ez galtzeko; baitakite Iainkoa gabe arnasik ere atera ez dezakegula.

N.— Baiña —nik— or datozkigu zenbait irakasle, gure lainko-oroitze ori zentzuz naiz idurimenez lagundua dalarik, ez dala otoitz bikaiñaren edo garbiaren oroitze ori.

El.— Zergatik ez? —arek—. Gizona ezin al dagoke erne edo adi bi gauzetara batean? Egon gaitzezke zerbait ikusiz naiz entzunez, eta era be rean, lainkoa maitaro gogoratzuz. Ez daukagu idurimenearen zantzu oro galdu bearrik oroitze maite ortarako.

Geniona zentzuak oro aspertzen zaizkigu. Gozo batek ere, geiegi ianez, iguintzen gaitu; usai bikaiña dagon toki batera sartzean ere, an luzaro egotearekin aurrenberriko atsegiñ ua galtzen dugu. Beraz, luzaro erne gaudeken gauzetan ere ernetasun ori galtzen ba'dugu, zenbat areago lainko-oroitze ortan! Siñestez oroitze soil ori dugu oberenik otoitz bikaiñ ortan luzaro egoteko. Eta siñeste ori belarriz sartu zaigu, au esaten digula: «Berekin nauka lainko maiteak, eta gogoan daukat maitaro.



## DABID BEGITAR?

N.— Ala ere —nik— Dabid irakurtzen ba'dugu, lainkoa Bera begidun egin ez ezen, Ua bere begiz ikusi nai dula esan genezake ainbeste ta ainbeste Salmutan. San Paul'ek berriz, zeruan begiz begi ikusiko dugula. Beraz, zertako ez baliatu mundu ontan begietaz lainkoa ikusiz bezala atzemateko? esango digute begitar oriek.

El.— Al ditekela —arek— zentzu guzietaz balia bear dugu lainkoa ezagutzeko edo Aren berri zerbait artzeko: «zentzu guziz maita ezazu». Egia, baiñan orain ari dugun otoitz edo iarduera bikain ontarako, ez dira aski animaren begi bezalako oriek; askiago belarriaren oriek.

Gaiñera, —arek— Dabid ain begitar dala, aski belarritar dugu. Bai S Paul ere. Salmu orietan asko ta askotan lainkoa belarridun egiten du, ta guk ere belarriz atzi dezakegula adierazten du: «nere belarriari poz eta alaitasun emango diozu, ta nere ezur eroriak pozez dardaratuko dira» Londoni Paul'ek berriz: «mintza nadin —dio— ikuskari ta gorde-agerkari aundietaz». Zer ikusi zun, ordea? Audivi arcana verba: itz gorde batzuk

entzun nitun. Zer ikusi zun esaten asita entzune-  
ra io zun.

Azkenik, —arek— lainkoaren Semearen izen bereizia VERBUM dugu, ITZA, ta entzutea belarriari dagokio. Sunamita'k ere mintzoa nai zun entzun: «Mintza zakie nere belarrieri» eta arrazoi bitxi bat ematen du: «zure aurpegia ederra baiña». Aurpegi baten edertasuna begiz ageri zaigu; baiñan aurpegi ederrari mintzoak eman oi dio bizitasun; bestela motel gelditzen dira aurpegirik ederrenak ere. «Gizasemeetan ederrena zu aurpegiz» dio Dabidek, baiña zer eratzikitzen du bereala? «Zoramena darizu ezpaiñetatik», ots, mintzotik.

N.— Ordun esan nionan: Zuk entzuna duzu Tabor mendian Aren mintzoa. Nolakoa zan?

El.— Zerukoa —arek—. Nik besterik ezin esan, zerua ikusi ez dutala ere.

Otoitz bikaiñ oni gagozkiola, belarritar dirarentzat zerbait esatea egoki zan —arek oraino— eta, au esanik, itzali egin zitzaidan beste egun batera arte.

D.— Ikusten! Gauza zailak eta goitarrak ditzik oriek.

N.— Zailak, bai; nerau ere bildur natxin, irakurleeri astunegi gertatuko ote nakien. Elizkoi diran emakumeeek bederen irakurriko alzetunate.

## VII

# NOIZ GAUDE ERNAI, NOIZ SOGOR?

*Noiz gaude ernai, noiz sogor? —Ernai egotez baitaratzea. —Iduri-zentzu bakoitzari dagokion oroitzea.*

N.— Biaramonean paperean ipiñi nitunan Elias'ek esanak, alde aldera zirriborrotan; baiña biaramonagoan garbitan. Sartu natxin gaez lotara, ta etziramonagoan, goizeko bostetan, San Salvador'en eta emen argi-xirrinta zala, ikus non agerzen zaidan berriro lainkozko gizon ori.

Nondik orren goiz? —nik—

El.— Eta, Erroma'ko londone Petiri'n oraintxe entzun dut Meza nagusia.

N.— Egal-ontzia baiño usuago etorri zera, —nik—; nola diteke ori?

El.— Oso errex —arek—. Aingeruak andik onara etortzeko gogoak ematea besterik ez du. Orrentzat ez da bitarterik ez lurrean, ez izarre-

tan. Eta eramatez, lur biribila beatz-muturrean eramán lezake.

N.— Bedi; baiñan eguratsean zatozela nola etzaitu erretzen ziztu orrekin aizeak? —nik.

El.— Eta, nere gorputzak pisu guzia galtzen du. Bidealdi ortan, nere buruari ere itzali egiten nakio eskurik eta zangorik eta gerririk ez nutren gisan; baiñan argi bezala biurtzen naiz. Esaten baitu londoni Paul'ek, lesukristok bere argi-gorputzaren antzeko biurtuko gaitula zeruan? Lurrean ere nolabait sumarazi dit ori.

N.— Obea zaude —nik—. Nere kaxkarrean... —nik—...

D.— (..... arrebak.....)

N.— Berez, galdegin nionan lengoan ederki adierazi baitzenidan otoitz bikain ori zer dan, ots, «berekin gauzkan lainkoa siñestez eta maitaro gogoratzen egotea», nola egon orrela, zeruan bezala, bakoitzaren alegiñez, beintzat?

El.— Ortarako —arek— gizonak eragaitz aundi bat dauka; ernai egon bearrean xorraldi edo sogorraldiak baititu. Ontan dago neke guzia, ta au adierazi nai nizuke. Otoitzean benaz artzen diran kristau zintzoek kezkarik aundiena au

dute, ta, albait, kezka ortatik ateratzen lagundu bear diezu.

Nola? —nik—

El.— Eta, ernai egotea zer dan adieraziz, edo beintzat, sogoraldi asko dirala iduritu utsezkoak. Askotan ez dakigu noiz gauden ernai, noiz sogor, ez baikera baitara edo konturatzen zeruan ari geran.

N.— Ateka beltzean sartu zera oraintxe, esan nionan.

D.— Baiki, mutikoa!

N.— Luze ioko du —nik— bigarren galdera aundira orduko, ots, lesukristo dugula laguntzailerik bikaiñena otoitz bikain ortan; baiña merezi du luzeago iarduteak. Mintza.

El.— Atertu gabe oroitzen egotea —arek—, ots, oroitu zer dan iakitea dugu lenik. Nolabait ikusi, entzun, ukitu, usmatu, aegozatu egindako gauza dugu oroitze ori. Oroitze ortan, geienez beintzat, idurimena sartzen da gutxi edo asko, gu baitaratzen ez bagera ere. Beraz, ba-dugu begi-oroitze, entzun-oroitze, uki-oroitze, usma-oroitze, atse-oroitze esan ditekena.

N.—. Banago, —nik—.

El.— Begi oroitze ori —arek— berez, edo gizonik geienetan biziago dalako, iduritzen zaie batzueri, begiz bezala oroitzen ez diranean, sogor dau dela. Ori dute kezka aundien eta, urbil, guzien oiñarri. Neri, beintzat, lainkoak ala egin naulako, edota grazi bereiziz dalako, entzunoroiketa ori aski zaida. Etzaida atertzen ere lainko-oroite ori otoitzean ari naizanean, soiñu edo ixiltasun ori entzunez. Esan nizuna, soiñu ori ez da otoitz bikaiña bera, baiña musikaren lagungarri bezala. lainkoa oroitarazten baldin ba'du, eta atergabe, ez al da ori otoitz bikaiña lurrean, oroitze ori maitetsua baldin ba'da?

N.— Ala nik uste, esan nionan.

El.— Gertatzen zaigu iñoiz —arek— gutxi eza-gutu dugun baten aurpegia etzaigula iduritara etortzen, eta deituago ta igesago esan diteke. Ala ere norbait ua gogoan daukagu, artaz oroitzen gera, naski, ta aren mintzoa ere entzun-iduri zaigu. Zer dio, gero ere, begi-iduri ori gal-tzea, entzun-iduriz edo bestez gogoratzen ba'dugu? Askotan gau za bat bizi daukagu oroime-nean, baiñan gauza izena galdu zaigu, izketan ari geran izkuntza artan. Ez daukagu azturik,

atertu gabe daukagu gogoan; eta, aren izena beste izkuntza batean etortzen zaigu mingame-ra edo zer esan nai genuen itz-inguru batzuekin alieraziz, au da, esaten digu, lagunak, izena bera ere burura guri ekarriz.

N.— Egia da —nik— izan ere.

El.— Beraz —arek— bego ongi ezarririk, begiduria naiz beste edozein, xor egonik ere, naiz oso itzalia, beste zentzu-iduriz norbait gogora dezakegula. Nik uste —arek oraino— gure oroitzerik irautetsuena belarriaren bidez datorrela, ots entzuketik. Illuntsuago dala? Laiñotsuago dala? Geienetan ba'diteke; baiñan askoz iraunkorrago, ta otoitzean ortara io bear dugu: lainkoaz iraunkiro oroitzero. Arengaz dakigun pixka ere belarriz sartu baitzaigu. Gizaki batek ez dezake beste batekin osotara barrena zabaldu, itzez belarrira, ta andik aren barnera nolabait sartu ezean. Iainkoa ere mintzatu egin zaigu Liburu Santuetan, eta belarri-bidez ezaguarazi zaigu obekienik. Beraz, ez da arritzeko entzundakotik gu lainkoaz luzaroago oroitzea. Begiratu utsik egin ba'ligu, ez genekike Aren berri mintzoz bezala. Ta bere adiskide gutxi batzueri begi-



ratzearekin, beste guziak nola leudeke Aren berri gabe? Gaiñera, belarriak ez dida barkatzen bere entzun-nai ortan; begiak, bai.

N.— Ba-dantzut, launa, —nik—.

El.— Alegia, —arek— lainkoaz oroitzeko (ortaz ari baikera) nere begiek etsi dutela itxirik ere, ezer ikusi gabe ta ezeri begiratzeko miñik gabe; belarriak ez, entzun gabe. Otoitzaldian obe omen da asi-aurre artan, begiak itxirik egotea; alaba Teresak ala dio; baita geroan eta azkenean ere, Augustiñek diagona; ezin arkitu baitugu lainkoa iñon gure oroimenean bezain ongi. Neri ere asko laguntzen dit begiak itxirik idukitzeak, alegiñak egitea eskatzen baitit orain-dio lainkoak, otoitzean sartzeko beintzat. Lainkoagan bildurik egoteko, neregan bildurik egotea ederki datorkit. Zentzu batek besteari galarazi egiten dio, eskuarki, baiñan, ez dionean, eta elkar artzen dutenean, ez da eragozpenik. Ekar-tzu iduritara Bolibi'ko zabaldi arrigarri ua.

N.— Artan nago, launa, —nik—.

El.— Ain goian dagolarik —arek— ez duzu entzuten txori-xintarik eta ezer. Belarriak an badu bere ixiltasun aundi ori, ta ez da sogortzen

lainkoagandik, begiak noranai zabalduz ere. Gainzelai guzi ua Bakartetxez beterik ba'lego, bai zerua!

N.— Bai, —nik—, len ere esanik daukat non-bait, Tebaida bera kaxkar utzi lezakela.

El.— Goazen orain —arek— ukituz oroitze ortara.

N.— Nai duzun bezala, —nik—.

Ukituak ere bere oroipidea ba-du, begi-belarriek duten antzera. Illuntsuagoa, laiñotsuagoa, nai ba'dugu, baiñan bere einekoa. Emazu neska bat, suilla buruan eta eskuiñean pertza, urketara doala. Ba-daki zertara doan; baiña topo egiten du mutil batekin. Ba-daude berriketan ordu laurden bat, erdi bat, olako pesta, alako txango, ta au ta beste iardunean irauliz. Bitarte guzi ortan neskaren begi-belarriak bestetara daude suilletik eta pertzetik; baiñan ukitua berera dauka. Neska orrek ez dio buruari eragingo suilla erori ez dakion, ez ta pertza eskutik utziko ere. Ta biek elkarrengandik aldegitean, eskua emateko ez du pertza erortzen utziko, edota eskuaren orde ez dio pertza luzatuko. Beste zentzuekin artara oarkabe zegola, ere, suillari ta pertzari

dagokion zentzuarekin, ukimenarekin, egon bear dunera dago. Ta eskua ematean, pertza bestera aldatuko du. Orra zer dan, zentzu batzuekin sogor egon arren, batekin ernai egotea. Egia, obe litzake zentzu guziak batera egotea, ta adimena ere aiekin; baiña batekin gaudela ere ez gaude xor, ez gaude lainkoa oroitzez aterturik. Gaiñera, zentzuak ez dezake atzi lainkoa; lagundu, bai, egiten dio adimenari, siñestez argitua dan adimenari —nondik eta, nola ezagun gabe— belarriaren bidez, batez ere.

Askotan ez dakigu —arek oraino— noiz gauden ernai, noiz gauden sogor. Gure animak —mistikuek ederki esan dutenez— axala ta barne-muiñ antza ba-ditu. Axalera askotan agertzen ez ba'zaigu ere, barren artan lainkoarekin gaude.

D.— Zer lasapidea!

N.— Jainkotar zintzoak naiago lukela zentzu guziz, almen guzi, bere izate osoz lainkoa laztantzea; baiña, danean dantxoa, nere gizontxoa, gure aita zanak esan oi zuna.

El.— Oarkabe gaudela —arek— gertatzen zaizkigu alako animaren gaiñezkaldi batzuk; ustez oarkabe, baiña berez ezin esan. Alaba

Teresa luzaro mintzo zaigu ortaz, eta bai nonbait zuen Loiola ere, arean, zenbait lainkozko biotzeragin, nondik eta nola datozen ezagun gabe gertatzen zaizkigula. Ustez, itxuraz esan bear da; ezbaitakigu egitan nondik eta nola diran. Geroago ortaz.

Dezagun —iarraitu zunan—, otoitzera doan bat. Adimena siñestearekin argituz, berekin gauzkan lainkoa bizi bizi laztantzen du asieratik. Adimena bestetara ioan ba'lekio ere, —zentzua beintzat— eskuetan ertsiki artzen du Gurutze Santua Liburu Santu, Errosario, naiz olako zer-bait. Beste zentzuak noranai doazala ere, ez al dauka ukimena lainkoari eldurik bezala? Askotan, gure naiaren indarra adierazteko, bi eskuak estutu oi ditugu. Neskak pertza baiñon ertsiago. Ez al dagoke orduan gure naimena lainkoarekin, adimena bestetara dabilan arren? Ori aski da, berez, sogor egon ez generala uste izateko. Ustez otoitzear xorraldi edo aterraldi aski dituteneztzat ez al dator au ongi, uki-oroitze ori lainkoarekin baitzeukaten? galdetu zidan.

N.— Naski, erantzun nionan.

D.— Ez duk gezurra, mutikoa!

N.— Andik urrena, agosapaiaren oroitzeari dagokiona aztertu zunan.

El.— Egizu —arek— lagun batekin luzaro ari zerala izketan. Goxoki zorro bat daukazu zeurekin, eta andik atereaz ian eta ari zera, aldiari lagunari ere eskeñiz. Zuen bion oroimena guzi, iardunean dagola uste al duzu? Ez; milixkaillu ua agoan urtzen zaizutenean, oarkabe (begi-belarrier oroitzearen oarkabe), sapaia beti oroituki ari di bere atsegiñez. Xor ba'lego, ez luke bere atsegiñik berrituko. Ta sapaia oroitze oartu gabe beste gaiñerako oroitzearen puska an ari da lagunarekin. Ori gertatzen zaigu lainkoarekin gaudela ere. Ez al da au lasapide aundia otoitzean gogoz ari diranentzat, baiña gogoz-beste oroitze pixka batek edo puska batek etxetik igesegiten diententzat?

N.— Egitan.

El.— Ez naiz alperrentzat ari. Egiñalak egir ezkerok, guk naita xortzen ez ba'gera, ez dugu kezkatu bearrik. Atsegiñetan gaudenean, ots, lainkoagandiko aogozoa esaten zaion pozaldi mota orren mende gaudenean, beste gaiñerako oroitze orren puxkak ere etxera bilduko zaizkigu.

Atsegiñ ori gorputz anima osoetara zabaltzen da, ta orrek dirauño, errezago baitaratzen gera lainkoarekin gaudela. Baiñan ez dago beti baitaratuz edo konturatuz egon bearrik, ala obe ba'da ere Bein gure naimena ekiñaldi bizkor batez bere asmoari lotzen ba zaio, ez da artatik lasatuko, alde besteko asmo bat artu arte.

Ba-zoaz Uitzitik Aralar'a, Aingeru aundiari agertu bat egitera. Lagunekin zoaz. Au ta ori ta bestea aipatuz, milla gauzaz mintzatuz, nora zoazen ere begi-belarrieri ta aiekiko idurimenari aztu zaie. Ia norbaitek Etxarri, edo Madoz aldera ioan keiñu egiten dun edo zuri egiñerazi nai dizun. «Ortik ez» esango diozu: Aralar'a goaz, eta oiñak ez dira bidetik baztartuko, begi belarriak alde banetara barreiatuz baldin ba'zoaz ere. Nora zoazeneko oroitze ori etzaizu aterten, baitaratzen ez ba'zera ere.

D.— Poliki adierazten yuk.

N.— Izan ere. Nik au eratxiki nunan: gertatzen zaigu iñoiz, ernai egon bear dugunetik beste nonbait egotea, oso xorturik bezala. Gogon daukat ikasle lagun bat; eskolan paper-txori ta olakoak egiten ari zan, bakartasun goxoan,

eta ustez xorturik zegolakoan, «zertan ari giñan?» maisuak galde, eta, ola ta ola arek zintzo erantzun. Are geiago: lezioa esateko agintzen ziotenean, eskuetan lapitz edo zerbait bear zunan beti, bere oroipena bilduarazteko. Maisuak «zaude geldi, utzazu ori eskutik» esaten ba'zion, galdurik gelditzen zan.

El.— Erne ta sogor egotea zer dan, misterio bezalako gauza da —esan zunan; Ori zer dan ez dakiguño —eta ez dugu beiñere iakingo— zintzoen artean kezka ba'diteke otoitzekoan. Baizik ere, sogortzen geran gutxi edo asko ori gure gogoaren kontra izan ezkeru, ez dagola asaldatu bearrik.

N.— Ontan, ez lesus eta ez amen, gizon ori ondotik itzali zitzaidanan. Nora ioan ote zan? Bear ba'da, Paris'ek bi millagarren urtea ospatzen baitu, an musika entzunaldi batekin belarrieri atsegin ematera. Ni, berriz, nere xokoan gelditu nintxinan, nere «musika ixilla», nere «ixiltasun mintxoa» entzun eta entzun.

**MAITARO OROITZEA**  
**(LEGORRALDI, XAMURRALDI,**  
**SIÑEST-ARGI)**

N.— Andik zenbait egunetara, gizon ori noiz etorriko zai nengola, bertan agertu zitzaidanan. Nondik etorri zera? —nik—.

El.— Eta, Begoña'ko karmeldarren Elizatik —arek—. An ba-ditut seme kutunak, eta atzo igandez an entzun nun Meza nagusia.

N.— Ni ere araxe ioan oi nintzan igandero —nik—, eta ba-dut Eliza artako oroipen goxorik, batez ere aste Santuetan eta Pazkoetan. Poliki kantatzen zuten. Oraintxe ari nintzan, bada, nere buruarekin, noiz etorriko zenkidan, eta zer galde egin bear nizun. Bigarren galde aundira baiño len, or duzu azkenekoa, ta orri erauntsirik datozkenak. Esazu, beraz; «Berekin gauzkan lainkoaz maitaro oroitzea». Nola ezagutu maitaro gaudela?

El.— Neke da, bai, —arek— ori bear bezala adierazten; baiña saiatuko naiz, lainkoaren laguntzarekin.



Oroitzeaz mintzo nintzaizula, esanik utzi nizun, naski, misterio antzeko gauza zala. Beste auez da batere errexago. Emen datoz ederki animaren axala ta barne-muiña esaten diotena. Barren ortatik axalera zerbait iario oi zaigunean, ezagutzen dugu ta baitaratzen gera; are geiago, xamurtasun ortan gorputza bera ere erdikide ba'litza; baiña legor gaudenean nola igarri? Emen dira lanak eta nekeak! Iainkoaz oroitze maite ortan, asiberrian, kristau zintzo askok ez dute arkitzen lenago guritasunik. Gure erlijioaren egiak iraultzen eta arrazoiketan oiturik ba'zeuden, ortan oso aldapa gora egiten zaie oroitze maite soil ortan geldi egotea. Legorraldi ortatik atera nairik, berriz lengora biurtu ba'litez, oraingo onek iges egiten die, ta lengoak nazka ematen. Berriro oroitze maite ortara itzultzen ba'dira, alperkeri bizian daudela iduri zaie. Or dira estualdiak! Eta animako guraso iakintsu bat arkitzen ez ba'dute, kezka gogorak sortzen zaizkie. Au da atekarik estuenetakoa Kristau-bizieran. Ederki diago nere seme Donibane'k: «Ikasi bezate olakoek Iainkoa ernai ta maitaro gogoratzen, eta ez bie axolik atsedean artan, iduripena-

ren ekiña gora bera. Onela atsedeten du animak arrazoiketa gabea. Eta noizean bein zerbait ari baldin ba'da, indar egiñez ez-baiña, arrazoika ez-baiña, ezarian ari da maitatzen, animaren egiñez baiño lainkoarenez eragiñago». Buruan ezer ezin irauli dunean, ikagu beza lainko-oroitze maitatsu ortan egoten, adimenari atsedeen emanez, ezer ari ez dala iduri bazaio ere. Askotan gure anima oroitze maite paketsu ortan egongo da, adimenaren nekerik gabe; askotan, berriz, arrazoiketak emeki ta ezarian lagundu bear dio oroitze maite orri, ortan atsedeteko. Bein ortara ezkeru, adimenak ez du lanik. Orduan, bai, esan diteke, bestek eragiñik goxoki ari dala, ta berezkoz ez dala ari. Baizik ere, oroipena lainkoagana maitaro daukala, zer-ikusit ta zer-suma egon ordez, bere burua lainkoari egotzi dezaiola, Berak besoetan eraman dezan». Au ez da alperkeria, ezda egote utsa. Lainkoa maitaro gogoratuz ari dana, arrazoiketa alde batera utzi ba'leza ere, ez dago egon utsean. Min sogor batek arturik gauzkanean, ezertako ez dagola iduri zaio gure buruari; baiña miñ artaz minki oroitzen da beintzat. Alaxe, lainko-miñ orrek arturik lainkoaz

minkioroitzen gera, ta miñ ori beste sendabiderik ez dugu, ots, lainkoa minki oroitze uts utsa beste sendabiderik. Bego arrazoiketa. Alper-uste ori bidegurutze ez-ezaguna da; bidez doanak ez baitio errez igerriko nondik artu: batetik, alperkeri goxora pasatzen ote dan; bestetik, anima geiegi zirikatuz, aspertuko ote dan; atzera egiñez beste bide bat artuko ote dun; edota lainkobidean ibiltzeari erabat utziko ote dion. Ernai ala sogor gauden askotan ez dakigula esan bainizun? berori gertatzen zaigu naimenaren eragiña sumatze ortan ere: alper gauden ala ari geron, ez dezaiokegu igerri ordu artan. Zenbait aldiz, bai, otoitz ondoan, sekulan baiño kemen geiago arkitzen dugu gerongan lainkoaren alde lan egiteko ta nekeak iasaiteko. Ortatik ageri zaigu, gure geldi-egon paketsu ua etzala alperrarena. lainkoak Berekin, gauzkala soil soillik oroitzen ari ba'giñan, zerbait on ari genun; eta maitaro baldin ba'geunden Arengana, gauzarik oberenean ari giñan.

Nai-izanaren, eragiña noiz eta non asten, noiz eta non bukatzen dan, biotzak ez du berririk. Muga orrek ez du zuiñik edo arrastorik, ez

mugarririk. Au da asi-berrian kezkarik aundiene-takoa. Ez du balio, berriz, ago-otoitz pixka bat egiteak, ez irakurtzeak, ez buruiraulketan iarduteak. Batzutan, bai, orregatik, ago-otoitz labur gori batek, «Gura Aita» emeki esanak, lainkoazko egi bat ezarian ezarian iraultzeak. Besteetan ez dago bidea arkitzerik. Dezagun gibel olakoe-tan, eta itxedon dezagun, lainkoaren laguntza noiz agertuko. Batez ere, ez geiegi zirikatu gure adimena, alperkerian bailegon. Kezka orren miña sumatzea bera, lainkoarekin maitaro ego-tea da. Suko autsaren azpian ba-daude txinar batzuk, ikatz bizi batzuk; aizemaka asten ba'ze-ra, aiek agertuz, surik ez duzu piztuko, bear ba'da, ta txinar aiek ere itzali egingo zaizkigu. Ezazu iraupen, bear baita, ez nolanaikoa!

Miñ orren sendabidez zenbaitek musikara iotzen. Belarriaren laguntza aundia dugu emen ere. Eliza batean zaudela? —Meza-Bezperetaz landa baldin ba'da, irauli etzazu bakartasunean, buruz, ainbeste ta ainbeste Elizkanta eder. Eka-ri etzazu berriro idurimenaren belarrira, astiro auznartuz. Emagun, aldareko gure launaren aurrean zaudela. Oroimena —batez ere begiare-

na— lainko-oroitze soil eta maitetsu orri ezin lotu ba'diozu, maiz aterezen ba'zaizu, berritu ezazu asi ta buka elizkizunik ederrenetako bat, esaterako Korpus egunekoa. Asi zaite bezperako ezki-lak entzutetik. Zer alaitasuna bein edo bein! Gero, oinperako lezkak eta belarrak dirala, alda-reetako arrosak dirala, Mezabezperak dirala, ordubete errez ioango zaizu gauza orriek astiro berrituz. Bear ba'da, animaren ago-sapaiean atsegin artzen asi zera.

N.— Baiña —nik— animaren begi-belarririk alde banatara ioaten ba'zaizkit? bakoitza bere auzora?

El.— Bedi —arek—. Animaren eta bear ba'da gorputzaren agosapaia lainkoarekin daukazu; sapaia ori zerorrena duzu; ortatik bederen lainkari loturik zaude; naimena Argan bete betean daukazu. Naiago zenukela zentzu guziekin, biotz osoarekin, adimen osoarekin lainkoa atzeman? lakiña! Baiña, danean dantxoia, nere gizontxoia. Etorriko zaizu noizbait pozaldia ere. Emango dituzu orduosoak eta ordu gozoak, oroipen maitetsu ori lainkoagandik atertzen etzaizula.

## POZALDI

El.— Pozaldietaz ere zerbait esan nai nizuke, labur bederen, —arek—, ez baitago luzaro mintzatu bearrik.

N.— Orfetan ere bai omen da arrixkurik aski —nik—.

El.— Iainkoagandik zuzen datozenean, ez; esker ona ta umiltasuna baitakarte berekin. Geuron alegiñez ekarriak ba'ditugu, arrixkua dute, Iainkoa orde z geuren burua maitaraziko baitigute. Zenbait aldiz deabruak ere ekarriko ditigu; baiñan auek ezagutzen ez da oso zail ere; txalapartan etortzen baitira, ez pake betean Iainkoarenak bezala, ta gerora, ta aski laister, beroiek legortzen digute barrena.

Malkoetaz, berriz, zer esan? Iainkoagandik baldin ba'dira, ez dago arrixkurik.

N.— Nola ezagutu? —nik—.

El.— Eta, oroi gaitezen —arek— bizi bizi oroi-tu ere, Berekin gauzkan Iainkoaz, eta atertuko dira. Ezean, geuron alegiñak naiz deabruak ekarriak dirake. Ernai oriekin! geure burua maitara-

ziko baitigute lainkoa ordez. Ba-dira or bazarre-  
tan artista esaten zaien —edo berak beren  
burueri ala esaten dien gizon batzuk—; oriek  
malkoekin beren burua maitatzen eta iainkotzen  
dute; besterik baiño geiago dirala dirudite. Antz  
antzeko dira otoitzean beren burua billatzen  
duten oriek: santu porrot egiñak, batzuk eta bes-  
teak ere. Deabruaren bidez datozen malkoak  
ixtillu aundiegia dakarte, ta atertzen diranean,  
barrena uts utsik uzten digute.

Iainkoaren doai diranean ere, ugari xamar  
baldin ba'datoz, ez dira, aietan ordu asko iraute-  
ko, gorputza beartzen baitute. Auzi guzia auxe  
dugu: Iainkoa maitaro oroituz alik luzaroen ego-  
tea. Ontarako obe dugu, gorputzeraiño iariotzen  
ez dan pozgiro legun bat, siñestearen argitasu-  
nak dakarrena. Orrekin iraun ditezke iru ta lau  
ordu ere, dak-izun bezala. Au adierazi bear diezu  
ongi kristau zintzoeri.

N.— Nola? —nik—.

El.— Eta, ba-duzute —arek— maisu bikaiña.  
Ontan ez da zuen Loiola aiñako maisurik.

N.— Non mintzo da orretaz? —nik—.

El.— Eta, iru pozaldi mota aiek adieraztean: «Poza diot, azkenik, siñeste, itxarote maitatzeak ugaritzen eta indartzen dituna; zeru-gauzetara ta animaren osasunera erakartzen dun barneko alaitasuna; arek geldierazten eta pakearazten baitu anima bere Egile ta lainkoagan». Izan ere, zer nai dugu aundiagorik? lainkoazko iru on-griña oriek ugaritzea ta indartzea! Zer da besterik santutasuna? Iru iturri oietatik datoz beste doaiak oro, Loiola'k Borja'ri kartaz adierazi ziona: «siñeste itxaropen maitasuneri emaiezu esker beste edozeri baiño geiago ta oietatik datozen doai txit santueri». Orra or guzia esanik; orra or zuzen zuzena iturburua erakutsi. Egarrizaudenean bazoaz iturri batera; an ere etzera ari beti edan eta edan, aspertuko baitziñake. Aski edan ondoren, eseritzen zera, goxo itxedonez, ingurueri begira, naiz ur-xirrixtak egiten dun zurrumurrua entzunez. Ur garbi ori fedearekin alderatu zun gure launak Berak Ebangelioan: «Ni siñesten naunari, bere sabeletik zeruraiño iauzi egiten dun iturri bizia sortuko zaio». Eta: «nere uretik edaten duna ez da geiago egarrituko». Nola egarritu iturburua bere barrenean dauka-



na? «Pestaburu azken-egun aundian au ziagon lesusek oiuka: Ni siñesten naunari, sabeletik zeruraiñoiko ur-bizi iturria sortuko zaio. Ua siñesteagatik artuko zuten Gogo Gurenarengaz esan zien». Siñeste argitsu ori azkarrerazi! Ortatik datorren pozak ederki asetzen du, ta ez du beinere aspertzen. Nola iraun nik ere —esan zunan— oinbeste ordu, egun eta urte, eta nekerik gabe?

N.— Orrela bizi zaitezke —nik—, mundu ontan oin luzaro egon bear eta ere. Au nik esatean, itzali egin zinan nere begietatik, eta siñistearen argi biguin orren irrikaz utzi nindunan.

# VIII

## QUIETISTA'EN AUZIA ETA

N.— Biaramonean berri on batek io nindunan: egunero, goizeko lauretan ba-nula gurdi ariña Mezara ioateko.

D.— Ez al da goizegi?

N.— Orduko naiko lo egiñik niagon, gaueko zortziretan etziten bainaiz. Zortzi ordu eder lotarako, ta bazkalondoan ere beste ordubete. Lau kilometro zeudin aldapa gora. Onontzakoan oiñez etorriko nintzala, bada, eguzkia iekitzen ikusiz; aldapa bera ikatz zakua ere iuan baititeke, gurean esan oi dana.

Bosko'tarren Ikastetxe bat zegon mendi galdor batean, zoragarri itsaso legorretara begibitarte zabalarekin. Espuru ez ezen, Zotzune baiño garaiago ageri yun bekokia; ni bizi naizaneko zokoa baiñon argiago. Zer Tabor mendi liluragarria! Lenengo Meza entzunik, ba-nentorrenan etxera, beiak ietzi ordurako. Errege-bidera atera nintzaneko, mintzo bat nere eskuiñean, —

ez bainun iñor ikusten— mintzo ezaguna: gure lainkozko gizonarena.

El.— Egun on lainkoak.

N.— Bai zuri ere.

El.— loaki?

N.— Bai, launa, bai —nik—. Zu ere ibilki?

El.— Bai ni ere —arek—. Pausoa lasai ematen duzu, esan zidan, eta nik: Oraintxe ari nintzan nere buruarekin Dabid'en ua iraultzen: «Oinpean bidea zabaldu didazu, ta nere orpoak ez dira koloka».

El.— Esan liteke; aurpegira ere lasaitasuna baitarizu.

N.— Ez zan goizegi! Ibili ditut maiz aski bidexka estuak, alde batera amiltokia dutala. Bide extuak oin-urratsa ere extua eskatzen du; zangoak kaketzen dira, oiñak kizkurtzen, larru azala zilborrerantza biltzen, gorputz osoan erorikara sortzen da. Baiñan azpiko bidexka zabaltzen dan bezain laister, batez ere oiñek bide lasaia atzematen dutenean, zangoak luzatu egiten dira, lengo kakotasuna utzirik, urratsa ere zabalago arkitzen, eta bular-inguruan alako lasaitasun bat sumatzen da, esan baititeke bide ua lainkoaren

bidea dala: bidea bera oinpean zabaltzen zaigula.

El.— Ederki auznartu dituzu Dabid'en itzoriek.

N.— Alakoak baitira! —nik—. Oraintxe belau-nak etzaizkit aultzen, oiñak ez kolokatzen, ez naiz irrixtatzen aldapa labainean bezala. Iainkoak egin ditan mesede berri onen ondorioa. Ez nengon aisa! Nere lan au bukatzean nora io ote-dezaket? —ari nintzan— eta, orain ez daukat ezeren kezkarik. Beti kolko-zimur ni Iainkoarekin, beti lasa-gaitz. Etorri zaida zabal-garaia ere.

Eta zu, esan nionan, nondik eldu zakigu?

El.— Tabor menditik —arek—, an egoten bainaz eskuarki.

N.— Nik ere maiz dut gogoan mendi eder ua, begiz ikusi ezik ere. Gure errian ikusi baininduzun lenbizikoz? Muño ua nun lenago Tabor Txiki; orain Ayagualo au aundiagoa. Egiatzko Tabor pozik ikusi nezake. Noizbait sosik bildu ba'neza, ara agertu bat egiteko asmoetan nago, Oliamendi ta Golgota aztu gabe. Zu noiznai eramaten zaitu Aingeruak. Esazu —nik oraino— zeintzuk mendi dituzu maiteenik?

El.— Golgota'rekin Tabor —arek— eta gero Horeb edo Sinai, ta Karmel-gain.

N.— Zergatik Horeb eta Karmelgain? Horeb'en asi bainintzan lainkoa zerbatit sumatzen. Karmel mendi, berriz, otoitzean aurrera ari nintzala neri gerta-gauzetaz oroipen atsegiñak baititut.

N.— Ederki nekatuko zinan —nik— berrogei gau egun aietako txango artan, sutopil eta ur utsarekin! Bearrik bi loaldi aundi ian aurrean eta ondorean! Bidean ere etzingo zinan an emenka, loaldi ederrak egiñez.

El.— Bearko. Artean ez bainan Aingerurik, iasoka eraman nindezan.

N.— Mendi ori ere ikusi nai nuke, an itzegin baitzion lainkoak Moise'ri, an zuri ta ainbeste bakar zaleri. Bidez usu xamar nindoanan eta, «bizkor zoaz» esan zidan gure gizonak, «oraindik sasoi onean zaude».

N.— Ala diote —nik-; baiña zuk askoz gazte itxura ohea daukazu. Lengoetan ikusi zindutanean etzenun beintzat belarri ertzetan ille latzik ageri. Gizon illezu izanak etzaitu berez batere gatzetzen; bainan aurpegia legun daukazu,

begiak azal, esku-zaiñak etzaizkizu nabarmen-tzen. Bizitxo noa bidean, beiak iezen asi ordura-ko etxean egon nai bainuke. Eguzkia agertzean asi zinan, eta «zenbat eguzki ikusi dituzu onez-kerok ateratzen» —nik—. Bideko zugatz eta mendi ta muñoetaz mintzo, iritxi gatxin etxera. Zaude, esan nionan, gure baratzen, guk beiak ietzi ta nik gosaldu arteo. Ba dauzkazu or naran-ja ederrik. Zugatzera igotzen etzaizu neke, nerau ere igotzen bainaiz bertatik iateko. Orrela, bada, nere lana egin ondoren, gosaria artu yunat: limoi bat, naranja bat, eta talo esneak eztiarekin. Gosaria bukatu, ateratzen naun edo sartzen naun baratzera. Ordun agertu zitzai-danan gorputz eta guzi, txoko artan ez baita iñor ibiltzen ikusi lezakenik. Asi gatxin, bada, izketan gure txoritokian.

N.— Ordu da noizbait ere —nik— zuri biga-rren galdera aundia egin dezaizudan. Iesukristo nola zaigu argi otoitzaldian? eragozpen zaigula ere asmatu baitzuten egonzale alper edo quietis-ta aiek?

El.— Ebangelio'tik —arek— au dakigu: «iñor ez doa aitagana, ni bide ez ba'nau». Ta beste ua:

«Pilipe, Ni ikusten naunak Aita ere ikusten du». Otoitz bikaiñean Aita dugu azken-muga. Ederki zuen Loiola'k zurubi egiñez, Ama otoizten du lenik Semearekin bitarteko; Semea urrenik Aitarekin bitarteko bakarra, «unus mediator»; Aitak ez dio iñori erregutzen, San Agustiñ'ek diona. Nola asmatu zuten, bada, Aitagana bide ortan Kristoren, Gizatasuna eragozpen zitzaigula?

Auzi au gaizki ezarria da, ta ezin ondo garbitu. Lenbizi artan, ori burura zitzaionak etzun ori esan nai izan; gero etorri ziranak okertu zuten aren aburua. Aurrenik, au buruan artu ongi: gizatasuna bat dala ta giza-eite edo itxura besterik dala. Lenengo gizagaxo arek esan nai zuna au da: edozein aurpegi, eite edo itxura idurimena- ren nekagarri zaigula, norbaitetaz luzaro oroi- tzen egoteko. Edozeiñi gertatzen zaio. Gogoe- mazu ama bat: semea gudara eraman diote, ta bear ba'da, an, il zaio. Ama orrek bere semea gogoan dauka ordu oro ta une oro, egun eta gau, loa galtzen dun guzian. Iduri al zaizu ama orrek bere semearen aurpegia ordu oro ta une oro begi-oroiz gogoratzen dula? Askotan atertzen eta itzaltzen zaio semearen aurpegia. Ala ere,

nork esan semeaz une oro oroitzen ez danik? Artaz oroitzen egotea ez da begiz bezala gogorazten egotea. Ezin ditekena ere da; burutik egiteko litzake, nekearen nekez. Nai ta ere, semearen oroipena ezin aterrerazi du emazte arek, idurimenean aurpegia itzali ba lekio ere. Biotzean alako azta edo pisu bat, min sogor bat, esan oi dugunez naigabe bat sortzen zaio, ta arek dauka mendean, ukitu bezalako baten bidez. Semearengaz eman zioten berri txarra belarrietan berritzen du, ta itz aiek berritzen ez ba'ditu ere, aien oiartzuna datorkio; edota oiartzun ori itzali-rik ere, ondoren ixiltasun naigabezko ua gelditzen zaio. Entzun-oroitzea bera galdu ba'leza ere, biotz-ukituaren oroitzea gelditzen zaio. Nork esan, beraz, biozmin ori daukan bitartean semeaz oroitzen ari ez danik edo oroipena atertzen zaionik? Begi-oroiz eta belarri-oroiz ez ba'da ere, uki-oroiz semearekin dago, arengatik negar egiten eta ua maitatzen. Beraz, quietista'en aurreko arek au esan nai izan zun: norbaitetaz oroitzen luzaro egoteko, aren aurpegia begi-oroimenean idukitzeak galarazi egiten dula;



ez Kristorenak Kristorena dalako. Gure idurime-  
na zaigu kalte emen; besterik ez.

Aurpegia ta eitea bat dirala esan, dizut, eta  
Gizatasuna besterik dala. Ez al dago Kristoren  
Gizatasuna aldarean giza-itxurarik gabe? Zer  
kalte egin dezaioke orrek gure idurimenari?  
Gizon batetaz oroitzeko aren aurpegia ikusi bea-  
rra al daukagu naiz begiz naiz begi-iduriz? Ni  
begiz ez ikusiak galarazi al dizu nerekin iarduna,  
bide ortan gentozela?

N.— Zuri begira enaiz asko nekatu beñipein.  
Ez neukan burua itzuli bearrik eta lepoa nekatze-  
rik.

El.— Apostolueri aldegin ziela —arek— zeru-  
ra igo zanean? Aren itxurak bai, Gizatasunak  
osotara ez; an baitzeukaten nai zutenean saga-  
rako itzen bidez. Beraz, bego ondo ezarririk,  
Gizatasuna ez ditekela eragozpen; Kristorena. Ez  
guretzat ere, ikusi dugunontzat; ezago zuentzat,  
ikusi ez duzutenontzat.

N.— Eta nik; zergatik dio alaba Teresak otoi-  
tzean aurreratueri gertatzen omen zaiela era-  
gozpen ori, edo ala diotela beintzat?

El.— Asi-berrieri bai —arek— oker uste baitute, Kristoz oroitzea ta Aren aurpegiz oroitzea bat dirala. Aurreratueri etzaie olakorik gertatzen; ez beintzat otoitz bikaiñera iritxi diraneri. Au ikusi, ori ikusi, au iduritu, bestea iduritu, zernai pasa ditela aien begien aurretik eta zentzuen aurretik, naiz idurimenetik, aiek lainkoaz maitaro oroitzen ari dira.

N.— Ederki adierazi didazu, iauna, —nik—.

D.— Bai, mutil, guri etzaizkiguk beintzat —oin garbi mintzatu.

N.— Aurrera, iauna, esan nionan; eragozpen ez dala argiratu didazun bezala, otoitzaldian Iesukristoren Gizatasuna laguntza zaigula tipildu bear didazu.

## **LOIOLA MAISUEN MAISU**

El.— Iesukristoren itzekin berekin aski bear genuke —arek-; baiña nai zenukena au da, otoitzean nola moldatuko geran, laguntza ortaz baliatzeko.

N.— Ori da ain zuzen —nik—.

El.— Ontan zuen Loiola da maisuen maisu. Berekin artzen ditu, eta gaiñagotik, loanes eta Teresa, bere bi gertaerazte esan dezaikegun oiekin.

N.— Ba-dantzut, iauna.

El.— Tokia moldatzea edo gertaraa berritzea esan oi zitzaion ua baiño lenagotik. Arek Kartusiano'rengandik ikasi zun; baiña bere antzera taiutu.

N.— Toki onean sartu zakigu! —nik—. Ez al dakizu nola ieki zaizkion gertaberritze ori dalata?

El.— Buruan, ongi artu ez dutelako —arek—. Goazen astiro. Otoitz bikaiñenaren izate guzia ontan dago: «berekin gauzkan lainkoa siñestez eta maitaro gogoratzen». Ez dugu arrazoiketan burua nekatu bear eta iduriketan ere ez. Ageri ez dan lainkoa siñestez gogora dezakegu idurime-naren nekerik bage —lainkoak ez baitu iduririk—. ; ortan luzaro irauten lanak, geron alegiñez beintzat. Agertu zaigun lainkoa, lainko-Gizon lesukristo (lainko Berbera zer-izanez eta Norizanez, baiña gorputz animaz gizon), neke pixka dugu asieran atergabe gogoratzen, biziro ta

zearo iduritara nai ba'dugu, beintzat, begi-oroiz. Baiñan, esana dutanez, iduripen ori itzaliko zaigu, otoitzaldi luzean, eta etzaigu eragozpen izango lainko-gizon dan, lainko artaz maitaro oroitzen egoteko. Izan ere gizon danez nortasunik ez du; nortasun ori lainkoaren bigarrena du, eta Florentiko Eliz-batzarreak erabaki zunez, Aita Semeagan dago osorik eta Gogo Gurena Semeagan dago osorik. Orobat esan beste Nortzuetaz. «Aita ta Ni bat gera», esan zigun Berak. lainko danez eta nortasunez, nonai dago, orotan dago. Egia da Gizon orrengan lainko osoa bete betean dagola «*omnis plenitudo divinitatis*»; ez dula gaiñez egiten, esateko moduan; baiña beste aldera, gaiñez egiten bezala du, eta Eukaristia gure barnean ez daukagula ere, Aren Nor-izana gugan daukagu, edo obeki esan, berekin gauzka. Beraz, Bigarren Persona orrengana ongi irixten ba'gera, Aitagana iritxirik gaude. Eta Aitarengaz baiño Semearengaz asko geiago entzunik gaudelako, Ebangelio ta abar, Semearen bidez Aitagana sartzan errezago zaigu, idurimen txatxu au baztarran, uzten ba'dugu.

Noan orain bi *gertarazte* oriek adieraztera. Ageri ez dan lainko ori ez da gerta-gauza; baiña guk nolabait gerongan gertarazten dugula esan diteke, barrenez barren gauzkala oroitzean. lainko izkutu ori guk gure oroimenean gertaraztea ipintzen du Loiolak otoitzaldian eginkizunik beinena. «Otoi-lekua baiño bi edo iru urrats lenago, Pater noster esaten aiña denboraz, iaso dezagun gure ezagumena, lainkoa begira daukagula oroituz, eta auspez iauretsi dezagun». Gertarazte au beinere ez dala utzi bear dio egin gabe; egin dedila beti. Iakiña, otoitzaldi osoan atertu gabe, albait; bestela gaizki-azi batzuk giñake lainkoa agoan itzarekin saietsean utziko ba'genu. Otoizgaia irauli gabe ere ordu osoan orrela egotea — maitaro alegia— zer otoitz oberik? Berak ere ola dio Loiolak: «egon bere artan, atsegin edo protxu zerbait arkitzen dutaño, aurrera-kezkarik gabe, ondo goxatu nadin arte».

Ez dute bear aiña bereizten —iesuitek ere— gertarazte au —ageri ez dan lainkoarena— ageri diran nortzuen gertarazte ortatik, naiz lesukristo, naiz beste Santu batzuk dirala. «*Composición de lugar visible e invisible*» esan zien bieri, eta

lenengo ori, irugarren oarkizun (tercera adición) ipiñi zigun. Bi gertarazte auek ongi iokatzean dago otoitz ixilaren izate guzia. Astiro ta luzaro adierazi bear diezu au.

N.— Esazu; iauna, —nik—.

## **IOANES GURUTZEKO, TERESA**

Ioanes Gurutzeko'k bere liburuetan bi noraldi ditula esan genezake: bata gizon iakintsuarena, Karmel mendira igoera ta Animaren gau illuna deritzanetan; bestea, berari zer gertatu zitzaion dionarena. Lenbiziko bi liburuetan, Areopagitaren eta Domingo'tar alemanen bidetik doa, ots, «ageri ez dan lainkoaz maitaro oroitze-ko, ageri diran gauza guziak ukatu bear dirala, ta gure oroimena aietaz guzietaz erantzi». Oso ederki; baiñan orrialde luze aietan guzietan bein bakarrik aipatzen du Kristo gure launa. Beste bi liburuetan, ots, «Animaren eta Kristo laztanaren artean maite-leloak» eta «Maite sugar bizia» deritzaienetan beste bidetik doa aldioro. Teresa'k bide bakarra du: «Kristoren Gizatasuna,

Beraren lainkotasunera irixteko». Agertu zitzai-  
gun Kristo'ren bidez, ageri ez dan lainkoagana;  
Kristo ortan, ageri etzaigun lainkotasunera, ta  
bide batez Aitagana.

Loiolak bi bide oriek batean artzen ditu. Ama-  
ren eta Semearen bidez Aitagana (bere betiko  
leloa), ta beti Iesukristorekin, Aren «itzalean  
bezala». Orregatik, bi gertarazte oiek (ageri ez  
dan Aitarena ta agertu zan Semearena) batera  
biurtzen ditu, batean iokarazten ditu. Otoitzal-  
dian Kristoren Gizatasuna (ez itxura) lainko  
bezala biurtzen zaio bere oroimenean. Gizatasun  
ori bere barnean gertarazte ortan, ikastunik obe-  
rena Teresa du Inaziok, zearo ikusiko dugunez.  
Loiolak kristau zintzoari bi giltz ematen ditio:  
lainko soila bere barnean gertaraztea ta Giza-  
lainko orren Gizatasuna bere barnean gertaraz-  
tea. Baiñan otoitz bikaiñera irixtean, bi giltz oriek  
bat egiten dute.

N.— Eta zuk —galdegin nionan—, Kristo  
Tabor'en ikusi ondoan, nola bateratzen dituzu bi  
gertarazte oriek?

El.— Eta, esan dizut len ere alde aldera: nik  
Tabor'en Kristo «zeru eder egiñik» ikusi nun

ezkero, Arekin asten dut otoitzaldia, iñoiz nere burua otoitzetik aterturik atzematen ba'dut. Iakiña, ordu osoetan ez dezake nere idurimenak bizi bizi iduki an ikusi zun Kristo Aren itxura; beraz, itzaltzen bezala zaio, urtzen bezala zaio. Nola esan nezake nik?

N.— Ba-nago —nik—.

Gizatasun ua aingeruki, obeki esan lainkoki uts eta garbi bezala biurtzen zaio nere idurimenari, ta neke ordeaz aringarri zaio; eragozpen ordeaz laguntza aundi. Ez argi, ez margo, ez mintzo, ixiltasun paketsuan, nere oroimenak ondasun bat, osasun bat gogoratzen du maitaro: gure betiko Osasuna.

N.— Ontan arrebak eskuak antxumatu zitun eta arnas aundi bat atera, lurrera begiratu. Eta Iesus! eratziki.

N.— Ixillaldi labur baten ondoren, ola iarraitu genu.

El.— Gaiñera, esan zunan, eta barkatu gauzak berritzea buruan obeki sar ditezen, Gizatasun ori aldarean itxurarik gabe dagola esan baitizut; beraz, norbaitek bere barnean laun ori egitan artzen dunean, giza-itxurarik ez du ikusten;



beraz gogoz artzen dunean ezin gertarazi itxura-  
rekin. Ba-dira ontatik otoizbide egokia artzen  
dutenak. Aldareko laun ori berengana deitzen  
dute, berengan gertarazten dute, ta orrela, idu-  
rimenaren neke gabe, lainko-oroitze maitetsu  
ortara sartzen dira ta ortan luzaro egoten. launa  
gogoz artze au ez da ortik onerako edo nolana-  
ko debozio bat; zenbait kristauek otoizbide beza-  
la erabiltzen dute ta laguntza aundia da.

N.— Ederki argira duzu —nik— Gizatasun ori  
eragozpen ez-baina laguntza aundi zaigula.  
Ederki bereizi dituzu Gizatasuna ta giza-itxura;  
ta batez ere, bai egoki, Loiolaren gertarazte  
bikoitz ori: lainko soillarena ta Giza-lainkaorena.  
Biak erara daudela ta ez diotela elkarri galaraz-  
ten. Funtsean gure idurimena dugula eragozpe-  
nik aundiena Kristoren Gizatasunaz baliatzeko.

El.— Lena berriz esan berriro —arek-: aldare-  
ko launa gure baitara ekarri nai dugunean, gor-  
putz anima ta lainkotasun ekartzen dugu, egia;  
baiña lendanik ere, gerongan geneukan Beraren  
lainkotasuna, Giza-lainko orrek ez baitu Irutasu-  
neko bigarrena beste Nor'kirik. Beraz, Norbait ori  
nonai dago, ta beste bi Nortzuekin batean gure-

gan daukagu beti, edo beregan gauzka. Beraz, len esan bezala, ederki balia gaitzke Giza-lainko ontaz, berri geiago ikasi baitugu Aitaz eta Gogo Gurenaz baiño.

N.— Ortaz —nik— bigarren Nordan ori beti gurekin baldin ba'daukagu, zertako gertarazi gudan gorputz anima oriek santuenik dirala ere, lainkotasuna baiño gutxiago baitira?

El.— Quietista bat eta lilluratu bat (alumbra-do) ola mintza litezke. Beraz, bigarren lainko-Nor ori, ots, Giza-lainko ortan geienik dana beti gurekin daukagun ezkerro, esan, ere liteke: gorputz odol anima oriek zertako artu urteoro gure barnean ianari bezala? Urrunegi zoaz arrazoiketan, ots, bertanegi gelditzen zera. Iaunak Berak esana digu ta Elizak Arekin: «Gizasemearen aragia iaten eta odola edaten ez ba'duzute, ez duzute zuengan bizirik». Iaunak Berak nai du bere gorputz animen bidez lainkotasuna gudan areago erraiñutu dedin, naiz egitan naiz gogo utsez barnean artzen dugula.

N.— Poliki atzeman nauzu —nik-; baiñan aldare aurrean gaudelarik bi gertarazte oriek ezin bateratu ba'ditugu, ots, Sagrarioan itxirik

dagon lainko-Gizon ori ta gure barnean daukagun Beraren Nortasun ori batean bezala oroitu ezin ba'ditugu, nola iokatu?

El.— Aldarekoari so egin, beintzat. lainkoa utzi lainkoa artu orde. Gorputz aren barnean lainko osoa dago gaiñez egin gabe; baiña beste aldera gaiñez egiten bezala du, esan dizudana, Nor-dan ori berori guregan baitaukagu. Ustai bezalako bat ipintzen digu idurimenak aldarearen eta gure tartean. Ustai ori etenerazi dezagun. Nola? Bi gertarazte oriek bat egiñez. Barnean daukagun lainko soila ta aldarean dagona ez dira bi lainko. Bat bakarra da, ta bakarra bezala ikusi dezakegu, Sagrarioan dagon Norbait ori ta guregan daukaguna Bera dala iakitearekin. lainko ori, Norbait danez, bigarrena ar dezagun, beste biak berengan dauzkala iakinki. Or giltza bakarra: Gizatasunetik Nortasunera, ta Semearen Nortasun ortatik lainko soillarenera, Aitarenera.

N.— Korapilloa ederki askatu didazu. Baizik ere, —nik— gure alegiñez utsez eta ortik onerako grazi baten bidez ez gaitzekela luzaro ortan egon.

El.— Aurrenean neke da, baiña lainkoaren laguntzarekin eragozpen ori kenduko zaigu. Idu-rimenaren marrak itzalirik —or ez digu beintzat gorputz-itxurak eragozten— lainko osoa batean gertatuko zaigu, atertu gabe artaz oroitzen egoteko; bai biotzean ere, maita ta maita iarduteko.

Iakiña, lainkoak bere grazi oso bereizi batez Bera oroitaraziz eta maitaraziz gauzkanean ere, noizik bein, aurrenetan beintzat, eragintxo bat eskatu dezaiguke aurrenetan. Ez da geiegi zirikatu bear oroimena, kaltegarri bailitzake; baiña zenbait aldiz bakoitzak ezagutzen du garbi noiz eragin bear zaion. Ala-nola baten bidez ulertuko duzu. Mutiko gaxte bat ez da berez gauza balantzako ezkil aundi bat bakarrik iraultzeko edo asiera emateko: baiña ba-dator gizon bizkor bat, eta ezkila ziztu aundian ipintzen du. Iñork ez eragitearekin pixkanaka pixkanaka gelditu egiten da: baiña ziztuan doala mutiko gazteak noizbeinka eragin ba'dezaio ez da gelditzen, edota luza-roago irauten du. Alare lainkoak zenbait aldiz gu ere otoitzean ola iokatzea nai du.

D.— Zertako ez ote dizkidate gauza auek neri ola adierazi!

N.— Geiegi luzatu ez gaitezten, utzi dezagun biarko. Biar iarraituko yunagu berriketa au.

## **ASI BERRIAN. (HOREB MENDI)**

N.— Opela iarraitu zunan bere iarduna.

«Nik asi berri artan, Horeb gaiñean, neke puxka ba-nizun lainkoaz atertu gabe oroitzen, ots, lainkoa nere oroimenean beti gertarazten — ala esan— Bera maitatzen atertu gabe iarduteko. Begiak ixten nitun; San Agustiñ aundiak ere —len esan nizuna— ez omen zun arkitzen iñon lainkoa bere oroimenean bezain ongi. Nere belarri-oroimenak laguntzen zidan geienik, arako dakizun txixtu legun arek. Alaxe igaro oi nitun ordu osoak. Laguntza aundi bat palta zitzaidan. Ba-nekin Etortzeko zanaren berri Ua iragartzen bainun ain zuzen-; baiñan ez nun entzun Aren Berri Ona; ez nun entzun batez ere Pater Noster'a, ori baiña asi-berrien eta bikainduen ere otoitzik oberena. Gogora etzazu Loiolaren «lru otoizkera» aiek, batez bat Gure Aita auznartzeko modu ua. Non ikasi zun alaba Teresak itz oriek

astiro ematen? Non ikasi itz oriek banaka ez ezen, irakasten zitun Maisua gogoematen? Irakurri etzazu bi santuak gai ontan. Non ikasi zun —eta ontara nindoan— Kristo gure launa bere barnean gertarazten? Besterik izan al da sekulan Teresaren otoitza?

N.— Esasu, arren —nik— zer da barnean gertarazte ori? Bere izkuntzan onela esaten du maiz: «*representar dentro de mí a Cristo nuestro Señor*». Bitara artu diteke representar ori: iduritara ekartzea, eta iduririk gabe oroimenean gertaraztea. Ez dago dudarik bigarren alde ontara artzen dula geienetan. Iesukristo gure barnean gertarazi egin bear dugu, ez iduritaraku, ez figurarse, imaginar. Eman dezagun ama bat aurra erditzean il zala, ta aur ori bizi dala. Kozkortzean bere amaz mintzatuko zaizkio. Idurimenez, begiduriz beinzat, ez daki amaren berri; baiñan ama ori nolabait gertarazten du bere barrnean. Lagunen ama on asko ikusiz, amatasunaren berri baidu, ots, aren beraganako maitasunaren berri. Orobatsu, Iesukristoren aurpegi edo eitea ikusi ez dunak ez du begiz bezala oroituko, ez du iduritarako, ez ta bearrik ere; baiña beste gizon on

batzuen berri ba-du, eta lainko-Seme txit onaren berri ere bai Ebangeliotik. San Agustiñek lainko soillaz diona, ots, gugan gertarazi dezakegula nolabait ontasun aundi bat edo zugurtasun aundi bat bezala, egin dezagun berori Kristoren Gizatasunarekin. Begiz bezala oroitu-nai ori alde batera utzirik, gure betiko Osasun eta Optasun bezala oroitu. Orrela ez du eragozpenik gure idurimenak, ez du nekerik Artaz maitaro oroitzeko, begiz oroitu-nai kaltegarri ori gabe. Gertarazi ez da iduritu; bir-gertarazi ez da bir-iduritu. Erderaz esan, *presencia no es figura, ni representación (representacia) es tampoco refigura.*

N.— Orain ikusten dut argi lesukristoren Gizatasuna etzaigula kaltegarri otoitzean, laun aundi ori, Ontasun aundi ori atertu gabe maitaro gogoratzeko; Beraren giza-eitea begi-oroiz gertarazi nai izatea, bai, eta ori ere, Beraren erru ez-baiña gure idurimen ikus-naieko onena da. Ikusmin geiegiak galtzen gaitu, naiz egiazko begiz, naiz iduri-begiz.

Galdegin nionan oraino: Gizatasun ori otoitzean laguntza dugula ere garbi ikusi nai nuke.

El.— Horeb gainean nengola, illunpean beza-  
la sumatzen nun nik Etortzeko zan Mesias ori. Ori  
iragartzen genun iragarleok: ori zala errien eta  
gizonen osasuna, ondasuna, ta mugarik gabeko  
ontasuna. Zatoz launa; ari giñan beti. Zeruek  
intzez, odeiek euriz iñotsi bezate zintzoa; ideki  
bedi lurra ta erne beza gure Osasuna. Onenga-  
nako itxaropen ori maitaro oroitzea genun otoitz  
aundi. Gure itxaropen bakarra, bai; beste iñoren-  
gan ez baitugu osasunik. Itxaropena bera ezin  
dukegu begiz ikusi, ez begiz oroitu, ez baitu  
ertzik eta margorik; baiña gure barnean gertara-  
zi dezakegu.

Teresak beti Maisua du agotan, lainko-gizo-  
na. Au esaten die aizpautxi ditun seroreri, lainko-  
ak ago-otoitzean atsedena eman dezaiekela  
adieraztean «Errezo luzeak egiñez, asko itzegi-  
ñez obeki ari dirala iduri zaie, ta ez dute ikusten  
eskuetara ematen dien erreinu ori. Ez egin ola-  
korik, aurrak, —dio—. Zaudete ernai launak atse-  
den, au noiz ematen dizuen. Ondasun aundi bat  
galtzen duzute. Noizean bein Pater Noster'eko  
itz bakar bat esatearekin obeki ari zerate, arnas-  
ka ta askotan Pater osoa berritzearekin baiño.



Zagozkiote ondo ondoan eskatzen ari zaizkioten Ari, ta ez dizue ez-entzun egingo». Olako atsedenen ortan da Aren izena ospatzea ta gorestea». Au eratxikitzen die: agozko otoitzean, itzeri baiñon oartuago egon ditekela lainkoaki.

Ederki erakutsi zun Loiolak, arnasa neurri dala, Pater'eko itzak astiro esaten eta auznartzen. Ongi gogoeman, naiz itz bakoitza, naiz nori esaten zaion, naiz nork erakusten dizkigun. Zenbatek eta zenbatek dute au otoitzik bikaiñena! Asieran ez-ezen, geroan ere. Itz bakarka astiro auznartuz nik ordu osoak ematen ditut orain ere. Egoki dio Loiolak, ordu betean Pater osoa irauli ez duna, urrengo orduan, azkena utzi zun itzetik asi ditela, baiñan aurrekoak labur berrituz. Nonbait berak atsedeen artzen zun ortan, eta beste askok ere bai.

N.— Ba-dira, esan nionan, agozko otoitza aintzat artzen ez duten zenbait ere.

El.— Oker ari dira olako oriek —arek—. Agoz mintzatzeak eta lainkoarekin mintzatzeak nola galarazi lezake lainko ortaz maitaro oroitzea? Otoitzean ari dana xoxoturik egon bear al du

arnasik atera gabe ta kordea galduz? Geroago ortaz.

Asiberrien otoitza erakustean au dio Teresak: «Otoizkera oni barnera-naia esaten zaio, gure ezagumen guziak barnera biltzen baititu, ta gure barnean sartzen gera lainkoarekin.

Onela lainko-Maisu onek lenago ematen dio beste iñola baiño». Ta beste nonbait: «gertarazi ezazute Kristo zeurokin batean. Onela sartzen da anima bere barnean lainkoarekin».

Ioanes Gurutzeko ere, asiberrien otoitz ontaz mintzo dala, bein Kristoz oroitzen da Karmel mendira igoera artan, eta gauza bitxia, Loiolaren itzekin berekin: «Gauza guzietan Kristoren antza artzen irrikatu bedi, Aren biziaren ariora, egiñenak Arek bezala egiten ikasteko». Eta baitik bat, beste itz auekin: «Egiñen guzietan eta bakoitzean, ioka bedi, launa Bera ioka ledin erara». Esanik utzi baitzun Loiolak: Kristauak, iaten ari dan bitartean, gogoeman beza, lesukristo begira daukala; nola edaten, nola begiratzen, nola itzegiten dun, eta albait, antzera egin beza. Adimena launari begokio geienik eta ianari gutxienik». Berau Teresak ere: «Egin detzagun gauza guziak

laun aundi au begira geneukan gisan. Bide ortatik ioanez, animak asko irabazten du». Egia, Loiola'k bere itz oriek Kartusiano'rengandik artu zitun; baiña Teresak eta loanes'ek bear ba'da Loiolarengandik, aren Gogo-iardunak egin baitzuten.

Iainko-oroitze maitetsu au geron alegiñez irixi dezakegula dio Teresak aldez alde; baiñan ez dugula merezi Iainkoak ematen ez ba digu.

N.— Uste al duzu —nik— Iainkoaren ixuri bereziagorik gabe norbait egon ditekela Iainko-oroitze maitetsu ortan atertu gabe, esaterako ordubete?

El.— Baietz iduri zait —arek-; askotan ez baitaukagu iakiterik bakoitzaren alegiñezkoa non bukatzen dan eta Iainkoaren ixuri utsezkoa non asten dan. Saia gaitezen, beintzat al dugula. Gogoan daukazu Olako 1936' garren urtean?

N.— Iñolaz ere —nik—.

El.— Lau ordu osoak egiten zitun aldareko launaren aurrean oroitze maitetsu ortan unetxorik ere atertu gabe; ala ere etzitzaion iduri otoitz ua Iainkoaren ixurizko esaten zaion ua zanik.

D.— Nor zan ori, mutil, esan al ba'diteke? — arrebak—.

N.— Eta..... —nik—.

El.— Beraz —arek— onela iarraitzen du Tere-sak: «Gertarazi ezazute launa Bera zuen ondoan, eta ikus zein maitaro ta umilkiro ari zaizuen Gure Aita irakasten, Etzaudetela, albait, adiskide on au gabe». Eta oraino: «lesukristo nere barnean gertarazten nun, albait, eta egokiago zetorkidan baltarrago nenkusan tokietan. Bakarrik eta nai-gabetan zegolarik, bere ondoan artuko nindula iduri zitzaidan, bearretan dagonak laguna bezala. Txoro-uste auetatik asko nitun. Batez ere Baratzako otoitzean arkitzen nintzan ederki. An, bai, lagun egiten niola! Odol-izerdi ta naigabe ua gogoan iraultzen nitun. Albait, izerdi nekagarri ua txukatu nai nion; baiñan ez nintzan beiñere ausartzen, alakotzarrak baitziran, ustez, ene pekatuak». Nola ez ekarri gogora Loiolaren iarduera Iesusen iaiotza gogoematean? «...aieri lagun egitea, bertan ba'nengo bezala, nerau morroi arlote kaxkar biurtuz». Bertan ba'nengo bezala ori ere Kartusianorenetik artu zun: *tamquam in praesenti fierent (facta); ac si praesens*

*fuiſſes; ac ſi praesens eſſes,* irutan gutxienik esaten du.

Itz batean; nik Horeb mendian, ots, asiberrian, Etortzeko zana gogora nun nere otoitzaldietan len esan bezala; orain Tabor'en Etorritakoa, ikusi nuna; baiña nolako aurpegia zun iduritaratzen burua autsi gabe. Itzali bedi nai ba'du itxura; bego Gizatasuna; meatu bedi, argi biur bedi, itzungi bedi, lainko-zirrara besterik uzten ez digula, Gizon eta lainko batean urturik bezala. Teresak ederki ziona: *adonde divino y humano junto es siempre su compañía.*

# IX

## KARMEL-MENDI

### (ARGIALDIAN)

*Animaren gaiñezkaldi,  
egaldi, arrialdi... xoxoaldi.*

N.— Urrera, otoitzaldian gerta oi diran zenbat gertakizun bitxiri zer izena eman ari nintzala — neke baita, euskeraz bidea iñork urratu ez dun ezker—, ona emen nere gizon ilezu, burubeltz, bizarbeltza, ezpaiñetan parra zeriola. — Emen zaitugu? —nik—.

El.— Eta, bai, Karmel-menditik nator, An izan naiz nere argialdiko zenbait gauza berritzen, zuri obeki adierazteko. Aztu-garai ere ba-da, milaka urteak igaro diran ezker; baiñan argialdi ontako zenbait gertakizun ezinastuzko dira. Ontara arteko grazi guzietaz zalantza sartu diteke; baiñan auetako batzuetan ez da dudarik Teresak ere oartarazi zuna. Iakiña, ateka gaiztoak ba-dira sail ontan ere, deabrua sar' baititeke aingeru-antzean, *sub angelo lucis*. Deabru-argi onek lilu-

ratu zitun ainbeste iainkotiar nolabaiteko, izena *lilurati* ipiñi baitzien Espaiñian: «*los alumbra-dos*».

Argialdi ontan gauza autemangarri bat gerta oi da: lainkoa begiz bezala gertatzen zaigu. Idu-ritu au santurik geienak ukan dute, asi Dabiden-gandik eta, lenagotik eta oraingo egunotaraiño.

N.— Baiña —nik—, ez al zenidan esan lainkoa begiz bezala ikusinaia ori kaltegarri zitzaigula otoitzean, belarriz bezala entzutea obe zala, ta ori, otoitz bikaiña bera ez-baiñan ari darion zer-bait dala

El.— Egia; baiñan autemazu, guk orrela lain-koa gerok ikusinaia zaigula kaltegarri: lainkoa begiz bezala gugan gertarazi nai izatea; ez, ordea, Bera guri begiz bezala gertatzea. Askotan otoitzean ez dezakegu garbi bereizi gerok ari geran ala lainkoak ari gaitun; baiñan otoitz ontan bai; ez baikera gauza Aren begiratu ori gugana erakartzeko, ta buru-auste gogorra baikenuke, argialdi ontara iritxirik ere. Guk lainkoa gugan gertaraztea bat da; Bera guri gertatzea beste bat. Geron alegiñezko otoitzaz ari giñan orduan; orain, ostera, lainkoak bere ixuri bereizi batez

ematen duna dugu iardun-gai.

N.— Bai ta, bai ta, —erantzun nionan—.

El.— Iainkoa guri begiz bezala gertatze ori — arek— egiazko otoitz bikaiñari dario ta au du ondorio: guk Ari maitaro begiratzea. Dakizunez, Dabid nonai mintzo da Iainkoak guri egiten digun begiratu ortaz. «Iainkoaren aurpegia, Iainkoaren begiak, Iainkoaren begiratu» ta abar, Egia, beste zentzuz bezala ere agertzen zaio: «nere belarriari poz eta atsegin eman diozu, ta nere ezur eroriak pozez dardaratuko dira; on zaida Iainkoaki itsastea; iasta zazute zein gozo dan launa»; baiña batez ere begiz bezala gertatzen zaigula esan dezakegu. Aren aita Salomon'ek bikainkiro «Zugurtasuna (Iainko-Semea) begiz gertatzen zaienek, begiratu maite dute, zein aundi dan ezagutuz. Egizaleeri agertu oi zaie Iainkoa, ta Aren begiraturaiño irixten dira». Beste nonbait: «Bai doatsu zugur irauten dun gizola, Iainkoak bere begiratu inguratzen duna!» Begiratu ori barne-muiñetaraiño sartzen zaio, ta orrek ematen dio Iainkoaren antza. Iainkoak gugana begiratze orek ITZA dula iturri dio Salomon'ek. Eta geroago: «Zugurtasun ori beti-



ko argiaren zurtasun bat da, lainko aundiaren ispilu itzalgabea ta lainko onaren erraiña». Semea, S. Paul'ek diona. Beraz, argialdi ontan ere, lainko-Semea dugu otoitzean laguntzaile; Seme ori dugu Aitaren begiratu. Ederki dio Luis de Leon argitsuak: «lainkoaren aurpegi au Kristo da, Aurpegi ortan agertu zaigu lainkoa, ta ortan arkituko dugu. Bestetan bila dabilanak ez du arkituko». Beronek oso bikain: «Kristau bizia ematen digun grazia, Kristoren antz-ixuri bizi bat da; Kristok bere ordezeko egin dun gauza bat; onek bizi gaitu; au dugu gidari ta buruzpide. lainkotasun bezalako bat da; gure animan ezarririk, alderen alde erasaten du, lainkotu dezan arte. Egi egitan, grazi au animaren anima da».

Ioanes Gurutzeko'k au dio begiratu ortaz «Ikusi dezagun elkar, Maite, Zure edertasunean, nik Zure edertasun ori berri artuz. Beraz, elkarri begira, bakoitzak bestearen edertasuna dezagun, biona Zure baita, ni Zure edertasunean murgildurik nagon ezker. Ikusi zaitzat orrela Zure edertasunean, eta ikusi nazazu Zure edertasunean. Ni nerau Zuan arkituko naiz Zure edertasunean, eta Zu zerau nigan arkituko zera

zeure edertasunean. Nadin Zure iduri Zure edertasunean; zaite zu nere iduri Zure edertasunean. Nere edertasuna Zure bedi ta Zurea nere. Orrela, ni Zu naiteke Zure edertasunean, eta Zu ni zaiteke Zure edertasunean; Zure edertasun bera baitut nik edertasun. Orrela ikusiko dugu elkar Zure edertasunean».

Beraz, Kristoren eta animaren elkar-begiratzeko orrek egiten du, animetan Beraren antziduri ori, edertasun ori. Ioanes'ek or Semea du agotan: Maitea, Laztana, ITZA; maite-leloaren iruzkin baitira itz oriek:

«Zure begiek neri begira  
grazia zuten ezarri».

Eta beste aiena:

«Io ninduzun bein, begiratuaz,  
io nazazuke berritan;  
graziarekin edertasuna  
nigan utzi baitzenidan».

Teresaz esan bearrik ez dago: bidealdi guzietan, lenengotik azkenengora lainko-Gizonarekin doa Maisuarekin. Loiolak, berriz. Gogo-iardunetako bigarren asten «Bi Bandera» en otoitzaldia ipintzen du: ikurrin bat Kristorena, bestea Luziper'ena. An dago Kristo Ierusalengo zelaiean, eder zoragarri, pake-alkian eseria; an dago Luziper Babiloni'koan, eziñ egonez, su ta kei darion alkian. Pakea ta eziñegona dira lainkoa ta deabrua ezagutzeko zantzurik seguruenak. Loiolak ipiñi zetzaken otoitzaldi orren azpialdean «Aingeru onaren eta Gaiztoaren ioerak ezagutzeko» arau aiek; baiña luzetxo lirakelako, liburuaren azkenagora bialdu zitun. Beraz, Kristo du argi Loiolak ere: Kristo, aur danetik ilda piztu zan arte, iru aste osoetan: eta bera kristau bizieran aur zanetik gizon eldu egin zan arte.

lainkoa begiz bezala ikuste ori amalau aldiz gutxienik aipatzen du Teresak. Santuak ere ola mintzo dira eskuarki; baiñan esanik utzi dizut, eta ez naiz aspertuko esaten, otoitz bikaiña bera ez-baiñan ari darion ondorio besterik ez dala ori. Nere ustez, idurimena sartu diteke or polikitxo ere, gure animaren begiok sumatu baitezakete

lainkoa zabalean bezala, naiz gu inguratuz bezala, Salomonek dionez; eta lainkoak ez du luze-zabalik, ez ingururik. Oso ederki dio zuen Loiolak berrogei Mezaetako oarkizun aietan: «Meza ontan au ezagutzen, ikusten edo sumatzen nun, edo lainkoak daki (Dominus scit).

N.— Ontan nik galde-keiñu egin nionan, eta, «zer galdegin nai zenuke» esan zidan. Nik, berriz: aztu baitoo len, zer esaten didazu lainko-ikuste bezalako ortan itzaliai batzuk gertatzen dirala naiz zentzuetan naiz adimenean? Oso nasi bainindun Teresak, garbi baitio lau aldiz ere, itzaliai ori ez ba'dator, ez dala otoitz bikaiña: «Y si no, no es unión».

El.— Garbi esaten du beste emezortzi aldiz ere, ikuste bezalatzea dala; ez ikuste ori atertzea. Nola ditezke bat, ikustea ta ez ikustea? Orduko eskolastikuek idaroki zioten aburu ori; baiñan, orren kontra bera iekitzen da anemenka. Berak otoitz ortan ikusten bezala zun ezker, bitxi iduri zaio ikuste ori itzaltzea, askotan beintzat: «auntz-erdera dirudi» esaten du. Aburu galgarri au Tertulian'engandik gaurdaiño etorri da. Noizbait bear eta orain asi dira bestera. loa-

nes'ek, orain laureun urte, garbi adierazi zun lau tokitan, itzalialdi orienik ez dala gertatzen otoitz bikaiñean; asi-berrtan aulaldiak dirala oriek, eta ez guzienak. Iainkoaren itzalialdia esan ba'lute, nonbait or, ezin begiratu baitiogu begiz begi eguzkiari ere bezala; bion tartean odei mee bat igarotze bezalako bat asmatu diteke; baiña gure zentzuenik eta adimenarenik, ez.

N.— Pozik entzun netzake —nik— loanes'en itz oriek.

El.— «Gaiñenera eldu ez diran auek, ez dezakete otoitzean Iainkoaren doai bizkorrik eta garairik iasan, gure zentzu maketsak dirala bide. Orregatik datoz olako korde-galtze, ezur-giltzen askatze ta bar. Auek gerta aldioro, doai oriek animari bakarrari gogoz gogo egiñak ez diralako gerta oi dira. Kristau bikaiñek, aldiz, gorputza garbi baitaukate, ez dute olako oiñazerik eta korde-galtzerik sumatzen». (*Noche oscura del espíritu*, I, 3.)

Bigarrenez: «Itzalialdi auek etzaizkie gertatzen kristau bikaiñeri, otoitzean gaiñenera igorik baitaude. Asi berrieri gertatzen zaie ori». (*Subida*, Lib. III, cap. I, n. 3). Ez guzieri, esan bezala.

Irugarrenez: «Bikaindu ez diranek ez titute zentzu-galtze oriek lainkoaren ageraldietan, ots, aurreratzen ari diranek; gain-lerrora igoek, aldiz, lainko-ixuri ori pake ta maite goxoan sumatzen dute». (Can. esp. XIII, 6).

Laugarrenez, azkenik: «Ez dugu uste izan bear lainko-agertze oriek bildurra ta auleria lagun gertatzen diranik; len esan dutana, argialdian santu-berri zenbaiti gerta oi zaizkie; gaiñenera iritxi diranei; aldiz, lagun eta goxo». (Noch. osc. esp. cap. I, n. 3).

Ez da zugur burura ekartzea ere, betiko Oasun dugun Kristori olakorik gerta zitzaionik, naiz Beraren Ama paketsuari. Urmael batean, ura denik eta gutxiena igitu ba'ledi ere, berez geldi dagon eguzkia igitzen ere dala dirudi; baiña zuzentasunezko ispilu artan askoz geldiago ta garbiago ta bizkorrago erraiñutzen zan lainkoaren begia, beste edozein sorkaritan baiño. Gogo Gurenak egin zion itzal santu artan ere ez dugu asmatu bear ikararik edo olakorik; bai ordea grazi aundi baten ukitu leguna. Belar izpirik meiena ere ez da makurtzen, ez igitzen, itzal ixila gaiñetik igaro dakionean.

## ZENBAIT GERTAKIZUN NABARMEN

N.— Eta, zer deritzazu —nik— agerkari, izketa, animaren gaiñezkaldi, egaldi, arrialdi ta ola-koetaz?

El.— Orduan arek: Iesukristo gure launari ta Beraren Amari esker, ez naiz gai ortan gogorkiango mintzatuko. launari Getsemani'n Aingeru bat agertu zitzaion indar ematera. Ama txit Santuari, berriz, Aingeru Gabirel. Agertu, ta guri agertu? Iesukristo gizon egiñik agertu zitzaiguna aski dugu. Guri itzegin? Iesukristo mintzatu zaiguna niakoa zaigu. Gaiñera, agertze oriek ez dute egi-ten santutasuna; bestela, Balaan'en astoa ere santu liteke; Aingerua agertu zitzaiola segurua-ngo baita edozein santuri baiño, lainkoak Berak bere liburuetan aitortzen dun ezkerro. Korde-galtze, eta gaitzaldi orietaz ederki mintzatu zaigu loanes Gurutzeko.

N.— Baiña, zer derizkiozu, esaterako, Iosepe Kupertino'ren gaiñezkaldi aietaz?

El.— Aiengatik ez-baiña on-doaiak gaiñeneko lerreon zitulako aitortu zutela santu. Elizak ez du galdegiten zenbat ikuskari izan ditun, Urlia santu aitortzeko. Zenbaitek lainkoaren doai esaten dieten oriek ote-otezko gauza dira. Geienetan ez diteke iakin lainkoagandik ala deabruagandik ala gure idurimenetik ote datozen. Ote-otezko aburu bakar orren kontra, torizkizu lau seguru diranak:

1) Gu geronez gerana, ots, gure etorritzkoa, graziak makaldu ez-baina bikaindu egiten du; gaitzaldi edo alditxar oiekin datorren grazia, barnean gertatzen da, guzien izkutuan eta norberaren izkutuan; au da egiazko mistika.

2) Eginbide du praile batek korura agertzea, ta oben larriaren azpian apaiz batek Eliz-otoitza egunero, egitea. Ez da berriketa Txarraldi oien-gatik korua etzuketela utzi bear esan ba'liote, arrialdi oriek iñarrausi zituken, noski. Ori gertatzen da lainkoaren grazia lagun dutela baldin ba'datoz; nagusiak agindu orduko beren baitara etorri oi dira.

3) Nagusia bere aldetik bearturik zegon Ordenako arauak ari betearaztea.



4) Gogo Gurena ez da bitxikerien eta aulkerien lagun; zentzu onaren lagun da, Beraren otoitzean esaten zaigunez. Ez desagun sena galdu. Fedea dugu egi ontan, ez zentzu utseginkorrek esaten digutena. Oinbeste liburu kaxkarrek kalte aundia egin dute gaiñezkaldi oietan santutasuna ipintzean.

Zentzuen naiz adimenaren itzualdi batzuetan ezarri dute otoitz bikaiñaren izate guzia. Beraz, nork bere alegiñez itzualdi oriek bereganakarri nai izateak zer egin du? Xoxoaldian erortzea, Teresak diona; alperkerian egotea, deabruari leku ematea. Neri etzaizkit ileak beñere lastu (len latz askiak ba'ditut ere), ez, begiak zuringotu, ez dut korderik galdu, etzait ezurrik giltzetatik askatu.

N.— Baiña —nik— nola sumatu zenun argialdian zeundela? esan baitidazu Karmel mendiz argatik oroitzen ziñala. Nola ezagutzen da eskuarki argialdi ori?

El.— Ara —arek—; ba'liteke norbait argialdi ori beregan sumatu gabe ere otoitzik bikaiñenera igo izatea; baiña, nere ustez, geienak ontatik

igaro dirala esango nuke. Neri onela gertatu zitzaidan

Zenbait aldiz, lainkoaren ontasuna gogoz iraultzean, batez ere Etortzekoagan itxaropena, naiz Liburu santuak irakurtzean, alako bat-bateko biotz-eragin batzuk sortzen zitzaizkidan; biotza punpaka asten zitzaidan oso nere batean nengola, ots, zentzuz eta dimenez beti ernai nindagola. Beste zenbait aldiz, begiak ixten zitzaizkidan, betazalak ikara, bekain-barnean ostotsa bezalako bat sumatzen nula; artatik malko pare bat, eta ola bukatzen zan eragiñ ori; besteetan zirrara bat buruan, Teresak ere diona, ziri-izar edo izar iges bat bezala; besteetan alako itonai bezalako batzuk, minutu laurden batez edo arnasa aldatzen zitzaidan ia eten arte. Zer ito-nai goxoak! Eriotza poz pozik artu liteke aietako batean. Eta denetan oberena, aien ondorioa, ots, lainkoarentzat esker ona, ta neretzat umiltasunarekin pake aundia. Lainko-eragiñak dirala eza gutzeko au da zantzurik seguruena.

Deabruak ere alako eragiñak itxuratu nai izaten ditu Aingeru antzean argialdi ontan; baiñan ez dira sosteko edo bat-bateko; ez dakarte esker

onik eta umiltasunik; bai egiazko pake ordeztu eta biotzeko guritasunaren ordeztu, utsaldi handia. Bear ba'da zalaparta puska batekin eta malko ugariekin; auek txukatu ezkerre, uts utsala gelditzen da barrena.

N.— Liburu Santuak irakurtzean zeintzu tokitan gertatu zitzaidan orri? —nik—.

El.— Eta, mila tokitan —arek—. Guziak lumaz larmendu bear ba'nitu, orrialderik geienak beltxatu be-arko nituke. Itun zarrari dagokionez, batez ere Dabid irakurtzean «Zu zaitut lainko; amaren sabeletik Zu zaitut nere lainko; egigun negar sortuazi gaitun launaren aurrean, Ua baitugu gure laun». Alperrik litzake iarraitzea. Bein esan, Salmuen orrialderik eta lerrorik geienetan. Itun Berriari dagokionez, Donibane'ren Ebangelioan geienak. Bi toki ditut ezin-utzizkoak. Badakizu itsu iaio zana, launak begietako argia eman baitzion, buruko argitasuna ere ez makala iudueri erantzuteko. Atal aren azken aldean beti gertatzen zait, orduan baiño legunago ta xamurrago: «Siñesten al duzu lainkoaren Semea? — Nor da, launa, siñestsi dezadan? — Ikusia duzu,

ta mintzo zaizun au duzu. — Siñesten dut, launa, ta auspez iauretsi zun».

Urrena, iarraitu zunan, afalondoko itzaldian. Kristau guzientzat da mintzaldi bikaina; baiña, batez ere, gaiñenera igo diranentzat. Zer urgeldi iabala ta paketsua!

Loiolak diona, ez-orduan, xor gaudela, nondik nora ez dakigula, gertatzen dira argialdi ontan biotz-eragin xamur oietakoak. Orobat diote loanes'ek eta Teresak: «a deshora, estando descuidados». Bai lo bete betean gaudela ere. Askotan esnatu oi nintzan bat-batean, lo-ondorik gabe, buruko ernetasun osoarekin, eta galtzarra dardar nula «lesus!» oiu egiten nun. Eta logale aundia ba'neukan, lo gelditzen nintzan berriz ere luzaro gabe. Nik-ukan nitun biotz-eragiñak legunenetan «lesus» atera zitzaidan oiurik maizena, naiz ernai naiz xor nindagola.

N.— Itun zarrean ori?

El. — Bai; iragarleok ba-genun izen samur orren berri. Gogoan duzu Habakuk'en ua: «Poziauzi egingo dut lesus nere launagan». Eta Ieremias'en ua: «Guk ago-arnas dugun Kristo gure launa, gure pekatuz lotu zuten». Biotza aski

ordotsa nulako, urteak eta urteak igaro nitun biotz-eragin oiekin, Tabor'era arte, ez bainintzan osotara bikaindu; baiña lainko-Semeak make-tsak berdindu zizkidan, eta geroztik pake aundiagoan ixurtzen zait Beraren grazia.

Ala ere, grazi orren eragiña ixilagoa da ta eziñ-oartuzkoa animan. Kristorekin bizi dugun bizi izkutu ori da egiazko izkutu edo mistika; ageri diran beste gertakari oriek bizi izkutu orri darizkio. Zer ote da, arren, gugan daukagun bizi ori, grazi ori, Kristoren antx-iduri ori, Kristoren edertasun ori! Baiñan agerira ere nolabait atera nai du, gure gorputza barrengo poz orren erdikide dedin. Gorputz-anima egiñak gaitu lainkoak, eta bakiotzak bere poza eskatzen du. Animaren pozetik dario gorputzari. Zer nolakoa ote da barrendik datorren iturri ori! lainkoagandik animara ta animatik gorputzera.

Askotan gorputza bera ere ez da konturatzen pozaldian dagon ala ez; ain baita sumagaitz.

N.— Adierazi idazu ori geixago, esan nionan.

El. — Eta, —arek— neri au gerta oi zitzaidan askotan otoitz-ordu luzeetan: ba-nengon eta ba-nengon'obeki esan, ari nintzan, ari nintzan, eza-

rian, edo lainkoak ari nindun; baiñan gorputza ia legorraldiaren mugan nedukan. Loiolak diona, nere pozaldia siñeste soilarena zirudin; ugaritzen ari dan siñestearena. Ernai egon oi nintzan zentzuz eta adimenez, eta orduak beren eineko iduri zekiz kidan; batere laburtxago. Ontan, arteraiño batere konturatu gabe, bi malko lertzen zekizkidan sudur-barrenaren eta masailaren azpilduran, bertantxe sortu liran gisan; ain ixil bide egi ten zuten araiño, betazalak ere batere oartu etzira la. Ortan ezagutzen nun pozaldian neukala gorputza ere, berak asko sumatu gabe. Gogoe mazu, beraz, animako poza zein leguna ta sumagaitza diteken, Gorputzeko pozaldi aundi, malko ugari ta olakoak, osasunaren kaltegarri dira; baiña legorraldiaren mugan dagon fede gurizko poz ori dugu osasungarrienik, bai animarako, bai gorputzerako. Dakizunez, nik milaka urtetan bizi bearra daukat, eta pixkanaka moteldu nindeke, zartu nindeke; baiñan otoixkera legun onek beronek ematen dit indar eta osasun beti batean irauteko. Lur ontako ianariak ezin duke gorputza beti ein batean eduki. Matusalen baldin ba'da ere, igatu bearra dauka, aragi ta igaliek ez baitu-

te indarririk milaka urteetan gordin iraunazteko. Otoitz legun onek bizi nau rii, ianariak baiñon areago; onetxek ez nau uzten zartzen eta zimurtzen beste edozein gizon bezala.

N.— Orain ikusi dut —nik— zergatik esker on ematen diozun siñeste argizko otoitz orri, gure Loiolarekin.

# X

## TABOR'EN

### (Gaiñenean)

N.— Eldu gera, esan nionan, zure Tabor mendira, antxen ikusi baitzenun lurra zeru biurturik. Nork adierazi dezake zuk bezain ongi kristau zintzoa Kristo biurtzen dala mundu ontan? Esan ere baituzu mendi ontan iritxi ziñala gaiñeneko lerroara. Pozik ixilduko naiz zu entzuteko.

El.— Ba-dakizu —arek— San Paulek diona: «Nere bizia Kristo da». Ta beste nonbait: «bizi naiz ni; ni ez-baiña Kristo bizi da nigan». Donibane Ebangelariaren bidez Kristok Berak au esan zigun: berriz: «Maite naunak Nik aginduak beteko ditu, ta Aita ta biok arengana etorriko gera, ta argen egingo dugu bizileku». San Paul'ek: «esnai gaudela, lo gaudela, bizi gaitezen Arekin batean».

Zuen Loiolak itzala bezalako bat sumatzen zun lesusek egiten ziola, begiz naiz iduri-begiz ezer ikusi gabe, eta itzal antzeko onek errezago sarrerazten zula lankoaren beste bi Nortzuenga-



na eragozpen izan ordez. Orduko quietista'engatik dio au iñolaz ere. Teresak berriz»: «Zazpigarren egoitzetan ia atertu gabe dabila bat Kristo gure launarekin, lagun baiteramagu beti Gizon eta lanko batean urturik bezala». Eta, «ez da iñor sartuko, naski, azkeneko bi egoitza auetara, lesusek ez ba'derama». Egi utsa dira Fr. Luis Leon argitsuaren itzok: «Kristo lankoaren aurpegi deritza, ta norbait bere aurpegiz bezala, lainkoa Kristoren bidez ezagutu bear da. Eta bide ontara gabe ezagutzen dunak, ez du ezagutzen ere. Orregatik dio Aitaren izena gizoneri agertu ziela. Beragatik Ate ta Sarrera ditu izen, Berak baikaramatzi lainkoa ezagutzera ta maitatzera.»

lesukristo argi antzean artu dugun ezkerro, San Paul'ek ederki: «Argi dan lesukristoz iantzi zaitzete; ilunpetik argia dirdir atererazi zuna. Bera da zuen biotzetan erraiñutu dana, lesukristoren aurpegiaren bidez». Argiz iantzi ta areago dio. Egia da zeruaz mintzo dala; baiña lanko-bizi bikaiña, deramanari ere egotzi ditiozke itz oriek. Soiñeko iantziak gorputza kanpotik biltzen du; baiña Kristoren argiak barrenez barren erasaten gaitu; beraz, iantzi baiñon areago. Gure gorputz

zirtzil au lesukristok eraberrituko du bere gorputz argitsuaren ariora. Kristau bikainduek sumatu oi dute noizean bein beren izate osoan, bai gorputzean ere, argitasun mee bezalako bat. Gorputza illaun bezala biurtzen zaie, pisua galdurik bezala, geroko zerutarren antzera. Teresak egoki: «Guzi au ispillu garbi nintzala iduri zitzaidan, saietsik, sorbaldarik, goien-barrenik gabe, nere izate guzia argi biurtua bezala, ta erditsuan Kristo gure launa». Ori da ain zuzen. Argi antzeko biurtzen, argi dan Kristoren antzeko, lankoaren antzeko.

Argi, itzal, mintzo, oiartzun, ixietasun... gauzarik meienak eta izkutuenak dekartzigu lankosuma ori adierazteko. Guzi orien zirrara itzaltzen zaigu, ta bakartasun ixilean atzematen dugu obekienik bestela ezin atzi dugun lanko ori.

Kristo argi dugula gauza iakiña da, ta ortan ari izan gera aurrenetik, eta ustez garbi adierazi dugu; baiña belarriari gagozkiola, Aitaren itza dala ere ba-dakigu. Itz mintxoa ta itz ixila. Bernardo'ren itzok gogoan ar etzazu:

«Askotan etorri zait barnera lainkoaren Itza, esatea eder ez ba'da ere. Baiña nigana maiz

sartu zan arren, ez nintzan oartu noiz sartzen zan. Nere barnean sumatu nun, nerekin eduki nun, oroitzen naiz. Nozbait idurituak artu nindun sartu ote zan; baiñan ez nun beiñere sumatu sartzen, ez ateratzen. Orain ere ez dezaket ulertu nondik eta noiz etorri zitzaidan, ez ta, utzi nindunean nora ioan zan, ez nondik sartu nondik atera zan; esana baita «ez dakizute nondik datorren, ez nora doan». Ez da arrigarri, Arengaz baitago esanik: «Aren oiñ-urratsik ez dute sumatuko». Ez zan sartu begietatik, naski, ez baitu margorik, ez belarritik, ez baitzun egin soiñurik; ezago sudurretik, ez baitzan nasi eguratsarekin; ez agotik ere, ez baita ianari ez edari; ukituz ere ez nun sumatu, ez baita ukigarri. Nondik sartu zitzaidan, beraz? Ausa, etzitzaidan sartu, ez baitzan kanpotik etorri; ez baita kanpoan dauden oietakorik ezer. Etzitzaidan etorri nere barnetik ere, Bera ona baita, nik, ordea, ez dut neregan gauza onik. Igo nintzan beraz nitaz gaiñetik, eta Itz au gorago zegoen; ietxi nintzan nitaz beetik, ikusmiñez, eta beerago zegoen; so egin nun aldeetara, eta alde guziak baiñon areago zegon. Neregana itzulirik, nigan arkitu nun. Ordun ezagutu nun garbi,

irakurria neukan au: «Argan, gera bizi, Argan igi, izan ere Argan gera». Bai doatsu Artaz bizi dana ta Argan igitzen dana!

Ba-dioke norbaitek: Ua Atzematen naiz sumatzen ain neke ba'da, nondik dakizu barnean gertatu zitzazula? Itz au eraginkor baita eta bizi. Orregatik, sartu zitzaidaneko, nere anima loak artua esnatu zan; nere arrizko biotz eri oni eragin zion, samurtu zun, itzegin zion. Berela asi zan nigan, erauzi ta suntsitu, eraiki ta landatu, igartua ezotu, iluna argitu, makurra zuzendu, bide latzak legun legun biurtu. Orregatik nere animak eta nere erraiek oro Aren izen txit gurena onesten dute. Beraz, Itz laztan ori zenbait aldiz nigan sartu zanean, etzidan beiñere bere berririk eman, ez keiñuz, ez mintzoz, ez itxuraz, ez urratsez.

Azkenik, ez nun ezagutu galtzarraren gordeenean sartu zitzaidala, ez Aren eragiñez, ez nere zentzuz. Baizik ere, biotzaren irakiñetik ezagutu nun barnean neukala: nere makur-ioera zuzentzean, aragiaren zirkiñak ibitzean ezagutu nun Aren indarraren ondorio zala. Nere ixilgordeak argitara ekartzean eta aietaz neri akar egitean,

arriturik utzi nindun bere iakintasunez. Nere oitura txarrakpixkarik ere ontzean sumatu nun zein on eta otzan zitzaidan. Nere barneko gizon au eraberritu zuenan ezagutu nun nolabait Aren edertasuna. Auek oro nigan batean ikusirik, balditurik gelditu nintzan Aren doai aundi eta ugarrietaz.

Baiñan Itzak aldegitean doai auek aultzen baitira, ta erortzen eta ozten, eltzea sutatik baztertzean bezala, zantzu ontatik ezagutzen nun irten zitzaidala; beraz nai ta nai ez goibel gelditzen nintzan, eta ala egongo naiz, berriro itzuli dakidan arte. Orduan berotuko zait biotza nere baitan, eta ortan ezagutuko dut berriro etorri zaidala».

N.— Bikain esana —nik—.

D.— Bai mutikoa, —arrebak—.

N.— Itzaren ukiturik ez dugula, ez dala uki-gauza —nik— dio Benardok; baiña zure seme loanes Itz orren ukituaz ari da bein baiño geiagotan. Ditun orrialderik ederrenak ortaz egin ditu. Nola askatzen duzu korapilo au.

El.— Giza-izkuntza ez da geiagora irixten, eta loanes'ek alegiñak egin ditu gure anima ta Itz ori

meetasunik meenekin alderatzen. Idurimenak galarazi egiten digu gorpuzki ez dana buruz asmatzen. Latiñez ere arnasa atera zuten edo eguratsa: spiritus; gauzarik meienetakoa dala ere, azkenean gorpuzki. Nolabait esateko gogaki esan genezaioke. Iones'en itzak alde aldera artu bear dituzu, zer dioten ez-baiña zer esan nai duten gogoemanetz.

Gure entzumenak lankoa aditzen dula diago. Aditu zuen bizkaitarren antzera: buruz artu. Arnas edo egurats orrek bi gauza omen dakartzi belarrira: ukitzea, ta xixtu egitea. Aitaren Itz orrek ere bi ondorio omen ditu atsegitea ta adieraztea. Eguratsak, belarria igurtzitzean, ukimena iotzen du, ta xixtuak belarriaren beraren entzumena. «Bere-bat dio, Maitearen on-doaien iarioa, Ark naimena ukitzean sumatzen da; au baita animaren muiña. lankoaren on-doaien iario ori, animaren belarrian, ots, ezagumenean ere sumatzen da. Ukitze orrekin batean entzumenak atsegin aundia artzen du eguratsaren xixtuan edo soiñuan eguratsak belarria ukitu utsez baiñon areago; entzumena animaren aideago baita, gogakiago ukimena baiño. Animaren belarritik

sartzen dan Itzaren xixtu au, zerki bat danez gair-  
ñera, egien eta ixilgordeen agertzea darama  
berekin. Iainkoaren Liburuetan Beraren berri  
eskuarki belarriz ematen baitzaigu, egi soil oie-  
takoak agertzen zaizkio gure adimenari, edota  
lainkoaren ixilgordeak. Ikuskari ta gorde-agerka-  
ri oriek ez dira gorpuzki, ez dute gorpuzkiekin  
aidegorik, ez aien laguntzarik, gogaki soil soil  
dira. Orregatik egi egia da Iainkoak belarrien  
bidez bere berri ematen digula».

Eta eziñ-utzizko diran beste Ierro aukak:

Esku biguna (Aita)

ukitu leguna (Semea)

goritasun guria (Gogo Gurena)

UKITU LEGUNA: «Ai Zu, Ukitu legun, Iainko-  
Seme ITZA, zure Iainko-izan orren meetasunez  
nere animaren gureraño sartzen baitzera, ta  
guzia mearo ukituz, Zugan urrupatzen bezala  
duzu, iñon entzun ez diran bezalako atsegina guri  
Iainkozkoetan! Ai zu, Itzaren ukitu legun eta  
mea, esan-al baiño meagoa! Mendiak irauli zeni-  
tun, arkaitzak erdibitu, Horeb mendian, Zure  
aurrean zoan indarraren itzalarekin; baina legun  
eta bizkor sumarazi zenio Iragarleari (neri) egu-

ratsaren xixtu mei artan! Ai Zu, aize mea, nola zera aize mei ta medarra; nola ukitzen gaituzu ain mearo, lanko-Seme Itza, ain izugarri ta altsu zelarik!; Bai doatsu mila bider ain mearo ukitzen duzun anima, Zuk, izugarri ta altsu izanik! Otse-giozu munduari ez, arren, munduari, ez baitu aize mei onen berririk, eta etzaitu sumatuko; ezin baitzatu beregan artu nai ta ikusi nai ere. Ai, ene bizi zakidan lanko! munduari uko egin dioten aiek bestek ez dute sumatuko Zure ukitu legun ori, beraiek ere meitzen dirala, mea mearekin egokituz. Meituago diran eta garbituago, animaren izan-muiña areago ukitzen diezu, sorkari guzietatik aldegin baitute, eta aieri darien suma ta zantzu guzutik; Zu baitzaude aien barnean etxe egiñik, eta Zure aurpegiaren izkutue-nean gordetzen dituzu, ots. Itz ortan, gizonen bildurretik. Ai zu, ukitu mea, berriz ta mila bider meago ta bizkorrago, zure meetasun orren indarrez suntsitzen eta aizatzen baituzu animatik sorkarien edozein ukitu! Zure egiten duzu, Zu bakarraren eta ukituz uzten diozun ondorio orrekin, beste edozer, aundi naiz txikiren ukitua laz-



kar dirudio, begi-mingarri zaio, ta min eta oiñaze beste edozein ar-eman eta ukitu!

Zerbait berez meago ta zabalago da; orobat tokitsuago, besteengana barreitsuago. Itz au iñolako sarkor eta mee da, anima bera ukitzen baitu. Anima ontzi tokitsu zebala da, garbitu ta meatu baita onara orduko. Ai, beraz, Zu, ukitu leguna! Zu sarkorrago, nere anima garbiago, eta nigan ugariago ixurtzen zera. Bestalde, meago ta sarkorrago danaren ukitua atsegin aundiago-koa da, ots, mukulu gutxiago dunarena. lanko-ukitu onek ez du mukulurik, ukitu egiten dun Itz onek ez baitu eiterik, ez nola-alarik, oriek mugatzen baitute zerbaiten zer-izana. Beraz, ukitu au lainkoaren zer-denaren baita, esan eziñezkoa da. Ai Zu, azkenik esan-ala baiño meago zeran Itzaren ukitu! Zure zer-izan mei mearekin eta muiñarekin gertatzen baita, eta azkengabe mei ta sarkor danez, barneki ta maiteki ta esan-ala baiño guriago ukitzen du».

Benardoren eta loanes'en zati auek liburuetan arkitzen diran ederrenetakoak dira.

N.— Izan ere!

Ezagunak dira Kempis'en itz ederrak ere, Iesus ixilik entzuteaz ari dala: «Iesus barnean mintza ez ba'ledi, zirtzila da gure pozaldia; baiña Iesusek itz bat esan ba'leza poa aundia sumatzen dugu. Bai doatsu, kanpotik datorren mintzoa ez-baiña, barnean irakasten ari dan egia entzuten duna! Bai doatsu Egiak berez eskolatzen duna, itzez eta iduriz ez-baiña, Bera dan bezala. Gizon barnekoiak nonai derama berekin Iesus poz-emailea ta au esaten dio: zakida lagun, Iesus launa, alde guzietan eta aldi guzietan.

N.— Ontan, nere gizona zuti iarri zinan eta ioan-keiñu egiten asi. Zaude apurtxo bat, esan nionan, azken galdera bat egin nai nizuke. Gauza asko ta onak erakutsi dizkidazuke; eskerrik asko, baiñan, esazu, nondik ezagutu dezake kristau zintzoak argialdian egotetik gaiñenera igo izatea dagon adea,

El.— Gauza ortaz —arek— aski eleta egiñik dago, ta ez naiz aztertzen asiko. Bi astarren emango ditizut neri gertatu zaidana esateko. Au da Ienbizikoa: noiznai, lotatik iekitzean ere, otowitzean gertatzen naiz. Esnatzean Iainkoa Bera gertatzen zait oroimenean eta biotzean, nik ezer

egin gabe. Ez dut batere alegiñik egin bearrik otoitzean sartzeko, argialdian egin bear izaten nun bezala. Tabor'en gertatu zanarekin nere gogoan eta biotzen betiko ezarririk eta irrarririk gelditu zitzaidan gure launa, Ikus-ondorio bezala, ezereen iduripenik gabe, iakiña. Onek ari nau beti. Oso bakan atertzen zait oroitze maitetsu ori.

Au da bigarrena: ala-nola edo alderakizun baten bidez adieraziko dizut. Gogoemazu urmael bat. Mutiko bat ari da iostetan, buxtarri bezalako arri biribil batzuk ur erdira iaurtitzen. Arri koxkor bakoitzak pulunpatzean, pirril bat egiten du uretan. Ua, berrituz eta zabalduz, urmaelaren ertze-raiño doa, ur-axal guzia zimurtzen dula. Olatsu dira argialdiko biotzeragin aiek, xamurren eta legunenak ere. Ostera, zaude begira zu bakarrik, eta urari ez bezaio iñork eragin. Noizik bein an ikusiko dituzu barren barrendik ateratzen ondarretik, ponpolo aiek ixil ixil datoz, eta an lertzen dira gain-axala iotzearekin, eta ez dute ura zimurtzen. Ola dira gaiñeko mailean gertatzen diran gogo-eragiñak. Doi doi sumatzen dira, gorputzak bear aiñaxe. Esanik utzi dizut oriek bai-

ñon ere ixilago ta legunago dala barnean ari zai-  
gun grazia.

Eta, ain zuzen, len biotz-eragiñak izan nitun  
abelera berberetan, eta batez era Biblia irakur-  
tzean, lengo toki berberetan gertatzen zaizkit  
oraingo auek ere, esan dutan aldearekin Emen  
dator egoki Loiolarena: «Siñespen, itxaropen,  
maitasunak areagotze da pozaldirik oberena: ta  
beste edozein barne-poz mota oro ona da, zeru-  
guzetara ta animaren osasunera eragiten ba'du,  
lainko Egileagan ibiaraziz eta pakearaziz. Anima-  
ko osasunaren aztarretik seguruena, len esan  
dizudanez, pake ori da, ur-geldiaren antzeko  
iabaltasun ori. Kristori dario, Itzari dario, Benar-  
dok liokenez; Itz orren oiartzunari, ondoreko ixil-  
tasunari; ez iduri, ez soiñu, ez margo dan ari, ta  
guziok batean dauzkazunari. Entzun dezagun  
Iñati Antiokiarrak ziona, Kristoren ixiltasuna,  
pakea, iabaltasuna.

Itzaltzera noazu. Ezazu biotz!

N.— Ontara giñala arrebak ukalondoak belau-  
nen gainean tinkatu zitun eta burua eskuetan  
iaso. Olaxe egon giñan aldi bat ixilik.

Gero nik ola bukatu nun: Egia esan, aurra, gizon arek olako gauza bikaiñak esanerazi dizkidan ezkerro, etzeukanat batere gogorik beste zenbait gauzetan nere luma kaxkartzeko. Or ari zaizkidan adiskideak, seku-lan baiño sasoi obea daukala idazteko, ta iarrai dezadala. Sasoirik oberena ez dun txarra lankoarentzat. Besteri erakutsia neronek ez egitea itsusi liteken. Aier aierrik niagon mundu bazter batean gorderik, Elias'en antzera, urrundik bederen, nere azken-urteok emateko, Tabor antzeko gain batean txabola bat egin bear ba'nu ere. Etxe aldera urbiltzen ba'naiz, lagunek ez neunate pakean utziko. Etxekoak, berriz... i aunat etxekoenik. Noizean bein elkar ikusi ba'geneza, olako gauzetaz mintzatzeko! «lainkoa lenik» inguru auetan esan oi danez.

D.— Etorri adi berriro.

# XI ZERUA

Caelum novum ete terre nova: zerua berri, lurra berri. (Apoc.XXI,1.). Lucerna eius Verbum Dei: Aren izena lainkoaren Itza. (Apoc.XIX,13).

## AMETSETAN

N.— Negua urbiltzen ari zinan, lenbiziko euriak asirik. Asiera emana neukanan nere zeru oni, eta alako batean, bi argitasun ikusten ditiñat gauetz nere gelan. Etzin-berri nintxinan. Dabid'ek dionez, ogean sartu ordukoxe loak artzen natxon; bañan egun artan bekaiñak arin neuzkanan. Bi argitasun oiek ez nindutenan ikaratu, oiturik bainago, eta orduko asiak zitxinan gauetzko argitasun aiek. Salvador'en ikusi zetunat aurrenekoz argi-inguma polit oiek. Emen izen itsusia yunate: egal-ipurtargi. Gogoan al daukan ipurtargia zer dan?

D.— Amaika ikusi netuan ardietatik nentorrela!

N.— Ameriketako auek egan egiten yunate eunka, berreunka, millaka, ta gelara ere sartzen ditxin. Zer ikuskari zoragarria, illundu ezker, euritan, elur-luma bezain ugari baitira sasitik sasira, zugatzetik zugatzera, piztu- itzalika. Argi-elur esan liteken, tarteka itzaliko ez ba'lira. Nere gelako bi oiek oietatik zirala uste nenunan; bañan argitasun auek ez zitxinan itzaltzen tarteka ere. Ez zitxinan luxe beste oien antzera. bai biribil. Ez txuri, ez gorri, ez urdin, ez ori, baña tarteko margo bat zunaten. Begiak itxi zetunat. Oraindio barrengo begi-xarean ikusten netunan argi biribil oiek. Aingeru ote dira? nere artean. Euskalerrian oitura danez, au galdegin zienat: «onez al zatozte, ala gaiztoz».

M.— Onez, mutiko, onez. Gu gatxik. Argi biribillen erdian bi M ikusi netunan. Nor ta ote dira ?

A, bai! Matxin eta Matxolo. Aingerutan il ziran senideak.

N.— Oraintxe zuen bearrean arkitzen nauk, bada, zeruaren berri eman nai ba'didazute.

M.— Eziñarekin ari aiz. Guk esanik ere ez uke buruz artuko. Len ere Aingerua mintzaturik zegok Apokalipsi liburuan. Zer bear duk geigo?

M.— Alperrik ari aiz. Guk esatea alperrik uke, «ez begik ikusi, ez belarrik entzun, biotzak sumatu ere ez baitezake atsegin toki au zer dan.

N.— Eta ni zerbait esan bearrean.

M.— Esan ezak, bañan ez xoxokeririk. Labor mintza adi, Apokalipsi begien aurrean dukala. Lagunduko diagu zerutik.

N.— Eta au esanik, itzali egin zitxinan. Geia-go etzetunat ikusi.

Asi naun, bada buru-iraulketan, nondik eta nora ioko. Txorakeririk ez esateko alde batera; bestera Apokalipsi orrek bildur ematen zidan, andik ez baititeke itzik kendu, ez erauntsi, mada-riku aundien azpian. Eta gaiñekoak begira. Au lana! Kezketan egon nintxinan aski luzaro, agin-durik baitaukat, bañan azkenean, loak menderatu nindunan.

Gau artan amets egin nenunan, aski polita, zeruan gertatzen nintzala. Ametsetan gogomana, ala bezela eman ezkeru, ez al yunat



utsegingo, ez lainkoarekin, ez gaiñekoekin. Entzun ezan, beraz, nere amets ori.

N.— Andre Mari'ren iaoteguna zinan, Bedaio'-ko pesta. Eraman neunate izarretan gora edo etzekiñat beera lurraren azpian ere izarrak erruz baitira. Ikuskarria! Ustai antzeko izar-gerrikoa ageri baita amabi izar-mordorekin Aria, Zezena, Bixkiak, eta abar ua ikusten nunan guzia batean. Zer enparantza ingurutxo bat ateratzeko!

D.— Ara!

## **SOKA-DANTZA**

N.— Nongotarrak, eta Bedaio'arrak atera zitxinan: ogeita lau lagun etxe batekoak —gurasoak beren aurrekin— asieran.

D.— Gogoan zeukeat neronek ere, pamili bakarrak atera izan zula sokadantza. —Beraz, izar-mordo bakoitzaren parean bikotea; erdilekuan berriz, lau gizon, bertatik bertara bezala ikusten eta entzuten —an guzia bertatik bertara ikusten eta entzuten baita—. Lau gizon aletan lztueta Zaldibiarra, zigor-maisu, puntuak ema-

ten. Beste irurak bertsolari zitxinan, bertsoa lenbizi kantatzeko, ta gero sail osoa.

Berala aureskua atera zunaten. Naparroan galdu zinan auresku ori, iñoiz izan baldin ba'da; Gipuzkoan, berriz, orri dagozkion bi ingurutxoak; baña Bedaio'n Orixe'n eta Napar-mugan dantza osoa ateratzen zinan.

D.— Egia, neronek ere ikusi nian, Leitza'ko Ebaristo Elduaine gurera danbolin ioaten zanean, eta lenago Pastain, arengandik ikasi baitzun gure Atxiaga'k.

N.— Nor izango aurre ta atzesku, ta Azpeitiar bat eta Elorrio'tar bat; bi erri oien tartean sortua baitirudi aundiki-dantza ori.

D.— Nor-ta ziran bi oiek?

N.— Loiola aurrelari, ta Berrio-Otxoa atzelari. Erdi-zuloko beste gizon aietako bat bertsoan ari zinan, —len dantza beti kantatua baitzan—. Nor? eta Perrando Amezketarra. Lapurreta batzuk gora bera an zitinan Iztueta eta biak, damuturik il baitziran. Perrando bakarka ari zinan aurrena, ta aren ondotik koru osoa, dantzarien eta ertzuloan zeudenen tartean.

N.— Inguru aunditxoa duk ori. Nola betetzen zuten amabi biko aiek. Besoak luza bearko ziti-ten. Bai zera Izar-mordo batetik bestera errez iauzi egiten zunaten. Gainera, gerriko artako izar-mordoak aldez beste zoazinan: dantzariak ezker-ioeran eta izarrak eskuin-ioeran. Ortaz, pauso banetan mordo bana aldatzen zunaten.

D.— Ez duk makala! asmatzekoa duk!

N.— Ametsetan ari naun, neska, ta idurimena ametsetan bizkorrenik.

D.— Nola ezagutu ituan olako ta alako ziranik gorputzik gabe daudela?

N.— Ezagutu? Aztu baitzitzaidan ametsetan, gorputzik etzutenik.

D.— Eta, nongo apaiza zegon maiburu?

N.— Iesukristo ta Andere Mari, gorputz lillura-garriekin, azkeneko izar-gerrikoa bañon aruntza-go, eguzkia ta ilargia gugandik dauden bezala.

Beren norgeigoka egin ondoren...

D.—Nor atera zan nagusi?

N.—Biek elkarren beteko. Gaztetan Berrio-Otxoak etzunan ikasi, bañan an berez ikasten yunate.

D.— Ta Loiolak bai al zekin?

N.— Iakina! Ez al dun irakurri? Paris'en adiskide bat omen zunan, ogean gaixo zegona, oso betillun. Aren begirak ez omen zinan argitzen. Ontan, Loiolari esan omen zionan: «zuen eskualdeko dantza bat dantzatuko al zenidake, argitasun pixka bat etortzen ote zaidan?» eta, bai dantzatu ere; bai gizona sendatu ere. Ni ere soka ortan sartzeko amorratzen nintxonan, baña gorputz ilkor au ezin aldatu zinan emendik ara, ta ez unan gai alako iauziak egiteko.

Dantza-aurrea bukatu zutenean.

## **LEN INGURUA**

Beste ogeita lau lagun sartu ditxin. Nongo? ta Askarateko. Ba dakin bi erri oiek ez dutela elkar elkar artu.

D.— Esana dut, ba: Askarate ta Bedaio, alkar ezin eraio!

N.—An eraio zunaten; an etzegon bekaitzik, ez gorrotorik. An ikusi nitinan Urlia, Sandia, Berendia, izenik etxunat aipatzen. An ikusi ere oraindi baizi diran zenbait adiskide ta... etsaieta-

tik ere. Etzionat iñori ipernurik opa, lesukristok odola aiengatik ere eneregatik bezala eman baitzun, eta ditekena dun an elkarrekin biltzea.

D.— Olako'ri ere ez diok ipernurik opa?

N.— Ez Olako'ri ere.

Soka luza ta luza ari zinan. Sartu zitxinan Azpirotz, Berastegi, Orixe, ta abar.

D.—Azpirotz?

N.—Bai. Ango Erreminteneko nagusi zarra, gu aur giñan baño lenagokoa. Berastegira eaman zunaten soka-dantza erakustera. Aren eren-illoba Joxepe'k esan zidan.

D.— Azpirotzen dantzarik ikasi al diteke ta atera ere? ez baitago arra bete zelai.

N.— Orixe'n geiago al zegon?

D.—Ori esan!

N.— Maldar aietan enparantza ba yunate, beste zelairik ez ba'da ere.

Lenengo ingurua kantatzen bai al dakin nor asi zan? Ik ezagutu unan gure Xabalo bertsolaria. Ua zinan erdilekuko lau gizon aietakoa. Aren urrena korua.

D.— Ez al da zizturik eta danboliñik?

N.— Ez, neska, ziztua emen ere beieri ianarazteko ohea din. Len dena kantaz egiten zuntzen, nik Uitzin ezagutu bezala; tuntuna, berriz, gudarako ohea.

D.— Ta nortzu ziran aurre-atzelari inguruan?

N.— Xabier aurre ta Garikoitz ondar.

D.— Ori ere!

N.— Asi dun gure Xabalo. Ez din alako Gaia-  
re'rik. Zer eztarria! Aren urrena euskaldun guzien sailla. Inguru ta zubi egiñik, asten ditxin bi Naparrak zortzikoka. Ezagun zinan Xabier Paris'ko mutil gazte ua zala, an ere mutil dantza ateratzen arritu baitzitun. Aizekeri zala-ta damuturik, liztez lotu zetunan zangoak estu estu. Artatik gaiztatu zekizkionan, aragia usteltzeraño. Zer iauziak! Garikoitz ere aren ondo ondoko zinana. An ikusi netinan Uitzi'ko Arizti zortzikolari bikaiña, Azpirozko Arrizuri, Lekunberriko Ipiri. Leitzako Gogortza, Berastegiko Alduntzin, Askarateko Sasturain, Bedaioko Xubeldia, Lizartzako Zela-gain, eta oinbeste ta ainbeste gizon, emazte, aur... Bein gogoan zeukanat Leitzan irurogei biko giñala soka-dantzan. Zer edertasuna! Oraingo ontan bazitxinan irurogei irurogeiko baño geia-

go. Kantariak berriz, nonai zeudenan. Dantzariak berak ere kantari ari zitxinan, arnasik galdu gabe, gure muxikolariak aspaldietan bezala.

## **BIGARREN INGURUA**

Alda-deia io ondoren, an ateratzen dun Uitziko Gerazine, nik ezagutu nun aitonaren aitona, izen aundiko bertsolaria... Uitzin, beintzat. Euskalerra osoan ere zabaldurik zegon, Azkue'ri esker, aren zortzikoa bere doñuarekin: «Nik aditzea dudanez...»

D.— Ori kantatu al zun?

O.— Ez, neska, doñu ortara, bai, bañan Andere Mari'ri bertsoaldi bikaiña.

Leitzan ikasia yunat Arribillaga amonarengandik, Gerazine ori Leitzako Tutereneko alabarekin zebillala ezkontzeko, ta ango mutil bat tartetik sartu zitzaiola. Ordun atera zetinan:

Ala ba'lire biotzez  
omen diradenak-itzez,  
etzaitute erreko  
bela ur otzez.

D.—Poliki zegok.

N.— Beraz, ingurualdi batzuk egin eta beste zenbait zortzikoaldi atera, bukatu yunate dantza ori. Gero, Andere Mari'ri guziek agur egin zionate burua makurtuz, eta Amak par murriz batekin erantzun. Egun artan bedaioarrak zerutik beren lurreko txokora begiratzen zunaten. Nik ere ain goitik ez ba'da ere, nere ametsean ikusten nenu nan ogetik, Sarasola danboliña iotzen ari zala. Gure artegian -ametsa amets baita-arkumeak naiko esnea edanik, itzulipurdika zebiltzina ioan etorri, beren gisako dantzan. Zeruan, beste izar-gerrikoetan ere, dantza atera zunaten, bakoitzak berea, ta gero guzien erabat. Orra izadi osoa dantzan. Ipernuan ere bai «Eziñegoaren dantza». Ba zitxinan aski biraolari, batez ere Itali'tik eta Españi'tik. Damutu gabe il ziranak an ari ditxin deabru-dantza nasi artan: ez, naski, marizirtzilen besoetan ezti ezti.

Gabitegia ere ikusi nenuan, barka-eguna baitzuten Andere Mari'rena. An zegonan Dante aundia, geitxo mintzatu zalako. Onela eraso nionan: «Ez, Dante, ez; Naparroa Bureba'ko Ata'ra-



ño zan; euskeraz itzegin oi zan. Zuek, bai, besteren errietan ukalondoa sartzen duzute; zazpigarrenik ez duzute ezagutu. Gure Errege Santz zugur seigarrenak, Ata'ko mugara iritxi zanean, zugatz baten gerrian sastatu zun ezpata, au esanez: «oneraño da nere iaurreria» Aren gudariak orobat, lantzak lurrean sartu zituten. Lekuko da Bizkaian Malastu zugatza ere. Guk ez genun besteren erririk maiztatu, ez aien utzikondorik artu, ez emazterik eraman. Etzidan an itzik erantzun; bai buruz keiñu egin, arrazoi neukala. Bañan egun artan bertan, mundu zabalean agertu dan olerkaririk aundiena —beude Moises, Dabid, eta oiek— zerura igo zinan, Andere Mari'ren alde ederki mintzatu zalako.

## **AGURE-DANTZA**

Azkeneko izar-gerrikoan ogietalau izar-mordo ditxin. Apolkalipsi'n esaten diraneko ogeitalau agure aiek an zetunate beren iar-leku bikaiñak. Aiek ere dantza egin zionaten Andere Mari'ri, iñolako gorespenak emanez. Alleluia'ka ari izan

zitxinan gerri ta buru makurtuz, Bildotsaren amari, ua bitarteko etorri baitzaigu denori betiko osasuna.

## **AINGERU-DANTZA**

Azkenik Aingeruena beren Erregiñari. Aien mintzo zoragarria! Gizon gazte itxura artu zunaten. Zenbat millaka milloi. Izar eta gizaki urri gelditzen gatxin. Gabirel zunaten zigor-maisu. Musika, nolakoa! Itzak berriz, Agur Mari otoitzarenak. Azken itzetan elkar artu zunaten doatsuek oro: «Onetsia zure sabeleko Seme Iesus». Nik, besterik eziñean, agopetik esan nitunan.

Ixilaldia. Oro Erregiñari begira. Ua par-murritzez zerbait esan naiean bezala: «launaren nes-kamea ni» esan zunan, eta beste ixilaldia. Orduan Ama Semeari begira, ta doasu guziak ere bai. Zer esango ote du gure launak?- «Ama!» Mintzo lainkozko ua entzutearekin... Zaragoza Txiki'ko ogean esnatu nintxinan.

Zer ametsondoa! Alako zirrara eragin zidan n nere izate osoan, zoramena darion ago

bedeikatu arek. Itz batek bakarrak. Esnai egon ba'nintza, kordea galtzeko aiña ba ninan; baña lotatik birbiztu nintxinan.

Ametsondo esan yunat; otoitzondo, obeki esan. Gau-erdi aldera esnatu nintxinan. Andik argitu arte ez neukanan logalerik. Iainkoak artua bezala nengonan ezur ta mami, kirio ta muin, txingurritu antzeko irakin legun batekin.

Oraindio mundu ontan bizi bearraren miña; bañan arako itxaropenarekin erbeste au igarotzeko kemena. Ametsondo ote zan guzi guzia? Mundu au ametsago dala esango niken. Olakoen ametsetan bizitzea obe din, bai emengo egi askotan baño.

Zer geiago esan bear yunat?

D.— Galde batzuk egiongo ditiat. Esak, eta nola egongo gatzik izartarte oietan zintzilik erori gabe?

N.— Ezagun din ik kristau ikasbidea Uitzin ikasi ez unala. Luzetxoa zinan. bertako maisu zar Arrizurietak itzulia. Onela esaten zunan: «Zein-ta dira zeru-gorputzen lau doaiak? eta «argitasuna, zailutasuna, (zuek belaungozo esaten diozute), sarkor izatea, minberakaitz izatea». Sarkor iza-

tea, ots, gure gorputzak alderen alde pasa dezakela edozein gorpuzki, Aingeru litzaken gisan; minberakaitzen izatea izenak berak esaten yun.

D.— Bai, bai, ez dugula andik aurrera miñik iñon izango.

An ez yunagu izango negarrik, ez miñik, ez nekerik; Argitasuna alegia, Bildotsari dariona, Arengandik guregan errañutzen dala. An ez yunate egunezko argi bearrik ez baita gaurik. Illunarte guziak argituko ditin Bildotsak bere argiz.

Zailutasuna, alegia, pentsatu orduko an dirala nonai, gu orain Orixen giñaken bezala. An ibiliko gatxin, edota, ibilli gabe ere ikusiko zetunagu bertatik bertara bezala lainkoak egiñak oro, oraingo urrun-ikuste ta urrun-entzute auekin baño obeki, zenbat eta zein ikuskarri diran. An ezagutuko zetunagu mundu ontan izan diran santu guziak. Aiekin eta kristau on izan diran guziekin mintzatuko gatxin.

D.— Eta nola? Zer izkuntzetan?

N.— Iakiña, bakoitzak geurean, eta alere elkar ederki adituko yunagu. Emen ere gertatu izan din, batuk izkuntza batean egin eta besteak

bestean erantzun. Gure Xabier portugesez mintza oi zinan eskuarki, ta zenbait aldiz Indietan izan zunan doai ori, ango izketa ikasi gabe ere, zeruan ez al gatxin gutxiago izango. Ta aundia-go dana, bein amabi Bonzo'k galde bana egin, eta arek, erantzun bakarrarekin adierazi bakoitzari. Zeruan areago, naski. Emen lurrean ainbeste izkuntzek, erri guziak anai izanik ere, elkarrengandik banatzen gaitunate, atze ta arrotz gertatzen gerala; esaten baitu Augustiñ'ek, gizonak naiago dula bere zakurrarekin itzegin beste mintzerako gizonarekin baño. An guziok erri bat egingo yunago, lainkoaren erria. An guziok anai ezagutuko yunagu elkar, nai ta nai ez, bakoitzak bere izketan iardunik ere. Ioanek ala ikusi zetunan erri ta leñu ta izkuntza guzietakoak: «ex omni natione, et tribu eta lingua». (Apoc.VII, 9).

Amaika maxi egiten zigunate, euskera Paradisu'ko izkuntza nai dugulako, ots gizamendeen asieratik itzegin omen zala diogulako. Bakoitza bere izkuntzari atxikia izanak makiñabat olako esanerazi yun, Euskalerritik landa ere. Gaztelarrek «lainkoarekin mintzatzeko izkera» esaten zionate berenari. Ori ez din gutxiago. Prantxexek

ere zertzuk esan oi ditute beren izkera xarpil orren alde! Bakoitzak bere ama maite , ederreña ez ba'da ere.

Bai al dakin zer esan zidaten bein? Atsegintoki edo Paradisuan sugea Eva'ri euskeraz mintatu zitzaiola.

D.— Polliki asmatua zegok.

N.— Nik etzekiñat oraingo ontan ilgo ote zai-  
gun euskera gaixoa: urbil zegon; baña ni bizi nai-  
zaño iraungo dula uste yunat. Gero, zeruan an  
izango ditzin lurreko erriak, gurea ere bai. Gura-  
soekin eta besterik etzekiten aiton amonekin  
egingo yunagu,beñipein. Ezer gutxi din, baña  
gutxi onek ere pozten natxin emengo illunaldie-  
tan. Amaiaka burruka egin yunagu, ta oraindik  
ere ari gatxin. Alperrik ote? Lotsagarri uke gure  
inguruko errientzat eta gure etxeko seme iakin-  
tsuentzat. Geuron eskolarik utzi nai ez, eta bes-  
teren izkuntzan egin bearra. Euskalerrian argita-  
ra emanak ditzin erderaz iakintza gaietako libu-  
ruak. Euskeraz ez oraindik, lenbiziko Biblia ere,  
katolikoa beintzat. Praile oiek gure eltzea maite  
yunaten gure mutikoak ere bai beren komentu-  
rako; baña beti gure erriaren buruzki ari. Apai-

zek, berriz, alderdirik etxunate —dirurik ez—  
olako lanak egiteko. Praile batek edo bestek au  
edo ori egin dula? Zer gauza gero ere! Milla aldiz  
zor geiago zionate gure erriari.

Ez ote dakio nai gure lainkoari, euskera il  
baño len Biblia gurera itzultzea, edo itzulirik  
dagona argitaratzea? Pio X'garrenak gre Apezpi-  
ku bati esana: «Eguzkipean dan Eliz-barrutirik  
oberena daukazu». Eta. lankoaren Itza bere  
izkuntzan irakurri al izan bage!

D.— Argitasuneko doaia aipatu duk lenago.

N.— Bai, ta ortaz idurimena zirikatzea alper  
uke. Nik asmatua, argi ordeztal eta illun. lain-  
koa Bera mintzatu zaigun eziñ obeki Paul'en  
bidez gure berpiztea gai dala.

## XII

# PIZTUERA

N.— «Norbaitek ba-dioke: illak nola piztu? nolako gorputzez agertu? Zozoa zu. Ereiten duzuna ez da ernetzen, lenik il ez ba'ledi. Ereiten duzuna, gero sortuko dan landare ez-bañan azi utsa da, gari edo olakoena. Iainkoak ematen dio gara gogo dunez, eta azi bakoitzari bere gara.

Edozein aragi ez da aragi bera; bata gizona-rena, bestea abereena, bestea egaztiena, bestea berriz, arraiena. Ba-dira lurrean gorpuzkiak, bañan ortziko gorpuzkien dirdaia bat, lurrekoen dirdaia besterik. Eguzkiak bere argitasuna, illargiak bere argitasuna, izarrek beren argitasuna. Izarrak izarretik aldea du argitasunean. Olaxe illen piztueran ere. Ereitean ustelkor, piztean gordin; ereitean itsusi, piztean eder; ereitean aul, piztean bizkor. Gorputz azikaia ereitean, gorputz adintsua pizten. Gorputz azikaia ba-dan bezala, gorputz adintsu ere bai, idatzia dagonez: lenengo Adan azikai bizi gertatu san; azkeneko



Adan adintsu biziarazle. Lenik, ordea, adintsu dana ez-baña azikai dana, gero adintsu dana.

«Lenengo gizona lurretik lurtar; bigarren gizona zerutik zerutar. Lurtar izan zana lurtarrak; zerutar dana zerutarrak. Beraz, lurtarraren antza artu genun bezala, ar dezagun zerutarraren antza.

«Zergatik diot au? Aragi-odolek ezin baitu iritxi lainkoaren iaurerria; ustelkoi danak ere ez eziñ-ustel dana. Ara nik esan izkutagarri bat: guziok piztuko gera, naski, ez ordea guziok berri-tuko. Ziztakoan, begi-klixkan, azken-turutaren otsean; turutak otsegingo baitu, ta illak gordin piztuko dira, ta gu berrituko gera. Ustelkor dugun au gordin biurtu bearra da, ta ilkor dugun au, bizkor. Ustel au gordin dedinean eta ilkor au bizikor, orduan gertatuko da idatzirik dagon au: Non duk, erio, ire gurenda? non duk, erio, ire eztena? Erio-eztena obena da, naski; legea, berriz, oben-pizgarri. Eskerrik asko, beraz, lainkoari, eman baitigu garaikundea lesukristo gure launaren bidez».

Emen Paul'ek argia ateratzen yun idurikizun: eguzki illargi izarrena. Len ere esan genunan

argi-gorputz zala Kristorena, CORPUS CLARITAS, eta ba-zekiñagu Bera argi zaigula. Darion, argi orrekin berritzen gaitunean, ua duken argitasuna! Bañan bakoitzak berea, merezi izan dunaren ariora. Gorputz berau duguna, nolabait argia bezain mei ta sarkor biurtua. Ordun bai, mukuluki edo gorpuzki guziak alderen alde erasango ditiñagu. Len axaletik ikusten genun edozein mukulu, ordun barrendik; bañan etxunagu aien barnean sartu bearrik, dana dan bezala ikusteko, lainkoak egin bezala ulertzeko garden agertuko zaizkigun guziak kristal-mokorra bezala; orain zoko ta izkutu zaizkigunak ikusteko, begia zorrotz izango yunagu. Ederrago gaituken eta zailuago, orain ikusi eragiten digun argi au baño. Emengo argi onek, segundoko 300.000 kilometro egiten omen zetun. Guk areago orduan, argi-gorputz aiekin. Guretzat ez duken alderik eta tarterik; beti bertatik bertara.

Zertako ditxin emengo asmakizun berri auek? Urrun ikusteko ta urrun entzuteko, geurok gaituken ikusgailu ta entzugailu. Eta gure Argi duguna, beti gu bakoitzarekin, nonai gaudela, noranai goazela.

Emen ere, aldareko otamen txuri ortan nonai zeukanagu, lurkira guziko gizonak launa artzen une berean ari ba'lira ere. Zergatik ez an?

Bakoitza geure izenez deituko gaitin, eta, Aitaren izkera egiten baitu, izen bakarra esatearekin, izen guziak batean dauzkana esatearekin, bakoitzak geurea entzungo yunagu, ta laztan bakarrean guziok laztanduko gaitin, Eukaristian bezala. «Zatoz, nere Aitaren onetsia; idukazu lurra lur zan baño len antolatu dizudan laureria». Ori din Aitaren Itza mintzo biurtua. Zein samurra ote? Gogoan zeukanat ametsetako ua, iduritu utsezkoa, esnatu bainindun bere eragin sarkorrez. Ua duken egia, ez ametsa!

D.— Oraingo asmakizun auek eta aldareko egoera miragarri orrek zerbait adierazten zigute orregatik.

N.— Urrundik eta oso urrundik. Gure asmake-ri, idurikizun, bururakizun, itz eta mitz, ezer ez ditxin, eta exiltzea obe, bakartasunean auznartzeko: «Ez du begik ikusi, ez belarrik entzun, ez da giza-biotzera iritxi, launak guretzat an antolaturik daukana».

## AZKEN-AUZIA

D.— Oraintxe sartzen ari gaituk, eta laister ara-ustean.

N.— Itxaropenez. Au egingo yunagu au egingo yunagu esatean, lasapidez ari gatxin. San Paul ere ala ari dun, lainkoak erakutsirik: «Gu ere berrituko gera». Ez al zain pixka bat galtzarrara zabaltzen?

D.— Beti ere.

N.— Alare esanik utzi zurrari Paul santu orrek: «besteri Berri Ona adierazi ta ez nadin gerta nerau gaiztetsi».

D.— Ez beza lainkoak!

N.— Esan dezagun berriz ere, bildurrez, bañan itxaropenez; «gu ere berrituko gera». Laister ikusiko yunagu azken-auzira baño len.

D.— Eta, egun artaz ez al duk ezer esan bear? Ez ninan asmorik bañan aipatu dunan ezkerok, bi itz; labur iarduteko esan baitzidaten anaiek, eta iñozokeririk ez esateko. Lainkoaren itzari natxikion berriz ere. Ebangelioari lenbizi: «Eguzki illargi izarretan eta lurrean, siñaleak

agertuko dira, ta iendeak estu dirake itsas-orroaren eta ugiñen bildurrez. Bildurrak igartuko dituz gizonak, lurbira osoari datorkionez. Ortziko indarrak ikaratuko dira. Ordun ikusiko dute Gizasemea odeiean datorrela, indarrez indartsu ta aundiz aundi. Gertaera auek astean, begira ta iasoburuak, zuen zeruratzea urbil baitago». (Le. XXI, 25-28).

Lentxeago esan zunan: «Lur-ikara aundiak dirake tokika, izurrite ta goseak, ortzitik siñale ikaragarriak» (11).

«Eguzkia illunduko da, illargiak ez du argi egingo, izarrak eroriko dira lurretik, eta ortziaren orpoak dardaratuko. Ordun agertuko da Gizasemearen zantzua zeruan... ikusiko dute Gizasemea odeietan datorrela, indarrez indartsu ta aundiz aundi. Bialduko ditu, Aingeruak turutariots aundi eragiñez; eta bilduko ditute autetsiak lau aizeetatik, ortziaren goienetik baztarretararño». (Mt. XXIV, 29-32).

Gauza bera zion Mark'ek ere aldakuntza batekin: «lurraren muturretik zeruaren goienararño». (Me. XIII, 27).

D.— Ez gatzik gutxi izango ere, lorraren muturretik zeruaren goieneraño.

N.— Betealdi bat emango zionagu, iñolaz ere, zeruari.

D.— Laister gertatuko ote da ori?

N.— Ez neri iduritzen, Iesukristo etorri-berri baila lurrera. Degoneko mundu au bnkatu? Nork igerri eguna ta ordua? —Aitak bakarrik.

Ioel Iragarleak dionari kasu egin bear zionagu: «Ordun au gertatuko da: launaren izena deitzen duna, onik aterako da». Ez nolanaika deituz; launa, launa esaten duna ez-baña Arak naia egi-ten duna sartuko baita zeru-erdian.

An agertuko din erdian Iesukristo, auzi-nagusi, amabi apostoluak maiean auzi-gizon ditula. An agertuko din Gurutzea, zeruen edergarri. Gure egiñen oro, aundi ta txiki, begien itxi-ideki batean aztertuko zetunate.

Bertan epaia: «Zatozte, Aitaren onetsiok, ar zazute, mundua mundu zan baño len antolatu zaizuen iaurreria». «Zoazte, gaiztetsiok, betiko sutara, atondurik baitago deabruarentzat eta aren aingeru gaiztoentzat».

An ikusiko yunagu LUZIPER, euskeraz ARGIDUN, illun beltz ikaragarri; artatik igerriko zionagu nolako argitasuna zuken, oben egin aurrean.

D.— Ta oinbeste gaiztetsien gorputz non kokatuko ditxik lurraren sabelean? (Eccli, XVII, 19),

N.— Esana baitago «zerua berri, lurra berri», lurbira au saboi-askilloa bezala ez al zezaken lainkoak puztu, orain baño eun aldiz aundiago biurtzen dala? Izango din, bai, aientzat tokia. Gauden gu onetsien artean, zerua alderen alde gure dugula. Ez din eguzkirik, ez illargirik, ez bearrik ere, Bildotsaren argiak argi egiten baitu. Gure argitasunak ere bai, Ari darionetik arturik. Ez din izar-arte illunik izango, orain bezala.

D.— Eta auzi ori eguratsean izango ote?

N.— Ala bezala esan ziteken. Non tokirik lurrean ainbeste ienderentzat? Gu beñipein, — lainkoaki ala nai dakiola— odeiak artzen gaitula, bidera aterako gakion Iesukristori, **OBVIAM CHRISTO IN AERA, ta ola egongo gatxin beti launarekin, ET SIC SEMPER CUM DOMINO ERIMUS.** (Thesal. IV, 16).

Non eta nola egongo ote geran orrek kezka-tzen bai au, zerua berri baita, lainkoak egin zezaken izar guzi oiek bizileku gertatzea. Ta gorputzaren lau doaieri esker, orain egaztiak bañon errexago kokatuko gatzin eguratsean.

## **BILDOTSAREN EZTIAK**

D.— Egon eta egon, ez ote gatzik aspertuko?

N.— Etzegon bildurrik. Emen ere, bi gizon iakintsu elkarrengana biltzen diranean, ez ditxin aspertzen beren iakinkizunetaz itzegiten, eta bakarka ari diranean, orduak errez igaro oi zaizkien. Emengoak zer balio yun?

Bañan ez gatzin egongo xoxoturik, ez; lesukristoren argi ortan murgildurik gaudela ere, edozeiñekin itzegiteko geure esku gatzin. Otoitzean ez-bezala, edozeiñekin itzegiteko geure esku gatzin, edozeiñengan arkituko baitugu lesukristori darion argi ori, ta iardunean ari gerala ere, lainkoaren murgildurik gaudeken, len esan niñana.



Eta izango yunagu zer ikusi izadi osoan. Emen aberatsak arontz onontz ibili oi ditxin, mundu guziko baztarrak ikusiz, aspertu gabe. Emen aspertzen ba'dira, ara ioaten ditxin. Zer den lur biribil au izadi osoarekin alderaturik? Autsaren pits bat.

Izango yunagu zer mintzatu ere. Emen lurrean erabili genitun eztabaidak, an garbituko ditiñagu, ta oinbeste milloi mundu berri ikusten arriturik, aietaz mintzaten ba-zeukanagu betiereko lana.

D.— Ala esan zitekek.

N.— Guzi ori erakutsiko zigun lenbizi begien itxi-ideki batean lainkoaren Bildotsak bere argiz.

Arreoa zabalduko yun. Zortzialdia emazte-gaiak bezala: zortzi izara larri, zortzi axal eta abar. Eunka, zireunka, aleunka.

«Or doaz aleun eguzki, neronek nere eskuz egiñak; aleun illargi, aleun izargorri, aleun izar-zoro, aleun...» guk iñola ezin asma dezazkegun aleunka izakari. «Or doaz aleun aldiz aleun Aingeru, aleun aldiz aleun Goiaingeru,... or doaz, batez ere, Nik nere odolez irabazi nitun aleunka neskaxa gazte garbi, siñez-aitorle, odol-aitorle,

aur errugabe. Or daukazute batik bat nere Ama, izadi guziaren Erregiña».

Ta berela eztaiak asiko ditxin.

Etxunagu ian edan bearrik. An ez din sabel-nagirik, ez mozkorrik.

D.— Baten batek esango yuk: «Zer eztaiak, gero ere, ian edanik gabe!»

N.— Ba-din oberik! Betiko goserik eza, betiko negarrik eza; iñoiz ez gau, beti egun. Bañan ori ezer gutxi liteken. Kanta ba-dala ba-zekiñagu beintzat, Apokalipsin irakurririk. Gizakiena ta Aingeruena. Eta —lainkoak barka aulkeriren bat esaten ba'dut— dantza ere bai, nik uste. Dantzarik gabeko eztaieri ez genieken esker aundirik emango.

Gizadantza lenbizi, gizaki emaztekiena; gero Aingeru-dantza, gero ogeita lau Agureena, guziak lainkozko dantzak; ez, naski oraingo dantza lizun auek.

Dantzari-buru Dabid ikusiko yunagu, ta bigarren buru Donibane Ebangelaria; esaten baitu bere Apokalipsi artan, iauziak egingo ditugula. «Poztu gaitezen, egin dezagun iauzi, emaiogun ospe lainkoari, Bildotsaren eztai-egunak etorri

baitira, ta Aren emaztea (Eliza) apaindurik agertu da». (Apoc. XIX, 7).

Euskaldunen sail ñimiñoa an agertuko din «dantza iauziekin»: Baztan, Luzaide, Naparroa Bekere, Xubero, erri bakoitza bere irra-lauziekin.

D.— Ikuskarria izango yuk.

N.— Emen ere zoraturik egon oi gatxin dantzariari begira. Aspertu esan dun zeruan? Ori... angorik asmatu ez dezakegula.

Emengo erbeste negargarri ontan ere bayunagu gopor, noizpenka iauzi batzuk egiteko. An, berriz, «gure lainkoak txukatuko du begimalko oro». (Apoc. VII, 17).

«Ez diteke aurrerantzean eriotzik, ez negarrik, ez minguliñik» (JXI, 4).

«Orra lainkoaren etxola gizartean; aiekin biziko da. Aiek zaizkioke erri, ta aiekin bizi dan lainkoa Bera zaieke lainko», (XXI, 3.)

D.— Etxola esaten duk edo etxabola?

N.— Ain zuzen zuzen Apokalipsi'n au irakurtzen yunagu: «Ez nun an ikusi lauretxerik (Elizetxerik), lainko guzialtsua baita uri aren lauretxe Bildotsarekin. Eta uriak ez du eguzki illargien

argirik bear, lainkoaren argitasunez argitua baitago, ta ango argia Blidotsa da». (XXI, 22, 25).

Iainkoaren iarlekua ostilikaz inguratua dago, ta inguruan ogeita lau alki daude ta ogeita lau Agure eseririk, zuriz iantzirik, urre-buruntza buruan. (IV, 4.)

D.— Nor-ta ote dira Agure oiek? Apostoluak amabi besterik ez baitira.

N.— Itun zarreko Aitagoi aietatik, naski: Abraham, Isaak, Jakob, Moise, Iainkoaren gizona, ta abar. Onen kanta ere ba-zekarkin Apokalipsi'k Bildotsari emana: «Aundi miragarri dira Zuk egiñak, launa, Iainko guzialtsu: zuzen eta egizko Zure bideak, mendeen mendeko Errege». (XV, 3). Gure Elias ere ogeita lauen artean dala esango niken.

Bildotsaren iarlekuaren lau egietan lau animalia zeuden (IV,). Aien kanta ere ba-zekarkin: «Guren, guren, guren, Iainko guzialtsua, bazana, ba-dana, ba-datorkena». (IV, 8). Au entzutean, egeita lau Agure aiek auspez iauretsi zuntzen menderen mende bizi dana, ta beren buruntzak lurrean utzirik, onela zionaten iarlekuaren aurrean: «Zor zaizu, gure laun eta Iainko, ospe,

edertasun, al-izate, Zuk egin baitituzu diranak oro; Zuk naita sortu ziran eta irauten dute». (IV, 10).

Azkenik, zeruko Eliza osoak onespen auek ematen zition Bildotsari: «Zure odolez irabazi gaituzu lainkoarentzat, leñu, erri, izkuntza guzietako auek; iaurerri egin gaituzu gure lainkoarentzat, eta apaiz, eta Errege izango gera», (V,9-10).

«Zor zaio, il zuten Bildotsari, indar eta lainkotasun, iakintasun, kemen, ospe ta dedu ta onespen». (V, 12). Oraindik azkenago, zeru, lur, lurpe ta aietan daudenek oro, au zioten: «larlekuan dagonari ta Bildotsari, onespen, dedu, ospe ta alizate menderen mendetan. Eta lau animaliek «Amen» esaten zuten. Eta ogeita lau Agureak auspez erori ziran, eta iauretsi zuten mendeen mendetan bizi dana». (V, 13-14).

Eztai onek etxun eztai-ondorik, beti eztai baita. Bai eztai-aurrea, Elizaren barnean lainkoaren adiskide bizi diranentzat. Sumatzen yunate alako zeru poxiño bat, urrundik bederen. «Ez du begik ikusi, ez belarrik entzun». Zer ote da, arren, zerua. Bego berriketa.

Oraintxe sei bat urte zeuzkanagu gizakiaren adiña lotzeko; Dabid'ek dionez irurogeitamar urte baitira. Etzekiñagu noiz arte gauden atzerri negargarri onetan. Bitartean, beintzat, entzun dezagun ixiltasunean lainkoaren ITZ ori, an eta emen argi, bañan emen batez ere mintzo bere liburuetan, eta aien oiartzun. Bera entzun ez ba genun ere, or zeukanagu Aren Berri Ona. Entzun, bai entzun.

Apokalipsi'ren azken-itzekin bukatuko yunagu: «Gauza auetaz aitor egiten dunak, au dio: «Bai, berela nator. Ala bedi. Zatoz Iesus launa».